

Goienkaria

2006ko uztailaren 7a > Egubakoitza > VI. urtea > 251. zenbakia > Doan banatzeko

www.goiena.net

G2a

Sharon Stoner
taldeak diskoa
aurkezu du > 43

ELKARRIZKETA
Henrike Knörrek Uda Ikastaroez
eta Iruña-Veleiaz dihardu > 07

SENIETZEA
Argentinako Sunchales herriarekin
senidetuko da Arrasate > 18

FUTBOLA
Mundialaren gainean hitz egiten
dute hainbat futbol-zalek > 40-41

"Edozein bake
prozesuko
gakoa
zintzotasunez
elkarrizketa
egitea da"

Harold Good
Bake bitartekaria
> 09



ESKORIATZA > ALKATEAK 'DEBARRI'-N ESANDAKOAK

Ikuskizun antzokia egin nahi dute Eskoriatzan

AUKERAK Antzokia
egiteko aukerak
aztertzen ari da
Udala: elkarlanean
Aretxabaletarekin,
hori da aukera bat

IBARRAUNDI
Ibarraundi indartzea
da Udalaren beste
asmo bat, eta horren
inguruan fundazio bat
sortu nahi dute > 34

BERGARA > UDALA

Gastatzeko 26 milioiko aurrekontua onartu da

Bergarako EAJ-EA eta Aralarrrek 2006rako aurrekontua onartu dute: hain zuzen, aurrekontu osoa 29.884.062 eurokoa da, eta hortik aurrekontu finkatua, hau da, inbertitzeko eta gastatzeko dirua, 26 bat milioi da, beste hiru erakunde arteko mugimenduetarako direlako. Aurten go aurrekontua iazkoa baino %21 handiagoa da.

Hortik zati handiena Ago-rosinek hartuko du: bi milioi eta erdi euro, hain zuzen. > 24

PILOTA > TXAPELKETA

Ibarreko 10 pilotari dago Debarroko finalean

Hamabi pilotarik, horietatik hamar debagoiendarrek, jokatuko dute domekan Debarroko pilotu txapelketako finala. Aretxabaletan izango da, Iturrigorri pilotalekuaren.

Lehenengo partiduan, kadete mailan, Arrasate eta Eskoriatza izango dira aurrez aurre. Berriz, gazte mailan, Antzuolakoak arituko dira Elgoibarkoen aurka; ibarrekoak dira favoritoak. Seniorretan, Arrasatek eta Aretxabaletak jokatuko dute. > 42



LAN TALDEA Aurtengo taldea aste honetan hasi da Leze Txikin lanean.

GOIATZ ARANA

Leze Txikiko indusketa lanak hasi dira, eta 50. urteurrena dute

Arrasateko Leze Txiki kobazulo indusketa lanak aste honetan hasi dira. Aurten, Euskal Herriko, Malagako, Portugalgo eta Australiako 15 lagunetik gora dabilta lanean Alvaro Arrizabalaga oñatiarraren ardurapean.

Aurtengo berezitasuna da indusketa lanek 50. urteurrena dutela. Hala ere, modu jarraian lan egiten 1996. urtean hasi ziren.

Lan handia egin da 1927tik Justo Jauregi apaizak aurki-kuntza egin zuenetik. > 15

AURKIBIDEA

Debagoiena > 02-08
Elkarrizketa > 09
Iritzia > 10-11
Gutunak > 12
Herriak > 15-39
Kirola > 40-42
Kultura > 45
Sailkatuak > 46
Eskelak > 47
Denbora-pasa > 48
Gazteak > 50
Telebista-Irratia > 51
Komunikazioa > 52
Non-zer > 54-55

**FordFocus Trend 1.6 100zp
13.000€-gatik**

Atzeko suspentsioan Blade kontrola
Abiadura kontrola
Bi zatiko aldroigaiarekin
Ordenagailua
Lantuzko bolantea
Irrati CDa

MUGARRI AUTOAK
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE

Ford



Zarugalde 25 / ARRASATE Tel.: 943 77 18 35
Arrizuri 7 / BERGARA Tel.: 943 76 25 91

Kalitatezko ametsak
bede
Koltxoi dendak

BEHERAPENAK
uztailaren 1etik
abuztuaren 31 arte

**OHEAK
KOLTXOIAK
SOMIERRAK
KANAPEAK
IZARAK
EDREDOIAK**

DROGAK > DEBAGOIENEKO DROGA KONTSUMOA

Alkohola eta kalamua dira droga kontsumituenak

ARDURA 30 urtetik beherako ibarreko gazteak adin horretatik gorakoak baino arduratsuagoak dira alkohola eta autoa lotzerakoan, Ertzaintzaren arabera

DIRUA Langabezia txikia dagoela ibarrean eta droga gero eta merkeagoa eta eskura errazagoa dela ikusi dute Debagoieneko prebentzio teknikariek

DEBAGOIENA Alkohola eta kalamuaz gain, bailaran hartzen diren drogak dira kokaina, extasi pilulak eta ketamina, Eusko Jaurlaritzaren txostenak dioenez

OIHANA ELORTZA > BERGARA Alkohola eta kalamua dira Debagoienean gehien kontsumitzen diren drogak. Kokaina da hirugarren kontsumituena. "Debagoienean Euskal Herriko beste ibarretan baino kokaina gehiago kontsumitzen dela entzuten da eta agian egia izango da. Hemen biziota maila altua dugu, langabezia txikia dago eta horiek izan daitezke kontsumo horren arrazoiak", dio Ainhoa Moyua Oñatiako prebentzio teknikariak. Anfetaminak, estasi pilulak eta ketamina ere kontsumitzen dituzte Debagoienean.

GUREAN, EUSKADIN PARE Eusko Jaurlaritzak bi urtean behin egiten du Euskadiko droga kontsumoari buruzko ikerketa. 2006koak dio 2004an baino gutxiago kontsumitzen dela. Euskadin ere alkohola da, tabakoen aurretik, gehien kontsumitzen den droga, baina hartzeko modua aldatu egin dela dio txostenak; orain, asteburuetan egiten da kontsumo handiena eta astebarruan hiritarren %92k ez dute ia probatzen. Droga ilegalen barruan, kalamua da gehien hartzen dena eta haren atzetik daude kokaina eta anfetaminak.

Txostenaren arabera, legezkoak ez diren drogen kontsumoaren

ehuneko handi bat esperimentala da, probatzeko hartzutu duten kantitatea. Ainhoa Moyua Oñatiako prebentzio teknikariaren esanetan, "Debagoienean ere kontsumitzaile askok probatzeko soiliak hartzutu dute. Normalean gazteak izaten dira kontsumitzaile horiek, baina horrek ez du esan gura gazte guztiak droga hartzutu dute, ezta gutxiago ere. Errealityatea da gazte batzuek kontsu-

mitzen dutela eta beste askok probatu egiten dutela. Probatze esperimental hori nabarmen igo da, baina hortik ez dira pasatzen, normalean. Oraindik gutxiengoa da kontsumitzaile bortitzta".

GAZTEAK DIRA ARDURATSUENAK Droga hartzen dutenek arduraz hartza da lortu gura dena eta lorzen ari den helburua da, gainera. "Ertzaintzarekin kontrastatu

dugu eta garbi esan dezakegu gure ibarrean 30-35 urte azpikoak zaharragoak baino arduratsuagoak direla alkohola eta autoa lotzerakoan", dio Ainhoa Moyua. "Autobusa erabiltzen dute, taxia hartzen dute edo txandaka gidatzen dute autoa, baina ohartu dira arriskuaz eta zaharrak baino askoz arduratsuagoak dira; hala ere, egia da norberaren izaeran dagoela ardura-

tsua izatea edo ez, eta, beraz, badaude heldu arduratsuak eta gazte arduragabeak ere", jarraitu du. Hala ere, kezkatuta dago gero eta gazteagoak hasten direlako kontsumitzen eta horixe da ibarreko teknikarien erronka nagusia. Tabakoari buruz, Euskadi mailako datuek diote lehen baino erretzaile gutxiago daudela, nahiz eta oraindik bigarren droga legal kontsumituena izan. "Hemen ere jaitsi egin da, baina legeak ez du hainbeste eragin gaztetxoengan, normalean espacio libreetan erretzen dute-eta", zehaztu du Ainhoak.

Ainhoa Moyua > Oñatioko droga-mendekotasun prebentzio teknikaria

"Heziketa eta prebentzioa da drogekin bizitzeko bidea"

O.E. > OÑATI

"Drogekin bizitzen ikasi behar dugu eta gizartea hezi behar dugu ahal dela ez kontsumitzeko edo modu egokian hartzeko", dio Ainhoa.

Zein da modua, bidea?

Heziketa eta prebentzioa. Umetatik hasi behar dugu balioetan hezten, autokontrola izaten, frustrazioak gainditzen. Horrek lagunduko die izaera finkoa izaten eta egoki erantzuteko arazoaren aurrean.

Droga hartzeko edo ez, adibidez?

Gaztetan normala da probatu gura izatea, baina jakin behar dute ez dute-

la zertan dena probatu, edo behin porro bat erretzeak ez duela esan gura egunero erre behar dutenik eta ezetz ere esan dezaketela. Prebentzio heziketa da modua.

Aisialdi ekintzak antolatzeko enpreesa bat kontratatu duzue. Uda ostean hasiko da lanean. Zer egingo du?

Normalean aisialdian, egiten da kontsumo handiena eta orain arteko lana borobilzeko, aisialdia landuko dugu prebentzio aldetik. Adin txiki-koekin egingo dugu lan, 12 eta 16 urte bitarteko gaztetxoekin. Debagoien mailan aztertu dugun neurria da eta herri guztiak abiaraziko dugu.



MERKEAGO ETAERRAZAGO

Datu zehatzik ez eduki arren, Debagoienean droga asko dabilera ikusten dute ibarreko prebentzio teknikariek: "Lehen esan bezala, bailara honetan dirua darabilgu esku artean gehienok, langabezia txikia dagoelako, eta drogak lehen baino merkeagoak dira orain, merkeagoak eta eskura errazagoak", dio Ainhoa.

Prezioak aldatu egiten dira, baina gaur egun, ibarrean, gutxi gorabehera honela daude: 60 euro balius du kokaina gramo batek; 30 euro bost gramo kalamuk; 10 euro estasi pilula batek; 15 euro speed gramo batek eta 60 euro ketamina gramo batek.

**MILAR
ELKORO**

**ARGIZTAPEN
ELEMENTUEN
LIKIDAZIOA!
ZATOZ!**

**%50
KO**

DESKONTUA



Eta orain ere... **SUKALDE ALTZARIKI!**
Σ Eskatu aurrekontuak konpromiso barik.
Σ Neurrira egindako finantzaketa.

Milar Elkoro Olarte, 1 ARRASATE Tel.: 943 79 18 86



Kalamua

- > Eragina: lasaitasuna eta gosea.
- > Kontsumo datuak: kontsumitzena droga ez-legezkoen artean.
- > Adina: gaztetik.
- > Eguna: egunero.
- > Sexua: gizonezkoek gehiago.

Droga kontsumoa
jaitsi egin da azken
bi urteotan; goraka
doa arriskuaren
kontzientzia

Asteburuetan aste
barruan baino
droga gehiago
kontsumitzen da

ABIAN DAGOEN PROIEKTUA


Ospitalearekin eta Ertzaintzarekin lankidetza

Jaurlaritzak Euskadiko droga
kontsumoari buruz egin duen
txostena egiteko adina baliabide
ez dituzte Debagoieneko preben-
tzio teknikariek. Horregatik,
ibarreko kontsumoari buruzko
datuak atertzeko beste bide
batzuk erabiltzen dituzte.

Duela hiru aste, Arrasateko
eskualdeko ospitaleko arduradunekin,
Iarrialdi zerbitzuekin,
Gurutze Gorriarekin, Ertzaintzare-
kin eta DYArekin akordioa egin
zuten euren pertzepzioak edo
susmoak baiezatzeko edo
ezetzatzeko. Adibidez, kontsumo
gehienak asteburuetan egiten den
edo ez ikusteko eta eurek uste
dutenean drogak kontsumitzen diren
eta droga berriak sartu diren
ikusteko. Horrekin batera,
kontsumitzaleen sexua, adina eta
eguneroko kontsumitzalea den
edo ez ere jakingo dute. Datu
horiek lanean jarraituko dute
teknikariek.

Bestalde, Gizakia Helburu eta
drogamenpekotasuna dutenenda-
ko beste zerbitzu bereziekin ere
badute harremana.

DEBAGOIEANEK KONTSUMITZEN DIREN LAU DROGA



Estasia

- > Eragina: emozio sentimendua areagotzen ditu, poztasuna ematen du.
- > Kontsumo datuak: oso hedatua.
- > Adina: 15 urtetik.
- > Sexua: emakumeek gehiago.

Ketamina

- > Eragina: gorputza eta adimena bereizten ditu; albaitariekin erabiltzen dute zaldiai lokartzeko, eta oso potentea da.
- > Kontsumo datuak: berria da, oraintxe ari da sartzen.

Kokaina

- > Eragina: epe motzerako pizgarri trinkoa.
- > Kontsumo datuak: hedatuenen artean, hirugarrena.
- > Adina: 17 urtetik.
- > Sexua: gizonezkoek gehiago.

Alkohola

- > Eragina: hasierako poztasunak burmuina lokartzen du.
- > Kontsumo datuak: kontsumituena legezko drogen artean.
- > Adina: 15 urtetik.
- > Sexua: gizonezkoek gehiago.

MUGARRI AUTOAK

Araba Etorbidea z/g
ARRASATE



Ford Connect berria Special edition

Feel the difference



JARDUNALDIAK > BAKE PROZESUEN GAINeko HITZALDIAK IZAN DIRA, LEGE SOZIOLOGIAKO NAZIOARTEKO ERAKUNDEAK ANTOLATUTA

Lehen mailako hizlariak eta jende asko, gehiena kanpokoa, izan dira Oñatin

Antolatzaileak pozik daude, baina bertako jende gutxi inguratu dela aipatzen dute

Bakegintzaren gaineko hitzaldi asko izan dira, denak ere kalitate handikoak

LEIRE KORTABARRIA > OÑATI
Bakearen inguruko jardunaldiak bukatu berri direnean, Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundea hasia da datorren urteko antolatzen: Latinoamerikako Eskubide Motak: Eskubidea eta Askapena izango da gaia. Uztailaren 18tik 20ra izango dira.

Bien bitartean, aurtengo esperimentziaren lehen balorazio bat egiteko unea iritsi da. Aurtengo jardunaldiak bakearen ingurukoak izan dira; zehazki, Giza Eskubideak Bake Prozesuetan izan da izenburua, eta Kolonbia, Ipar Irlanda eta Euskal Herriko gatazkei berebiziko arreta eman die. Prestigio handiko adituak izan dira Oñatin hilaren 3tik 6ra bitartean: ezagunen artean, Juan Jose Ibarretxe lehendakaria; Javier Elzo soziologoa; Gesto por la Paz eta Ahotsak taldeak; Alec Reid eta Harold Good irlandar bitartekariak...

Balorazioa ona da, erakunde Zuzendari Zientifikoak, Joxerramon Bengoetxeak, dioenez: "Pozik gaude, eta balorazio orokorra ona da. Gure pena da inguruko jende gehiago ez eterri izana. Arrasatear batek esan zidan moduan, pena handia da Era-kundera eta Euskal Herrira hain jende interesgarria ekartzeko esfortzua egin ondoren, etxeko jende gutxi etortzea".

Hala ere, jardunaldiak lehen mailako hizlariak eta mintegiak batu ditu, eta jendearen erantzuna ere ona izan da: Estatuko ikasleak, oso prestatuak, Bengoetxe-



BITARTEKARITZA AZTERGAI Mahai inguruan batu ziren Alec Reid, Jose M. Setien, Harold Good eta Iñaki Beristain.

D. ARRIBETI

aren esanetan; Euskal Herritik ere ikasle batzuk; alkateak, alderdi politiko batzuk –batez ere, EAJ-EAREN interesa nabarmen-tzen du Bengoetxeak-, Legebiltzarkideak, EAEko eta Estatuko funtzionario batzuk, eta Hego

Amerikako hainbat lagun. Horiek osatu dute publikoa.

HITZALDI NABARMEN BATZUK

Oso zaila da hizlarien eta berbal-dien artean bat nabarmen-zea: "Denak izan dira oso onak", dios-

ku Bengoetxeak. "Kolonbiako gatazka oso komplexua da, eta hobeto ulertzen lagundu digute hizlariak". Beste hitzaldi hauek ere aipatzen ditu Bengoetxeak: lehendakariaren berbaldia; Javier Elzok eta Reyes Mate Filo-

2007KO UZTAILEKO KONGRESUA

"Oso gauza interesgarriak gertatzen ari dira Latinoamerikan"

Latinoamerikako zuzenbidea izango da datorren urteko protagonista. Horren gainean kongresua egingo dute: "Oso gauza interesgarriak gertatzen ari dira han: neoinperialismo eta horri erantzunak; zuzenbidea interes ekonomikoen zerbitzura dagoen, edo askapenerako balio duen, jendeari gutxieneko berme batzuk emateko, berdintasuna eta duintasuna bermatzeko...", dio Joxerramon Bengoetxeak.

Aurten ere, Latinoamerikako hizlariak presentzia handia izan dute. Besteak beste, Alvaro Echeverri, Bogotako Santo Tomas unibertsitateko Zuzenbide

irakaslea eta Kolonbiako Konstituzioko egileetako bat, izan dugu Oñatin. "Esfortzu handia egin du hemen egoteko, eta eskerrak ematen diogu", dio Zuzendari Zientifikoak. Eskerrak ematen die ere Gandiaga Topaguneari eta Iñaki Beristain frantzikotarrari, egindako harrerarengatik; eta baita Euskal Herriko Unibertsitateari ere.

Bitartean, Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundeak bere ekarpena egiten jarraituko du, www.iisj.es webguneaz baliatuta. Aurtengo jardunaldiak informazioa han izango da oraindik aldi baten.

sofia irakasleak biktimen gaine-an egindako hitzaldiak; Aran-tzazun eguzten arratsaldean egindako jardunaldiak, bitarte-karitzaren ingurukoak; astelehe-nean zuzenbide penalaren gaine-ko hiru hitzaldiak...

Aipatutako gatazkez gain, beste batzuk ere landu dituzte, besteak beste Al-Qaeda-tik datorentzat. Elkarren osagarri izan dira bi hitzaldi: batetik, eguzte-nean Gema Martín Muñoz irakas-leak egindakoa, eta bestetik, Fer-nando Reinaresek egunean egin zuena. Hauxe dio Martín Muñoz-en hitzaldia Joxerramon Ben-goetxeak: "Lehen, eskuineko Europa xenofobia zen; orain, islamofobia bihurtu da hori. Kul-tura eurozentrikoa dugula eta besteak gutxiesten ditugula azaldu zen hitzaldian". Fenomeno konplexu hori beste ikuspegi batetik aztertu zuen Fernando Reinares Elkano Erret Instituto-ko irakasleak *¿Choque de civiliza-ciones o conflicto entre musul-manes? Mito y realidad del terro-rismo internacional* hitzaldian.

IRLANDAKO ERAKUNDEAK

Jardunaldiak bizi garen mun-dua eta Euskal Herriko egoera hobeto ulertzen lagun diezazki-gukeen pista eta gogoeta batzuk batu dituzte. Ikasgai batzuk ere plazaratu dira: hala, Ciaran Ó Maolain ipar irlandarrak hanga erakunde batzuk azaldu zituen: presoen eskubideen aldeko erakundeak; presoen, atxilotu-tuen eta polizien behatzale edo *ombudsman*-ak; giza-eskubide batzordeak... Hauxe esaten du Bengoetxeak: "Erakunde asko sortu dituzte, hemen ere behar-ko genituzkeenak".

ZUZENKETA

Joan den asteko GOIENKARIAn jardunaldiak antolakuntza-ren gaineko akats bat agertu zen. Jardunaldiak posible izan dira Malen Gordoak, erakunde Bile-ra Zientifikoaren arduradunak, egindako lan handiari esker. Berari laguntzen aritu da Man-toni Kortabarria.

Has zaitez Konfort *testagatik*™**



* Konfortaren berritzaileak
** Konfort testa

Erakuts ditzakegu gorespen eta argazki erakargarriek ezer gutxirako balioko lukete, inoiz ez baitzenuke ezagutuko Stressless® besaulki edo sofa baten benetako erosotasuna. Arrazoi simple bategatik: probatu egin behar dituzulako! Stressless® baten eseri bezain pronto, beste besaulki eta sofekin konparatuta, eskaintzen dizun aparteko bermea sentitu eta ulertuko duzu. Zuk zeuk frogatu! Gertuen duzun Stressless® dendarra hurrera zaitez eta Konfort testa™ egin ezazu.

Besaulkiak eta sofak www.stressless.es-en



THE INNOVATORS OF COMFORT™

Noche y Dia
Morfóforos besoetan

Atseden Etxea
Adriano VI, 17 • GASTEIZ
Tel./Fax: 945 21 42 24

> HILTEGIA
**100 mila euro ditu
Mankomunitateak 54
kaltetuendako**

Mankomunitateak 100 mila euro inguru banatuko ditu hiltegiko gertaeratik izandako 54 kaltetuendako. Kopuru hori, hala ere, aldatu egin daiteke, zehaztapen guztiak egiteko dituzte eta. Mankomunitateak eskutitz bana bidali dio gaur kaltetu bakotzari. Bertan indemnizazio proposamena dute eta bi aukera: ados daudela esateko sinatu behar duten dokumentua edo zappi eguneko epea alegazioak aurkezteko, eskutitza jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

> RENOVE PLANA
**Garbigailuak dira
jendeak gehien aldatu
dituen etxetresnak**

70 etxetresna entregatu dituzte debagoiendarrek orain arte Renove Planaren barruan eta horietako gehienak, %70, garbigailuak dira. Hozkailuak eta ontzi garbigailuak ere eraman dituzte; gutxien, izozkailuak. Energia kontsumoa txikitzea da Jaurlaritzak jarri duen plan horren helburua eta etxetresna zahar horien truke 75 euro ematen ditu. Baldintza bakarra da berria A edo A Plus motako etxetresna izatea, energia gutxien gastatzen dutenak.

> ABELTAINTZA
**Urteko batzarra
egingo dute
abeltzainek domekan**

Urteko batzarra egingo dute Debagoieneko abeltzainek domekan Bergaran, Miguel Altuna Institutuan. 2006ko aurreikuspenak eta joan den urteko balantza egingo dute eta ganaduarendako erosi duten ekografoaz ere jardungo dute. Bestela, zuzendaritzako kide berriak aukeratuko dituzte, tartearen, lehendakaria. Imanol Lete izan da orain arteko. Hiru sari ere banatuko dituzte. Ia 500 abeltzain dira Debageleko kide.

Luis Laskurain > Suradesako zuzendaria

"Eraikinak isolatuta, energia aurrezten da"

OIHANA ELORTZA > ARRASATE
20 urte bete ditu Suradesak Debagoienean eta urteon balorazioa eskatudion Luis Laskurain zuendari eta kudeatzaleari.

Nolakoa izan da esperientzia?
20 urteak batera ikusita, oso ona. Islean egin dugu lan, baina lortutako kopuruak handiak izan dira.

Zenbat eraikin birgaitu dituzue 20 urtean?
8.000 guztira, bizilagunen elkarreendako eta partikularrendako egiten dugu lan.

Non egin zenituzten lehenda-biziko lanak?
Ondo gogoratzen dut. Arrasateko Erdiko kalean eraberritu genituen lehendabiziko hiru etxebizitzak. Harrezkero, makina bat

teilaru, fatxada eta etxebizitza birgaitu ditugu ibar osoan.

Nola hasi zineten lanean?

Konturatu ginen Debagoieneko herrietako alde zaharrak hutsik gelditzen ari zirela: jendeak auzo berriean erosten zuen etxea eta alde zaharrak gero eta itxura eskasagoa zuen. Ibarreko politikariek ondo hartu zuten gure ideia, eta horrela hasi ginen lanean.

Zein da izan duzuen arazo larriena?

Baliabide ekonomiko gutxi izan dugula. 20 urte hauetan 56 milioi euro jarri dituzte herriarrek eta bi bakarrik berreskura tu dituzte.

Zeintzuk dira etorkizunerako dituzuen planak?



Suradesaren 20 urteko balantza egin du Laskurainek.

GOIENKARIA

modua dela erakutsita. Energia-ren prezioak gora egingo du datozentz urteotan eta eraikinak isolatuz gero, energia aurreztko dugu. Irailean hitz egingo dugu la esan digu Diputazioak.

Debagoineneko paisaia ere aldatu gura duzuela diozu. Nola?

Aldatu beharreko puntu batzuk aurkitu ditugu. Elorregiko garajea adibidez, eta horiek nola birgaitu ikusi behar dugu.



**Bergararen
harrera jaso dute
18/98an epaituek**

Astelehenetan joaten dira Madrilera Jose Luis Elkoro eta Xabier Arregi bergararrak, 18/98 auzian inputatuta dauden lau debagoiendarretik bi. Aste honetan harrera ekitaldia antolatu diete Bergaran herriarrek. "Epaileak eurak ere konturatu dira auzi hau zentzurik ez duen ikuskizuna dela, baina tamalez, abendua arte luzatuko dela dirudi", esan zuen Elkorok. Auzia eteteko eta Auzitegi Nazionala ixteko eskatu zuten elkartu ziren guztiekin.

O.E.

URKIOLA
Barrenkalea 13. 943 76 16 48
BERGARA

% 50



ASKATASUNA Bergara, Arrasate, Oñati eta Aretxabaletako Askatasuneko kideak izan ziren agerraldian.

IRATI AGIRREAZALDEGI

POLITIKA > KONPONBIDE PROZESUKO PROIEKTUETAKO BAT

'Guztiok gara giltza' prozesua abian jarri du Askatasunak

Ibarreko Askatasuneko kideek salatu dute azkenaldiko egoera "ez demokratikoa"

Esan dute eztabaida prozesuan herritarrek parte hartzea ezinbestekoa dela

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA
Guztiok gara giltza lelopean, ibarreko hainbat herritako Askatasuneko kideek agerraldia egin dute asteon. Azken gertaeren aurrean kezka azaltzeaz gain, Askatasunak bultzatutako konponbide prozesuarendako berme demokratikoak definitzeko prozesua aztertu nahi dutela azaldu zuten.

Salatu zuten egoera ez demokratiko batean gaudela eta horretarako zenbait adibide eman zituzten: ekaineko polizia operazioa, 18/98 eta beste epaietak, errepeideetako kontrolak, poli-

zien presentzia, manifestazioen debekuak eta mugak, espelte politikan aldaketari eza, iheslarien aurkako erasoak eta Arra-

saten ekainaren 23an apartheida salatzen ari ziren herritarrei emandako jipoia.

BALDINTZA DEMOKRATIKOAK

Konponbide mahaia abian jarri behar dela esan zuten, "baina paraleloan guztiz beharrezko dugu gutxiengo baldintza demokratikoak ezartzea euskal jendarte osoaren dako. Horiek uktzen badira konponbide prozesu osoa ukatzen da".

Horretarako, *Guztiok gara giltza* prozesua ipiniko dute abian. Azpimarratu dute herriaren parte-hartzea ezinbestekoa dela eta herri mugimendutik egindako ekarpen modura ulertu behar dela.

Euskal Herrian 150 herri batzar egingo dira eta hiru puntu gaineko gogoeta egin osten, ondorioak udazkenean azalduko dituzte.

Prozesua hiru ataletan banatu dute: "Eztabaidetan prozesua bera kokatu osteen, konponbiderako gako politikoak aztertuko dituzte eta baita gako demokratikoak ere: prozesua baztertzalea ez izatea; estatuek errepresioa etetea; oinarrizko askatasun demokratikoaren errespetua, eta biolentzia guztiak desagertzea.

Gaur hasiko dira ibarreko bilerak; lehena Oñatin izango da, eta hainbat herrian oraindik zehazteke daude datak.

Batzarren datak ibarrean

| EGUNA | ORDUA | LEKUA |
|--------------|----------------|-----------------------|
| Oñati | Uztailaren 7a | 22:30 Arrano elkartea |
| Arrasate | Uztailaren 13a | 19:00 Kultur etxea |
| Aretxabaleta | Uztailaren 18a | 19:00 Lokal soziala |
| Arrasate | Uztailaren 20a | 19:00 Arrano elkartea |

Beste herrietan data finkatu barik dago, baina egingo dira batzarrak.

> ENPRESA **Fagor Etxetresnek akzioak jarri dituzte salgai, bigarren aldiz**

Fagor Etxetresnek bigarren akzio eskaintza aurkeztu du. Horrela, aurreztaileek errentagarritasun handiagoa lortzeko aukera izango dute. Lehen eskaintza egin zenean emaitzak oso onak izan ziren (60 milioi euro) eta aurreikuspenen arabera bigarrena 100 milioira hel daiteke eta 125 milioi euroa hedatu. Abantailatoko bat da %6,877ko interes nominala duela urtebetarako euriborrarekin eta %3,5 gehitura. 900 eurotik hasita uztailaren 14ra bitartean hainbat basketxe eta aurrezki kutxatan eskura daitezkeak.

> ADINEKOAK **Adinekoendako egoitza berria egingo dute Aretxabaletan**

Gipuzkoako egoitzak adineko ezinduen beharretara egokitzen 2006-2008 plana aurkeztu dute asteon. Gipuzkoan 35 egokituta daude eta 26 egoitza tan proiektua eginda dago. Ibarrean bi egoitza mendekotasunak dituztenendako egokituta daude, beste bitan prozesua abian da eta beste bi dira inolako proiekturik ez dutenak. Aurreikuspenen arabera 2008rako egokituta egongo dira bost eta beste baten proiektua bidean izango da. Eskoriatzako egoitzako proiektua aurten aurkeztuko dute eta Aretxabaletan egungo egoitza berri batekin ordezkatuko dute.

Edozein premiatarako:

- Antzutasuna
- Erditzeak
- Antisorgailuak
- Menopausia
- Ekografiak (4D)
- Titietako gaixotasunak
- Minbiziren diagnostiko goiztiarra
- Hezur dentsitometria

Zure zerbitzura:

- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otalora
- Jose M. Gomez
- Maite Albizu
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- J. Rodriguez
- Mikel Gorostidi

CG
**CONSULTORIO
GINECOLOGICO**



ARRASATE
Zerkaosteta 17
943 79 20 18

Donostia: 943 30 82 08
Eibar: 943 12 10 28
Irun: 943 61 78 88



Policlinica Gipuzkoa

Henrike Knörr > Euskaltzaina

"Politikaren gainetik, kultura mugimenduak zuen indarra XX. mende hasieran"

OIHANA ELORTZA > ARAMAIO
V. uda ikastaroak egin dituzte astean Aramaion. 1876-1914 urte arteko Euskal Herria aztertu dute 17 adituk. Horietako bat da Henrike Knörr euskaltzaina.

Nolako urteak ziren haiiek?
Foruak kendu zitzuten eta bidegurutze egoeran zegoen orduan Euskal Herria. Kultura aldetik egozketa handi bat gertatu zen eta ideia eta asmo berri asko jao ziren.

Zeintzuk, adibidez?
Donostian *Euskal Herria* aldizkaria sortu zen, adibidez. Bilbon eta Iruñean ere elkartea sen-

doak sortu zitzuten eta handik gutxira, 1918an, Eusko Ikaskuntza jaio zen. Ideia politikoak gainetik nolabaiteko kultur indar sendoa zegoen orduan.

"Ideia eta asmo berri asko sortu ziren XX. mende hasieran; Eusko Ikaskuntza, adibidez"

"Iruña-Veleian 20.000 lagun bizi ziren lehen; euskaldunok ez gara basoan bizi izan beti"



Henrike Knörr urtero etortzen da Aramaioko uda ikastaroetara. GOIENKARIA

Kulturan izan zuen garrantzia sasoi hark, beraz?

Bai; arteari, adibidez, jardunaldi berezia eskaini diogu. Garai hark gero eta garrantzi handia goa izango du.

Nolako garrantzia izango du gaur egungo egoerak gero?

Ez naiz igarlea eta ezin dut esan, baina liburueta idatzita geldituko dela uste dut.

Iruña-Veleian egindako aurkikuntzak loa ere aztoratu ei zizun. Ondo egiten duzu lo?


Bai, orain bai, baina egia da egun batzuetan ez nuela ondo egin lo. Sekulako aurkikuntza izan da hori. Batetik, erlijio ikerrak ageri dira, II. mendekoak edo, eta horrek munduko ikerlari asko harritu ditu. Urrian egingo ditugun jardunaldietara toki askotako adituak etorriko dira. Bestetik, euskarazko hitzak daude eta horiek ere ondo aztertu behar ditugu.

Hitz arruntak izatea da, gainera, berezitasuna, ezta?

Bai. Orain arte Jainkoen izean edo erlijioarekin lotutakoak aurkitu dira, baina hauek egunerokoak dira: *urdin, edan ian lo eta jaun*, adibidez.

Nola aldatuko du horrek euskaren historia?

Hori aztertu behar dugu hemendik aurrera. Hala ere, askok uste zuten orain arte euskaldunok basoan bizi ginela, basatiak ginela eta orain zibilizazioarekin duen lotura zuzena ikusi dugu denok; Iruña-Veleian 20.000 lagun inguru bizi ziren. Gainera, euskara idatzian agertu dira eta hori garrantzitsua da.



Proposamen interaktiboen bidez jaso daiteke informazioa. GOIENKARIA

Bidaia eta garraioaren gaineko erakusketa ibiltaria Monterronen

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE

Uztailaren 5ean inauguratuko dute Arrasateko Monterron jauregian kontsumo erakusketa ibiltaria. Erakusketaren helburua da herritarrak heztea eta haiei kontsumoaren arloko informazioa ematea, kontsumitzaleei euren eskubideen eta betebeharren berri emanda. *Bidaia eta garraioak* da era-kusketaren gaia eta horren gaineko ohiko galderai erantzuteko aukera izango da. Proposamen interaktiboen bidez, hegazkinen, trenean, taxian eta autobusean zein eskubide ditugun ikasiko dugu. Gainera, garraiobide iraunkorrik erabiltzek duen garrantziari buruz gogoeta egiteko aukera ere izango da. Logika-jokoekin bidaia batean sor daitezkeen arazoei nola aurre egin ikasiko dugu; baita agentziak gure esku zein informazio jarri behar duen, eta norberak bidaia antolatzeko kontuan zer hartu behar duen ere. Ikus-entzunezko teknologiak erabiliz lau dorretan, bidaia eta garraioei buruzko zalentzen erantzunak aurkituko ditugu.



gure artekoak

OKIPARK > Familia oinarritzat hartuta aisialdi zentroa sortu zuten Bergaran. Umeen imajinazioa eta gaitasun psikiko eta fisikoak garatzeko eta gaitasun psikomotorrak lantzko jolasak aurkituko ditugu bertan.

Esther Ruiz eta Jaione Lopez

"Umeak jolasean dabiltzanean gurasoak lasai egon daitezke"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA
Umeen eta gurasoen aisialdirako gunea dute Esther Ruizek eta Jaione Lopezek Bergarako San Lorenzo industrialdean. Txikienak jolasean dabiltzanean nagusiak kafetegian egoteko aukera eskaintzen du Okiparkek.

Nolatan hasi zineten proiektu honekin?

Orain dela zazpi urte inguru lana aldatzeko asmoa genuen. Bilboko feria batean hartztu genuen ideia eta parkea ipintzea erabaki genuen.

Zer eskaintzen duzue?

Aisialdi zerbitzuak eta umeek segurtasunez jolas egiteko aukera. Umeak jolasean dabiltzanean gurasoak kafetegian egon daitezke; goizez, jende gutxi badago, baita eurekin jolasean ere. Bestela begiraleak egoten dira.

Zein jolas dauzkazue?

Pista amerikarra daukagu; bertan boladun igerilekua, txirristadak, ohe elastikoak, pilotak... daude, besteak beste. Txikien gunean, txirristada txikiez eta boladun igerilekuaz gain, muntaketarako piezak daude. Psikomotrizitatea lantzeaz gain, beste umeekin harremanak izaten ere aproposak dira jolasak.



Esther eta Jaione Okiparkeko txikien gunean.

I.A.

FITXA TEKNIKOA**> ORDUTEGIA**

Astegeunetan 10:00etatik 21:00etara; eta asteberuetan eguerdian itxi egiten dute.

> INTERNET

www.goiena.net/blogak/okipark helbidean dauka bloga parkeak.

> UME KOPURUA

Pistak 100 laguneko edukiera du, baina asko jota 80 sartzen dira.

> TARIFAK

4,55 eurotik 14 eurora orduka.

Zein dira zuen bezeroak?

Familiak etortzen dira batez ere, 12 urte arteko umeak dituztenak. Sarritan ospakizunetako oparia izaten da honako sarrera.

Noiz etortzen dira umeak?

Neguan, batez ere euria egiten badu. Uda partean ikasturte amaierako txangoak ere egiten dituzte eskoletatik hona.

Beste zerbitzu batzuk ere eskaintzen dituzue?

Bai. Urtebetetze festak egiten ditugu. Merienda egin ostean, jolastera joaten dira umeak.

begi-bistan

**Lourdesko Ama Birjina
(Bergara)**
2006/07/05

Argazkia: Jon Larrañaga.
Testua: Jose Sanz.

Errekalde jauregiko lorategian Lourdesko Ama Birjinari eskainitako aldarea dago. Ezezagun batzuek hondatu egin zuten, eta Moises Lazkanori eskerrak eman nahi dizkiote konpontzeagatik.

Har ezazu parte:

Argazkia eta azalpentxoak bidali honako helbidera:
goinenkaria@goinena.com

etxeko leihotik

Aitziber Aranburuzabala > Arrasate Irratiko arduraduna

Road-turismoa atsegin dut udako oporretan

U ztailean sartu ahala, atzerako kontaketa hasten da nire buruan. "Animo, furgoneta arrankatzeko gero eta gutxiago falta da", goizero esaten diot nire buruari. Horixe da-eta oporretan egitea gustatzen zaidana, furgonetan nire lagunarekin paraje berriak ezagutzea.

Kanpotarra banintz, Debagoiena ezagutza gustatuko litzaidake. Baina ez dakit helduko nintzatekeen. Izen ere, lagunak eta biok askotan kanpinen gida erabiltzen dugu norabidea erabakitzeko orduan. Eta Debagoienean ez dago kanpinik. Eta nire galdera da: zergatik? Debagoiena baino txikiagoak diren udalerrietako kanpinetan egon izan gara eta horietako batzuk, gainera, udal kanpinak ziren.

Ez dut ikusten mega-kanpin baten beharrik. Gutxieneko instalazio duin batzuekin nahiko; besteak beste, garraiobideak eta garbitasuna, noski. Bueno, aksaso, aterpe txiki bat aldamenean ere ez legoke gaizki!

Non? Noizko? Zeinentzako? Galdera asko gelditzen dira erantzuteko. Baina zer galtzen da aztertz gero? Proiektua egiteko baliabideak badauzkagu eta baita behar den jende prestua eta prestatua ere. Proba dezagun, bada!

> Autokarabanak ere, gero eta gehiago daude. Ibarrean asko ikusten ditut urtean zehar aparkatuta. Ezagutzen dut egunetarako alokatzentzitzen dituztenak ere. Probatzeko proposatzen dizuet!

> Hotelak eta baserri turismoak ez daude soberan, baina ez dituzte opor gose guztiaik asetzan. Zer galtzen dugu, bida, aukera berriak aztertzen? Mendizaleek ere gusto-ko dituzte kanpinak!

izen propioak

Iñaki Maidagan
GOIKOBALU



Ruper Ordorika
ABESLARIA



Joseba Azkarraga
HUHEZI-KOIRAKASLEA

Goikobalu abesbatzak lehen saria eskuratu du Madrilgo Rivas-Vaciamadrid lehiaketan. Espainiako Estatuko 18 abesbatzatik bost sailkatu ziren, horien artean, Goikobalu. Iñaki Maidagan ekuizendutako taldeak lau kantu abestu zituen. Arrasateri eskaini diote saria.

Abeslari oñatiarrak kantu berriekin osatutako diskoa kaleratuko du. Lan berria udazkenean edo neguan argitaratuko dute. Kantu guztiaik idatzita ditu, eta bere asmoa da abuztu inguruan grabazio estudioan sartzea. Elkar diskoetxearekin aterako du lana.

Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundeak gonditutu izan da egunotangure-

an Harold Good eliza-artzain metodista. Ipar irlandarra iza-tez, bere herriko bake proze-

suan lan handia egiten du aspal-dian. Biktimen, presoen, pobren... alde egon da beti, eta ekin-

tzekin erakutsi du hori. Munduko leku gatazkasuetan ikasten eta konpartitzen dihardu.

Harold Good > Irlandako bake prozesuan bitartekaria

"Bake prozesuko gakoa elkarrizketa da, elkarri zintzotasunez hitz egitea"

LEIRE KORTABARRIA > OÑATI
Harold Good eliza-artzain protestantea (Derry, Ipar Irlanda, 1937)
Oñatiko Lege Soziologia Nazioarteko Erakundeak antolatutako bake jardunaldian egon da, Alec Reid adiskide eta lankidearekin batera. Irlandako bake bitartekaritzaz hitz egin dute biek.

Zergatik da hain garrantzitsua bitartekaritzat?

Bake prozesu guztietako mui-nean, hitz garrantzisuenetan elkarritzeta da.

Beti dago elkarrekin hitz egiteko beharra, baina batzuetan, aukera ere eman behar diezu pertsona edo alderdi horiei. Beste kasu batzuetan, kanpotik etorritako bitartekaritza objektiboa behar izaten da.

Elkarrekin hitz egitea prozesuaren ezinbesteko zatia da: elkarri lekua egitea eta elkarri entzutea. Erresuma Batuko gobernuak ez zuen hori ulertu, eta orain puntu horretara bueltatu behar izan du.

Elkarritzeta da, zure iritziz, Euskal Herrian orain arte faltan izan duguna?

Orain dela gutxi hasi naiz Euskal Herriko gatazka hobeto ezagutzen. Bainan hau esango dut: egin ez badute, egin egin beharko dute. Elkarrekin jesarri eta zintzotasunez hitz egin beharko dute. Zintzotasunez berba egitea, egia esatea, oso zaila da: batek esaten badio besteari "bada-kizu zer egin diozun nire jendeari?", beste horren lehenengo erantzuna ezeztatzea izango da.

Irlandako egoera hain ondo ezagututa, zer deritzozu Euskal Herrikoari?

Bietan dago desberdin pentsatzen duen jendea batera bizitzen. Irlandan, jendeak nahi duenaren arabera banatuta dago; hemen, nire impresioa da gehiengoak gauza bera nahi duela; baina bietan, helburuak lortzeko moduak banantzen du jendea. Bainan topatu dudan antzekotasunik handiena da bi herriek bake nahi ika-ragarria dutela, behin eta betiko iraungo duen bakea.

Zergatik lortzen ari da orain Irlandan, hainbeste urtean sainatu ondoren?

Konpromisoa da gakoa. Jen-deak uste du hitz txarra dela hori. Hitz horrek esan nahi du elkarri lekua egitea. Eskuzabal-tasuneko ekintza bat da. Denok



Harold Good-ek lehenengo aldiz bisitatu du Oñati. Argazkian, LSNE aurrean.

zik eta alde guztiei aukera ematea elkarrekin denondako etorkizuna eraikitzeo.

Badirudi Euskal Herriko prozesua azkar doala...

Borondatea baldin badago, azkarra izango da. Txarra dena da arazoei konponbide azkar bat eman nahi izatea. Hala ere, ezin da larregi luzatu, belaunaldiak aurrera doazelako.

Pazientzia izan behar dute alde guztiek. IRAko kideekin hitz egiten dudanean, esaten diet pazientzia izan behar dutela, bes-te guztiek eurekin izan duten moduan.

Zer gertatzen da alderdi batek ez badu hitz egin nahi?

Irlandan ere hori gertatu da. Gobernu batek ezin du jendea kanpoan utzi, baina alde batek ezin du beti ezetz esan. Pazientzia izan behar dugu, baina ezin dugu geldik geratu eurak etorri arte. Euren beldurreta hitz egin behar diegu. Konfiantza eman behar diegu, eurak ere urrats bat ematera ausart daitezten.

Ipar Irlandako parlamentua geldiunean dago.

Londresek azaroaren 24ra arteko epea ipini digu Lehen Ministroa eta ministro-ordea izendatzeko; ez bada lortzen, parlamentua Dublinek eramango du zuzenean.

Hala ere, jende asko dago gogor lanean. Ian Paisley (alderdi unionista) eta Gerry Adams (Sinn Fein) elkarren arerio zorrotzak dira, baina orain elkarrekin esertzen dira.

IRAK armak utzi zituenean, zu izan zinen begiraleetako bat. Zein esanahi izan du horrek?

Esanahi sinboliko handia izan du: gerra amaitu dela esan nahi du. Inoiz ez dut ahaztuko azken arma indargabetu zeneko unea. Une horren esanahia izan zen gatazka armatura bukatu zela, modu hobe bat dagoela, eta orain elkarrekin gindoazela modu horren bidean.

Zein mezu ekarri nahi izan duzu Euskal Herrira?

Munduak pazientzia eta eskuzabaltasun handia izan du gureganako. Orain, guk ikasi dugu-nna konpartitua nahi dugu, eta bes-teengandik ikasi ere; eta horretarako etorri naiz Euskal Herrira. Edozer dela eskain dezakeguna, guretako ohorea da.

dauzkagu balore batzuk, eta ez ditugu bertan behera utzi nahi; baina elkarren lekua errespetatu behar dugu.

Hortaz, alde bakoitzak sakrifiku egin beharko ditu helburu batzuk, ezta?

Bai, jakina. Inork ez ditu bere helburu guztiak beteko, baina hasieran uste baino gehiago lortuko du.

Zein izan behar da biktimen eta presoen papera?

Biktimak oso garrantzitsuak dira, eta euren saminaren jakitun izan behar dugu. Egubakoitz Santuko hitzarmarekin, IRAko presoen kaleratze goiztiarra egon zen, eta badakigu hori oso mingarría izan zela biktimen familiendako. Badakigu, gainera, beti ez ditugula biktimak behar bezala zaindu. Edozelan ere, biktimen egoera ezin da inoiz politizatu. Hori oso gaizki dago.

KONPROMISOA

"Euskal Herriko aldeek ez badute orain hitz egiten, gero egin beharko dute"

KONPROMISOAREN BIDEA

"Inork ez ditu helburu guztiak beteko, baina denek lortuko dute uste zuten baino gehiago"

IRLANDA ETA EUSKAL HERRIA

"Bi herriek dute bakea lortzeko izugarrizko nahia; behin betiko bakea nahi dute"



zabalik

Gorka Etxabe

Kubako ‘botila’ gurago dut

Hasi dira San Ferminak, Euskal Herriko jairik esanguratsuenak. Mundu osoko mozkorzale eta parrandazale asko elkartuko dira Iruñeko kaleetan egunotan. Ni ere Estafeta, Gaztelu plaza eta Jarauta ingurueta txiza usainaz eta jai giroaz gozatzeko prest nago eta gerturatuko naiz *botila* pare bat edatera. Gaurkoan, baina, ez naiz San Ferminetako giroaz arituko eta bertako *botilak* ere ez ditut aipatuko, Kubakoak baizik. Oso bestelakoak dira, eta herrialde horrek dituen berezitasunen artean aipagarrienetakoak direla esango nuke.

Kubako *botila* errepideetan aurkitzen da, edozein bide bazterretan; hiri handi, herri txiki, etxalde edo auzotan. *Botila* horrek jende asko batzen du inguruan, baina garraioarekin du zerikusia. Fidel Castro komandanteak agintzen duen irlan izan berri naiz, bizikletan egin dut ibilbidea eta bertako errepide zein herritarrak ezagutzeko aukera izan dut eta haiet erakutsi didate zer den *botila* egitea.

Auto-stop egiteari esaten diote, eta Kuban hori egitea aarautua dago eta kamoio zein auto gidariak derrigortuta daude auto-stop egileak batzera eta garraiatzen. Hiri, herri, etxalde eta auzoetako irteera-sarreretan egiten da *botila*. Horiz jantxitako Estatuako langile batek ilara ezberdinak egiten ditu. Pentxa Eskoriatzako irteeratik autoz igarotzen zarela eta saihestideko Zubian horiz jantxitako zaindaria eta hiru ilara ikusten dituzula, batzuk doaz Arrasatera, beste batzuk Oñatiira eta hirugarrenak Debara. Horiz jantxitako gizonaren ondoan autoa geratu eta zenbait lagun zurekin eraman beharko zenituzke. Erregaa aurreztea du helburu egitasmoak etauste dut hemen ezarri beharko genukeela.

San Ferminetako *botilak* gustura edaten ditut, baina aukeran, gaurkoan, Kubakoak gurago ditut.

“Kubako ‘botilak’ oso bestelakoak dira eta edariarekin ez dute zerikusirik”

“Erregaa aurreztea du helburu egitasmoak eta hemen ezarri beharko genuke”

Goienkaria

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE Lehendakaria Estepan Plazaola **Zuzendaria** nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Leire Kortabarria **Sailketak arduradunak** Ubane Madero (Herriak), Edu Mendibil (G2a), Iñaki Iturbe (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea) **Erredakzia** Iker Barandiaran, Mirari Altube, Xabi Urzelaia, Oihana Elortza, Aintzane Irizar, Irati Agirreazaldegi **Oinarrizko diseinua** Goi Arana **Maketazioa** Alex Azkarate **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amalia Mundifano, Zuriel Martín, Imanol Elortza, Txaso Bereziar **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gauntzain, Ane Bereziar, Iratxe Bengoa

EGOTZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13

Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otañora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89

Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABAleta 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54

Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93

Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.155 ale • **Difusioa:** 18.629 ale.



OID erakundeak
ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAIKA



Eusko
Jaurlaritza



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Bergarako
Udala



Oñatioko
Udala



Aretxabaleta
Udala



Eskoriazko
Udala



Antzuolako
Udala



Aramaioko
Udala



Elgetako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala

herritarrak galdezka

HERRITARREI HARRERA EGITEKO BULEGOA

Arrasaten zabaldu berri duten bulegoa, herritarrei atenditzeko, abuztuan ere zabalik egon go den galdetzen digute.

Erantzuna bulegoan bertan eman digute. Bai, zabalik izango da abuztuan BAZ izenekoa (Biztanle Arreta Zerbitzua). Uztail eta abuztuan goizez bakarrik, 08:30etik 14:00etara, asteleheneetik egubakoitzera. Iraialaren lehengo 14:00etik 19:00etara, eta baita zapatu goizetan ere.

UZTAILEKO EGUBAKOITZAK

Bergarako Espaloian egiten diren uztaileko egubakoitzetako musika emanaldiek zer aurrekontu duten galdetzen digu irakurle batek.

Erantzunaren bila Bergarako Udaleko Kultura Zerbitzura jo dugu. Hain justu ere, oraingo astean eman duten prentsurrekora. Maider Osa eta Luis Abajo, Kulturako teknikari eta zinetziak, eta Gaztelupeko Hotsak

musika zigiluko arduradunak eman dituzte aditzera musika emanaldien gaineko zehaztasunak. Aurrekontua 12.000 euro da, hau da, lehengo 2 milioi pezeta.

Eta Bergarako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Espaloiko bi tabernetek egingo diote aurregastu horri. Lau emanaldi izango dira guztira. Honako hauek: uztailak 7, Rafa Rueda; uztailak 14, Malatu;

Galdera egiteko:

Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaligu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagokionarekin. Galdera egiteko bideak:

- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxe: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

uztailak 21, Four friends; uztailak 28, Ortophonk. 22:30erako iragarrri dituzte kontzertuak, Espaloiko zumardian.

‘ALKATEAK BORROKAN’ Irakurle batek idatzi digu galdetze-ko hauxe: “Orain dela aste batzuk irakurri nuen egunkarian argitaratu dutela liburu bat izenburua dau- kana Alkateak borrokan. Bergara- kota dea trantsizioan. 1975-1979”.

Liburua Txema Urrutia sasoi batean Herri Irratian-eta Ibilbakoak idatzi du eta trantsizio garaian, udal demokratikoaren aurrek- tikan, hainbat alkatek izan zuten protagonismoarengaineko da”. Etagaldetzen du ea liburu hori ibarrean aurkezteko asmoa baduten.

Erantzunaren bila joan gara Txalaparta argitaletxera, liburua argitaratu duenarengana, eta esan dugutenez badute asmoa liburua Bergaran aurkezteko (Jose Luis Elkoro orduko Bergarako alkatea izan zen talde horren bozeramaile edo buru). Ez digute konfirmatu datarik, baina seguieren uztailaren 21ean izango da. Liburua aurkeztu eta berbalditxo bat antolatu nahi dute.

marrakiz

Unai Busturia



Puntuak galtzeko arriskuaz

Mario Deogracias
www.goiena.net/blogak/mario

Nire kalterako izan daitekeen arren, aitorrak behar dut, gaur ausartu naizelera, lehenengoz, bide seinale guztiek betetzen. Ondorioz, hiru auto gidarik txakur aurpegiarekin begiratzen naute nire autoa aurreratzeko aukera izan dutenean. Asteburuan ez naiz autoan ibili,

beraz, ez dakit kontrol gehiago egon den ala ez. Gaur, ez dut bat bera ere ikusi eta gaur ere kilometro dezente egin ditut.

Zapatu gauean Mundakako jaietara joateko taxia hartu genuen, baita bueltarako ere. Dani da gure taxi gidaria eta puntukako karnetaz jardun genuen Mundakara bidean. Berari ez zaio sistema gustatzen. Horixe esan zigun, behintzat. Baita gidari profesionalentzako beste sisteman bat jarri beharko zuketela.

Baliteke, hein baten, arrazoia izatea. Esan nahi dut, errepidean joan- etorriak egitik bizi denarentzako,

nahikoa estresantea izan daitekeela, arau guztiek betetzen gidatzea. Baliteke horrela izatea, baina Danirri esan nioez, ni dezente estresatzen naiz aspaldi honetan, errepidera ateratzen naizen bakoitzean. Aurrera eta ispiluetan begiratzeaz gainera, norberak egiten ditzakeen hanka sartzeak zaintzeaz gainera, atzetik datorkizunari adi egon behar duzu, aurretik doanari bistarik kendu barik, alboko bidetik sartuko denaz ardura tu behar duzu eta hori gutxi balitz, bidegurutze guztietan, batez ere bidea emateko

blog

plazara

Orain dela hiru urte, Malagako Unibertsitateko lan talde batek Holandako, Erresuma Batuko eta Italiaiko ikertzaileekin lankidetzen egin-

dako ikerketa ekarri du gogora Ander Rodriguezek. Ikerketa horrek aztertzen zuen jarduera urbanistika Costa del Solen eta

haren harremana ustelkeriarekin. Eta antzekotasunak topatu dizkio artikuluaren egileak Arrasaten gertatzen denarekin.

Ander Rodriguez *

Politika eta adreiluak eskutik doazenean

Duela hiru urte, *Jarrera irregularrak administrazio publikoan* ikerketa-lana argitaratu zuen Malagako Unibertsitateko Kriminologia Institutuko lantaldetako batek, Holandako, Erresuma Batuko eta Italiaiko ikertzaileekin lankidetzen. Bertan aztertzen zuen jarduera urbanistika Costa del Solen eta haren harremana ustelkeriarekin. Ikerketaren emaitzak negargarriak ziren. Enpresa eraikitzaleek eta promotoreek udalen kontrol politikoa zuten, eta agerian uzten zuten politikaren eta eraikuntzaren arteko harremana.

Arrasaten operazio urbanistiko batzuek sortu duten alarma soziala dela-eta, hemerotekar jo nuen lan hura gainbegiratzeko, eta haren ondorio eta aholkuak arre-ta handiz irakurtzen hasi nintzen.

Ikerketak zera azpimarratzen zuen: "Azertutako kasuak hainbat puntutan egiten dute bat. Azpimarratzeko da agertzen diren hitzarmen urbanistikoak promoto-re-eraikitzailen eta udalen artean, zeintzuek udalerriari onura zalantzagarriak ekartzen dizkio-ten, eta horiek oinarri dira hiri-gintza planeamendua aldatzeko edo/eta lursailak berriro kalifika-tzeko; bata edo bestea izan, haien interesarako betiere". Hura iraku-rrita *déjà vu* esperientzia izan nuen: antzekotasunak oso kon-tuan hartzekoak ziren 2004an Uda-lak eta enpresaburu batek sinatu zuten hitzarmen urbanistiko batekin alderatuta, aprobetxamendua handitzeko eta babes ofizialeko etxebizitza kopurua murrizteko, arrasatearrendako inolako kon-traprestaziorik gabe. Hitzarmen horrek, gaur egun, ekarri du Gel-



MIKEL ARROIAIBE

mako 200 langileak bahitzea, arra-satearrei xantaia egiten ahalegin-zeko, herritarra behartuz oina-rrixko ondasuna den etxebizitza bategatik gehiegizko prezioa ordaintzen; hori guztiori, herriko agintarien ezikusiaz.

"Hitzarmen urbanistikoak, interes publikoak mesede zalantza-garia egiten dietenak eta interes partikularren mesedetan ari dire-nak".

Ondorioek honela jarraitzen zuten: "Lehenengo bezero jarrera onartzen dituena bide bat ireki-zen ibiliko da ondoren indar ilun eta arriskutsuagoak sar daitezen". Eraikuntza enpresak eta promoto-reak ez ziren konformatzen aurrez esandako aldeko tratuare-

"Enpresa eraikitzaleek eta promotoreek udalen kontrol politikoa zeukan, eta agerian uzten zuten politikaren eta eraikuntzaren arteko harremana"

"Herritarrei dagokie pintza baldintzak etxe agentzia promotorre, eta ez alderantziz, gertatzen ari den moduan"

kin, "udalerriaren kontrol politiko" ere lortzen ahaleginduko ziren. Eta udal-gatazka baten bai-no gehiagotan izan den honek aspalditik pentsatzen du alderdi batzuek delegatu egin beharko luketela etxe-agentzia promoto-reetan duten ordezkaritza, ego-rea hori dagoeneko berez gerta-tzen baita. Izango litzateke Alder-di Eraikitzalea edo halako zerbait, eta hark gurako luke hauteskundeak 20 urtean behin-edo izatea.

Ikerketak azpimarratzen zuen beste ezaugarriekoa bat zen uda-lerri horietan "planeamendu urba-nistikoak sarri aldatzen direla (...); guziek sartzen dituzte elemen-tuen aldaketak eta bide ematen dio-te, sarritan, gehiago eraikitzeari". Bizi bera bezain errealia. Atza-marrak falta zaizkit kontatzeko zenbat aldaketa egin dituzten azken hiru urteotan Arrasateko Hiri Antolamendurako Plan Nagusian. Pentsatzen dut datu hori guztiz eze-zagun egingo zaiela irakurle gehie-noi. Logikoa. Inork ez die galde-tu euren hiriaren diseinuaren gaine-an, baina lasai, niri ere ez didate-eta parte hartzen utzi. Arrasateko Udalak aspalditik ez du eskume-nik gai urbanistikoetan, horiek promotorre-en esku baitaude, gure hiria eurek gura duten bezala (hau da, euren patrikaren arabera) disei-natzan duten promotorre-en esku.

Bada ordua erreklama deza-gun Arrasateren diseinu demokra-tikoa, gero guk geuk ipintzeko baldintzak etxe agentzia promoto-reei, eta ez alderantziz, gertatzen ari den moduan.

*Ezker Batua-Berdeak taldeko zinegotzia Arrasateko Udalean

zer deritzozu?

www.goiena.net

Bada
nazionalismo
españolik?

| | |
|-----|------|
| BAI | %100 |
| EZ | %0 |

> OIN GUTXIAU

Españolak mundialatik kanpora dauzenetik, gutxiau... Opá

> AGERIAN GERATU DA

Bai, eta Futboleko mundialarekin agerian geratu da, gainera, goraka doala edo nabarmendu nahi dutela. Prisa taldeko Ser eta Cuatro pseudoprogreena ikaragarria izan da, Espainiako ikurrekin: banderak, himnoa... Ruben

> PATRIOTISMO...

Bai, bai, horixe baietz, batzuek Patriotismo Constitucional deitu arren nazionalismo horri. Koto

> NOSKI!

Noski badela. Bizi dugun gatazka politikoa nazionalismo horien arteko talkaren eraginez da. Nazionalis-mo batzuk zapaltaile eta faxistak izan dira. Herri txikiak berriz beraien eskubideak eskatu besteri ez dute egiten. Anbotoko mari

DATORREN ASTEKO GALDERA:

Bakeari lagunduko dio Bob Dylanen emanaldiak?

Eman zure iritzia www.goiena.net atarian. Datorren astean argita-ratuko ditugu hemen erantzun interesgarri-nak.

koplak

Maialen Madariaga

Dira-dira, zezenak dira

Dantza, algara jaiak edonon eta soberan adarrak pertsonak ez baitira izaten jaien partaide bakarrak.

Irrien truke zezenak hilaz ikus liteke nabarmen batzuen entretenimendua nolako garestia den.

Plazen kartzelan zezenak aske jaiak diren aitzakian ta borreroak gordetzen dira galtza zurien azpian.

Luzaro eta bortizki hilaz gehitzen dira zorionak pentsatu zezenago zein diren zezenak edo pertsonak.

Ohitura denaren aitzakian iraun dezake luzaro gure bizitzak balio badu haienak baino gehiago.

Bestela ere barre merkeak bidaude herri denetan nora joana badago eta ondo pasa oporetan.

Surfa eta sexu anala

Oier Gorosabel
www.eibar.org/blogak/orakulua

txakixat zer dauken surfzaliak ipurdiko zuluakin. Bai, ba jakixat musika mota hori asmau zebenak, The Beach Boys, zera baiño geishaguak zirala,

baiña ez najuan uste euren estereotipuan jarraitzailliak aukera sexualakin be bardin egingo zebenik.

Elantxobeko The Uskis agertu ziranian ba, tira, ha zelako izena eta beste barik hala geratu zuan. Baiña aste honetan jakin dotenian ba dala beste surf talde bat Euskalherrikan, eta euren izena The Sfinters dala, ba, zera, dana errelacionatzen hasi nok.

Zelako fijaziñua uzkixekin? Lagako olatu artian dabizten gorputz eburneuak beste ikuspegi batekin begiratu bihar jittuadaz oindik

aurrera? Bai, txotxo: heavy estetikiak (muskulo, ule luziak, narruzko erropak eta potruak ondo markatuta) Rob Halford armariotik urten eta gero beste usain bat hartu zeban legez, beste horrenbeste gertatuko dok kontizu olatu artian korrikan dabilen morroskuekin. *¡Ai bandidos...*

Ondo pasatu, baiña gogoratizue penetraziñ analaz aparte ba dagozela beste plazerrak. Deskantsu pizkat emon zuluari, ipiñi beste izenak zuen musika taldie: The Hairy Titibus edo The Tasty Joysticks edo...

Uda 2006

ARRASATE MARSANS BIDAIAKen!

adi!

Uztaila
ESKAINTZA BEREZIAK

Ibiza (San Antonio) 8 egun - 196,5 €-tik aurrera
Irteera Bilbotik uztailaren 15ean eta 22an.

Fuerteventura 8 egun - Mantenu erdian - 215 €-tik aurrera
Irteera Bilbotik uztailaren 16an.


La Palma 8 egun - 301,5 €-tik aurrera
Irteera Bilbotik uztailaren 12an eta 19an.

adi! Txina




ESKAINTZA BEREZIA
14 egun
Mantenu erdian
4* hotelak
Irteera Madriletitik
abuztuaren 6an
2.105 €-tik aurrera

adi! Gambia



ESKAINTZA BEREZIA
(Uztaila eta abuztua)
8 egun
Irteera Madriletitik
699€-tik aurrera

Hau eta beste
eskaintza gehiago ditugu!



UMEAK DOAN
edo deskontu bereziekin.
UDA OSOAN



Zure konfiantza saritu nahi dugu!

Postal bat bidaltzen badiguzu, (Arrasate Bidaia - Kontzeziño kalea 12 - ARRASATE) urte amaieran egingo dugun zozketan parte hartzeko aukera izango duzu:
BAINUETXE BATEN ASTE BUKAERA ZORAGARRIA!

BIDAIA HANDIETAN ESPEZIALISTAK GARA
Costa Rica, Argentina, Australia, Zeelanda Berria...

Arrasate Bidaia

CIE 2214

BIDAIA - AGENTZIA ELKARTUA



Kontzeziño kalea 12 - ARRASATE
Tel.: 943 71 25 30 Faxa: 943 79 74 45
E-posta: d4051@marsans.es



*gure ikasleek
beste maila bat
gainditu dute
arrakastaz*

2006ko selektitate froga: zorionak!

A
Arizmendi ikastola
geurea, zeurea

www.arizmendi.ikastola.net

iKER

SUKALDEAK:

ARRASATE:
Udala Plaza z/g
943 79 00 43

OÑATI:
San Lorentzo 1
943 53 35 48

BAINUAK:

ARRASATE:
Zarugalde 52
943 79 99 42

FAGOR



Herriak

Arrasate > 18-23 Bergara > 24-29 Aretxabaleta > 31-33 Eskoriatza > 34-35
Antzuola > 36 Elgeta > 37 Aramaio > 38 Gatzaga > 39



> ARRASATE

Goikobalu abesbatzak sari garrantzitsua eskuratu du > 20



> BERGARA

Agorrosingo igerilekukarako da aurrekontuaren zati handiena > 24



> ESKORIATZA

Juan Carlos Bengoa alkateak herritarrei erantzun die Debarri saioan > 34



> GATZAGA

Hasi dira iraileko Andramari jaietako egitaraua prestatzen > 39

ARRASATE > INDUSKETAK LEZE TXIKIN

Leze Txikin indusketa lanak egiten hasi zireneko 50. urteurrena da

URRI AMAIERAN

Uztailean egin behar zituzten ospakizunak urriatzen dituzte

1927AN AURKITUTA

Barandiaranen ikasle Justo Jauregik aurkitu zuen Leze Txiki, 1927an

DIRUZ LAGUNDUTA

Diputazioak eta Udalak diruz lagundutako indusketa da

UBANE MADERA > ARRASATE
Euskal Herriko, Malagako, Madrilgo, Portugalgo eta Australiako 15etik gora lagun Arrasateko Leze Txiki kobazuloan lanean dabilta astelehenaz geroztik. 1996tik hona, udaro ibili dira indusketak egiten Leze Txikin, baina aurtengo aldia berezia da, indusketa hura hasi zutenetik 50 urte bete dira-eta. Hala kontatutu digu indusketaren arduradun eta Aranzadi elkarteko kide Alvaro Arrizabalagak.

OSPAKIZUN EKITALDIAK

Hark jakinarazi digu urteurrenako ospatzeko ekitaldiren bat egitea pentsatuta zutela, baina atzeratu egin dela ere esan digu: "Uztailaren 20an egin behar genuen lehenengo ekitaldi bat: bizirik irauten duten aurreko indusketa-tako partaideak Udalak gonditutu eta ekartzea eta Garagartzan ekitaldi edo ospakizunen bat egingo. Baino arazo batzuen ondorioz, atzeratu egin da eta urrian egingo da ekitaldi hori eta horrekin batera, seguru aski, hitzaldizklo bat eta akaso ekitaldi zientifikoren bat ere egingo da".

MENDE HASIERAKO AURKIKUNTZA
Joan den mendeko hogeiko hamarkadara jo behar dugu Leze Txikiaren aurkikuntzaren berri jakiteko: "1927an egin zuten aurkikun-



ATZERRIKOAK Euskal Herriko eta Estatuko lagunek gainera Portugalgo eta Australiako beste bi lagun ere badira. GOIATZ ARANA

tza. Barandiaran seminarioko irakasle zeneko ikasle ohi Justo Jauregik, Arrasaten apaiz moduan zegoela. Miaketa bat egin zuten eta haren asmoa zen indusketa lanean hastea, baina gerra sartu zen bitartean eta erbestetik itzuli arte ez zuen izan aukerarik hemen

hasteko. Hori 1956an izan zen. Eta 1968ra arte egon ziren hemen".

ARKEOLOGO UGARIREN SORLEKU

Halaber, Alvaro Arrizabalak kontatutu digu tarte horretan arkeologo ugari pasa zela Leze Txikitik, gerora izen handia lortuko zute-

nak: "Bete zuen arkeologia esku-la baten funtzioa. Hemendik pasatu zen ikerlari belaunaldi bat gero ardurak hartu zituela euskal arkeologian. Hau izan zen Inazio Barandiaranen lehenengo indusketa, Jesus Altunaren lehenengo indusketa, Juan Mari Ape-

llanizena, Armando Llanosena... Eta haiek guztiek handik 10-20 urteratik ardurak hartu zituzten Nafarroako, Gipuzkoako, Arabako eta Bizkaiko indusketetan".

AURKIKUNTZA GARRANTZITSUAK

Arkeologo haiek egindakoaren ostean, baina, etenaldia izan zen Leze Txikin: "Gu 1996an itzuli arte ezer gutxi egin zuten Leze Txikin. Gu etorri ginenean nahiko degradatuta zegoen eta egin behar izan genuen lehenengo gauza izan zen ingurua duintza. Etorri ginene neu, zuzendari bezala, emazte Maria Jose Iriarte zuzendari-orde moduan eta urtetik urteratik aldazten den indusketa taldea. Aranzadi eta Euskal Herriko Unibertsitatearen bitaratz bideratuta".

BI URTE ETA IKUSI BEHAR

Harrezkero, lan handia egin dute Leze Txikin eta arkeologiaren historiarendako berebikoko garrantzia duten aurkikuntzak egin dituzte: "Iaz agertu zitzagun hezurrezko tresna bat nahiko ezustekoa zena eta guri pozteko aukera eman zigun. Dena den, orokorrean arkeologia ez da oinarritzen aurkikuntza handi eta puntualetan, baizik eta batez ere, aurkikuntza txiki mordo batetan".

Txiki edo handi, orain arte lanean ibili dira Leze Txikin, baina laster bukatuko dutela esan digu: "Datorren urtean edo gehienez jota bi urte barru bukatuko dugu orain arteko fasea. Baino horrek ez du esan nahi ez dela geratzen ezer. Geratzen da erdia. Baino guk beste hausmarketa bat egin beharko dugu eta argitaratu beharko ditugu gure emaitzak eta pentsatu beste fase batean sartuko garen edo ez. Ikusi arte zela bukatzen den eta zelako sorpresak ditugun ezin dugu ziurtatu aurrera jarraituko dugun edo ez".

Baina hori bi urte barruko kontua da. Aurtengoari begira, Arrizabalagak kontatutu digu bi gunetan ibiliko direla lanean: "Ikerketa programa desberdina dago gune bakoitzean eta egin behar duguna da ekin bertako haitzarekin jo arte, kobazuloaren harria aurkitu arte. Sedimentua dagoen bitartean itxaropena dago gauza gehiago aurkitzeko".

Alvaro Arrizabalaga > Aranzadiko kidea

"Aldatu egin digu Neanderthalgo gizakiarekiko ikuspegia"

U.M. > ARRASATE

Leku gutxitan dago Leze Txiki moduko aztarnategi bat; batetik aztertzen duen garaiarengatik eta bestetik bertan egin ditutte aurkikuntzengatik:

Barandiaranek hasitakoaren jarraipenarekin zabitzate? Gu gaude askoz gune txikiagoan lanean, baina kobazulo berean eta beste leku batean.

Zertarako balio du orain arte Leze Txikin aurkitu edo aztertu duzuenak?

Neanderthalen eta Neanderthal aurreko gizakiaren inguruan azken 20 urteotara arte genuen ikuspegia aldatu egin da eta garrantzi handia izan dute horretan Leze Txikitik eta haren moduko beste aurkikuntza batzuk. Suposatzen zen Neanderthalgo gizakiak ez zuela soinaren apaindu-

rarako zaletasunik eta, beriz, guk aurkitu ditugu haiikerabilitako maskorraketa, apaintzeko. Eta horrek erakusten du orain dela hamar urte uste genuenarena baino garatuago zegoela Neanderthalgo gizakia. Ondorioz, Leze Txiki sartzen da aztarnategi sorta nahiko txiki batean, Algeria, Turquia, Libano eta Frantziako beste 6-7 lekutan agertzen direlako halako aztarnak.



GOIATZ ARANA

zerbitzuak**GUARDIAKO FARMAZIAK****ARRASATE**

| | | | |
|------------------|----------|--------------------|--------------|
| Zapatua, 8 | Azkoaga | Ferrerias 1 | 943 79 15 15 |
| Domeka, 9 | Azkoaga | Iturriozt 17 | 943 79 19 99 |
| Astelehena, 10 | Corcuera | Maisu Aranbarri | 943 79 22 26 |
| Martitzena, 11 | Ruiz | Maala 31 | 943 79 14 09 |
| Eguaztena, 12 | Amezua | Santa Marina 32 | 943 79 09 74 |
| Eguena, 13 | Español | Araba etorbidea 14 | 943 79 18 65 |
| Egubakoitzta, 14 | Ruiz | Maala 31 | 943 79 14 09 |

BERGARA

| | | | |
|------------------|---------|----------------|--------------|
| Zapatua, 8 | Camacho | Oixirondo 4 | 943 76 11 74 |
| Domeka, 9 | Camacho | Oixirondo 4 | 943 76 11 74 |
| Astelehena, 10 | Zabala | Barrenkalea 25 | 943 76 16 87 |
| Martitzena, 11 | Guallar | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |
| Eguaztena, 12 | Estella | Matxitxagi 5 | 943 76 19 63 |
| Eguena, 13 | Mozos | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| Egubakoitzta, 14 | Camacho | Oixirondo 4 | 943 76 11 74 |

ONATI

| | | | |
|------------------|-------------|----------------|--------------|
| Zapatua, 8 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Domeka, 9 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Astelehena, 10 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Martitzena, 11 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Eguaztena, 12 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Eguena, 13 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Egubakoitzta, 14 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |

ARETXABALETAK

| | | | |
|------------------|-------------|--------------------|--------------|
| Zapatua, 8 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Domeka, 9 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Astelehena, 10 | Iturrealde | Belorrieta auzoa 1 | 943 08 11 43 |
| Martitzena, 11 | Iturrealde | Belorrieta auzoa 1 | 943 08 11 43 |
| Eguaztena, 12 | Iturrealde | Belorrieta auzoa 1 | 943 08 11 43 |
| Eguena, 13 | Iturrealde | Belorrieta auzoa 1 | 943 08 11 43 |
| Egubakoitzta, 14 | Iturrealde | Belorrieta auzoa 1 | 943 08 11 43 |

TELEFONO JAKINGARRIAK**((112))
SOS DEIAK****OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

| | |
|--------------------------------|--------------|
| Oskidetza (Larrialdia)..... | 943 46 11 11 |
| DYA (Antzuola)..... | 943 78 17 57 |
| Gurutze Gorria (Elorregi)..... | 943 76 55 76 |
| Suhiltzaleak..... | 943 78 28 00 |
| Ertzainak..... | 943 53 47 20 |
| Osasun Etxeak | |
| Arrasateko ospitala..... | 943 03 53 00 |
| Antzuola..... | 943 76 62 23 |
| Aramai..... | 945 44 53 40 |
| Artxabalaeta..... | 943 71 19 59 |
| Bergara..... | 943 03 54 00 |
| Elgeta..... | 943 03 54 00 |
| Eskoriatza..... | 943 71 44 52 |
| Leintz Gatzaga..... | 943 71 47 46 |
| Onati..... | 943 03 54 30 |
| Udalzainoak | |
| Antzuola..... | 943 76 62 46 |
| Arrasate..... | 943 79 14 39 |
| Artxabalaeta..... | 943 71 18 63 |
| Bergara..... | 943 77 91 06 |
| Eskoriatza..... | 943 71 44 07 |
| Leintz Gatzaga..... | 943 71 47 46 |
| Onati..... | 943 78 04 11 |

GARRAOAK

| | |
|-------------------|--------------|
| PESA..... | 902 10 12 10 |
| Taxiak | |
| Arrasate..... | 943 79 12 22 |
| Aramai..... | 945 44 50 33 |
| Artxabalaeta..... | 943 77 12 64 |
| Bergara..... | 943 79 12 22 |
| Eskoriatza..... | 943 71 40 59 |
| Onati..... | 943 78 03 65 |

DEBAGOIENA

| | |
|-----------------------------|--------------|
| Mankomunitatea..... | 943 79 33 99 |
| Hiltegia (Zubillaga)..... | 943 78 15 12 |
| Nekazaritzan garbera..... | 943 76 10 15 |
| Zerga Bulegoa..... | 943 76 58 63 |
| Hondakindegia alternatiboak | |
| Arrasate..... | 943 77 11 43 |
| Bergara..... | 943 76 44 42 |
| Onati..... | 943 78 36 67 |

BERGARA

| | |
|---|--|
| San Lorenzo/San Juan dík irteerak | |
| 07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, | |
| 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, | |
| 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluze), Matxitxagi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaietako (Ekonomatua) eta Zabala (Jatetxe). | |
| Ibilbideak: Gorostiza, Erguín B., Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Arimatza, Biterri, Legarre, Musakola eta Eroski. | |

URBANOAK**ARRASATE**

| | |
|--|--|
| Gorostizatik Eroskira (2 Linea) | |
| 08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, | |
| 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00. | |
| IBILBIDEA: Gorostiza, Erguín B., Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Arimatza, Biterri, Legarre, Musakola eta Eroski. | |

Eroskitik Gorostizara (2 Linea)

| | |
|--|--|
| 08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, | |
| 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35. | |
| IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obregon, Onerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguín A eta Gorostiza. | |

Gorostizatik Eroskira (1 Linea)

| | |
|---|--|
| 08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, | |
| 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30. | |
| IBILBIDEA: Gorostiza, Erguín B., Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski. | |

Eroskitik Gorostizara (1 Linea)

| | |
|--|--|
| 08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, | |
| 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05, 21:05. | |
| IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimatza, Alecop, Uribarri, Erguín A eta Gorostiza. | |

Gorostizatik Eroskira (1 Linea)

| | |
| --- | --- |
| 08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, | |

<tbl_r

kale inuesta

Iibili zara autobusean? Nahikoa da jarritako garraio zerbitzua?



Benedikto Elkorobarrutia
Erretiratua
Gatzaga



Eguzkiñe Alberdi
Langilea
Gatzaga



Francisco Aguilera
Erretiratua
Gatzaga



Rosario Arana
Erretiratua
Gatzaga



Jose Antonio Lorenzo
Langilea
Gatzaga

Ni neu ez naiz ibili, baina emaztea bai, eta ondo. Nahikoa... Beste pare bat baleude hobeto. Neure iritziz ez da linea berri-rik jarri behar, Arlabandik joan beharrean herritik etor daitezela.

Ez, oraindik ez. Gasteizera joateko egin dute ordutegia, baina Eskoriatzara jaisteko ez daukagu halako zerbitzurik. Nire umeek han dituete eskolaz kanpoko ekintzak, eta medikua ere bertan dago.

Ez, taxia erabili izan dut, baina autobusa oraindik ez. Hala ere, oso pozik nago autobus zerbitzuarekin, orain ordutegi zabalagoa daukalako Eskoriatzatik Gatzagara etortzeko.

Bai, Gasteizera joateko erabili dut eta pozik nago zerbitzuarekin. Astera-ko daukaguna nahikoa dela uste dut Gasteizera-ko, baina asteburuetara-ko falta zaigu; zapatuetan joateko, adibidez.

Ez, oraindik ez. Herri-rentzat aurrerapen handia izan da autobusa pasatzea, baina oraindik hobetu egin behar da zerbitzua, batez ere Arrasatera joateko; beste auke-ra batzuei begira dabilta.

txaloak eta txistuak



Komun publikoak ipini dituzte kalean



Askotan kritikatu izan da gure herrietan ez dela komun publikorik egoten kalean; bada, Oñatin esan digute hango Udalak ipini berri dituela eta garbi-garbiak daudela, gainera. Hori bai, baita ere esan digute barruko idatziak apur bat txikiak direla eta ez direla erraz irakurtzen.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

asteko datua

200

Estatuko 200 herritan jaio-tako bizilagunak Oñatin erroldatuta daude gaur egun. Horien artean gehienak dira Moraleja (Extremadura), Macotera (Gaztela eta Leon) eta Valtierratik (Nafarroa) etorritakoak.

Hori horrela, eta kontuan hartuta (oinarrizko eskubideen arabera) guztiok dugula etxebizitza duina izateko eskubidea, Udalek (edo norbaitek) zelanbaiteko kontrola izan beharko lukete baita ere etxegile pribatuek ezarritako prezioengau.

5 galdera...

Rocio Curiel

KZguneko arduraduna
Oñati

1. Zer da Izenpe txartela eta zertarako balio du horrek?

Nortasun agiri elektronikoa balitz bezala da. Du erabiltzaileen informazioa: datu pertsonalak, nortasun agiria, helbidea... Hainbat tramite egiteko balio du: errolda eskatu, Gizarte Segurantzaren bizitza laborala... Orain arte tramite horiek egiteko pertsonal-kia joan beharra izaten zen; orain, Izenperen bitarbez, Internet era-bilita identifika daiteke.

2. Erakunde publikoekin edo zeinekin funtziona-tzen du?

Herri bakoitzeko Udalak hainbat zerbitzu eskaintzen ditu, Diputazioak beste batzuk... bakarrik, erakunde publikoekin funtziona-tzen du, bai.

3. Dagoeneko erabilgarri dago edo oraindik bana-tzen zabiltzate?

Joan den astean hasi ginen banatzen Oñatiko KZgunean, eta erabilgarri dago. Gizarte Segurantzako web orrira sartuz gero, eskura daiteke bizitza laborala; edo Oñatiko webgunean, errolda... Geroago eta zerbitzu gehia-ga eskaikiko dituzte, baina batzuk erabilgarri daude. Erakunde publikoen zerbitzuez gainera, libu-rutegian erabiltzeko edo KZgune-an nabigatzeko ere balio du. Guk eskolak emango ditugu, funtzio-namendua esplikatzeko.

4. Txartela non eskura dai-teke eta zeinek eskura dezake?

Diputazioan edo hemen, KZgu-neetan. 16 urtetik aurrerako guz-tiek eska dezakete. Doan da. KZgu-neen eskuratzeko, nortasun agiria ekarri beharra dago, guk eskaera egingo dugu Donostiarra eta gero hona bidaliko digute.

5. Txartel horren bitarbez, datu pertsonalak eskura daitezke; beraz, segurua da Izenpe?

PIN bat du; hala, edozein datu eskatzeko PINa behar da. PIN barik ezin da ezer hartu. Suposatzen da horrek ematen duela seguritasuna. Gainera, PINa etxera iris-ten zaio erabiltzaileari.





ANTZERAKOAK Arrasateren antzerako ezaugarriak ditu Sunchalesek: 20.000 biztanle inguru eta kooperatibak. . JAURLARITZA

UDALA > ARRASATEKO UDALAK SUNCHALES HERRIAREKIN SENIDETU GURA DU

Sunchales herriarekin senidetzera, Argentinara

Argentinako herri hark kooperatibismoarekin duen harremanarengatik gura du Udalak senidetu; lehenengo senidetzea izango da

U.M. > ARRASATE
Sunchales herriak kooperatibismoarekin duen lotura dela-eta pentsatu du Udalak "Sunchalesen eta Arrasateren arteko gerturaztea biendako positiboa eta aberrasgarria izan daitekeela". Hori dela-eta, domekan, hilaren 9an, Buenos Aireserako bidea hartuko dute Agustin Ugarte (EAJ eta alkate ordea), Luis Etxeberriarteun (EA eta bigarren alkateordea) eta Paco Gartzia (PSE-EE eta oposizioko partidu nagusikoa) zinegotziak, gero handik Sunchalesera joateko.

KOOPERATIBISMOAREN BILTZARRA
Kontua da uztailaren 12an eta 13an Sunchalesen ospatu behar dutela Nazioarteko Elkartasun Kooperatiboaren Biltzarra. Eta han egon gura dute Arrasateko ordezkarien, hango kooperati-

bak ikusi eta Arrasateren eta Sunchalesen arteko senidetzea prozesua abiarazteko.

Egun garrantzitsuak dira bi horiek Sunchalesendako. Horren adibide da Argentinako presidente Nestor Kirchner ere izango dela gonbidatuen artean. Izan ere, aurten Sunchalesen dabilta ospatzen orain dela urtebeteko izendatu zutela hura Kooperatibismoaren Hiriburu Nazional.

Jardunaldi horiek bukatu eta uztailaren 15ean bertan dute hegaldia Udaleko ordezkarien etxera bueltatzeko.

EB-K NAHIAKO BESTE HERRI BAT
Senidetzea prozesu hori abiaraztea asteleheneko osoko bilkuran onartu zuten. Ezker Batuak proposamenaren kontra bozkatu zuen, Ander Rodriguez bozera-malearen esanetan, egokiagoa

litzatekeelako Arrasate senidetza garatzeko lagunza beharra duen herriren batekin, Saharakin, esaterako.

Bestalde, aipatu beharra dago senidetzea prozesua gauzatzuz gero, lehen aldia izango dela Arrasateko Udalak halako zerbait egiten duela.

ESNEA DA OINARRI
Argentinako Santa Fe probintzian dago Sunchales; probintzian ipar-mendebaldean eta Buenos Arestik 598 kilometrora. 20.000 bat biztanle ditu. Eta inguru lurren kalitateak eta klimak egoki egin dute han nekazaritzarekin eta abeltzaintzarekin lotutako aktibitateak garatzeko. Hain zuen ere, Sunchalesen dago esnearen produkzioan lan egiten duen SanCor Cooperativas Unidas Limitada kooperatibaren egoitza. Hego Ameriketako esne koooperatiba liderra da hura.

Sunchalesko ordezkariak joan den maiatzean izan ziren Arrasaten, besteak beste, MCC ikusten. Orain, bisita bueltatuko diente.

Monte
taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnosia-Orientazioa.
- Lagunza terapia.
- Mota guztiako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonaien lagunza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 / 675 70 57 35 ARRASATE

OBRAK > GARAJEAK

Irailean hasiko dira Bizkaia etorbideko garajeen eraikuntza egiten

Sei hilabeteotan garajeak eraikitzen ibili dira; eguraldiaren eraginez, baina, atzeratuta dabiltza

U.M. > ARRASATE

Harri gogorra da garajeak eraiki behar dituzten lur sailak dueña. Eta horrexegatik dabil Hiru rok enpresa azken sei hilabeteotan Bizkaia etorbideko lur saila behar bezala egokitu nahian, hondeatzeko makinekin.

Edozelan ere, egokitze lan horiek bukatzean daude, eta aurreikuspena da irailean hastea garajeak eraikitzen lanak egiten: "Dena ondo badoa, jakina". Hala jakinarazi digu garajeen promotore den Deba Garaia higiezinen agentziako Markaidek.

Hark kontatu digunez, teorikoki dagoeneko hondeaketa bukatuta egon beharko lirateke, baina "hasieran obrak atzerratzen egin ziren, eguraldiaren eraginez. Egundoko euriak egin zituen eta horrek ezinezko egin zuen hondeatzze makinekin han sartzea".

Kontuak kontu, uztailean eraman dute udaletxera exekuzio proiektua eta han ere jakinarazi dute irailean dutela eraikitzen hasteko asmoa. Udalak, berriz, jakinarazi digu lizenzia badutela lanak egiteko.

TAMAINA ASKOTAKO GARAJEAK

240 garaje inguru eraikiko dituzte Bizkaia etorbidean, 14 metro koadrokoak, 14,5ekoak, 15ekoak eta 22 metro koadrokoak. Handienak dira zaitasunak dituztendako egokitutakoak. Prezioak tamainaren araberakoak izango dira: 25.000 eta 37.600 euro artean. Markaidek esan digunez, garajeen erdia salduta daude.



IRUDIAK Urizalki (Herri Anitza) eta Berezibar (Askatasuna) Salbeko irudiekin. U.M.

SALBEA > GERTAEREN SALAKETA

Alkateak eta poliziak izandako jarrera salatu dute

Alkateak bere segurtasuna bermatu nahian, herritarrena kolokan ipini zuela diote

U.M. > ARRASATE

Herri Anitzak eta Askatasunak esan zuten Salbean jende asko batu zela kalean, azken gertakarien aurrean alkateari euren haserrea helarazteko, baina Ertzaintzari deitu ziola hark eta tentio uneak bizi izan zirela. Kontua zuten Biona tabernara sartu zirela, eta barrukoak kantzen, bidali, jarrera bortitzean. Kalean zeudenei zenbait kolpe eman zizkietela ere salatu zuten.

Hori guztila "alkatearen prepotentzia eta harrokeriaren" adierazle da, bi alderdien esane-

tan: "Hiru urteotan arrasatearen hitza eta erabakia ez errespetatzeaz gain, saiakera guztiak egin ditu Udalean herriaren ahoatsa oztopatzeko". Gaineratu zuten ondorioz herritarrek kalea besterik ez dutela salaketa bide bakarra, "Udal guztiz itxi" egin dietelako, eta, hala ere, kalean bertan zaitasunak ipintzen dizkietela. Bestalde, ausardia esku zuen alkateari, besteak beste, Herri Anitzaren parte-hartzeak ezaren arazoa konpontzen ahalegintzeko, eta elkarritzakaren bidea aldarrikatu zuten.

UDALA > OSOKO BILKURA

Caixari esleitu diote Zerrajerako etxeak eraikitzeeko proiektua

Alderdi arteko haserrea nabarmena izan zen asteleheneko osoko bilkuran

Alkateak jakinarazi zuen ez dela datorren hauteskundeetara aurkeztuko, "bere bizitza zaindu egin behar duelako"

UBANE MADERA > ARRASATE
Zerrajerako etxebizitzen proiektua Caixari esleitu zioten astelehenean. Bi proposamenen artean aukeratu beharra zuten: Caixarena eta Visesarena (Jaurlaritza). Caixaren proposamenak, Udaleko Hirigintza Sailak ipinitako baldintza pleguan ezarritakoaren arabera, puntu eta erdiko aldea atera zion Visesakoari, baldintza horiek hobetu betetzen dituelakoan. EAJ-EAk eta PSE-EEk bozkatu zuten alde, Aralar abstentitu egin zen eta EB, PP eta Ines Aldai (Talde Mistoa) aurka azaldziren. Alkateak esan zuen eskaintza hobia zela Caixarena, txosten teknikoen hala erakusten dutelako eta besteak beste, Caixaren obra soziala delako halako proietuetan esperientzia dueña. Gaineratu zuen proiektu hori ez litzatekeela Udalean izango "Caixarengatik izan ez balitz".

Oro har, kritika gogorrak entzun zituen erabaki horregatik gobernuak. PPk, Aralarrek eta EBk ez zuten garbi ikusi lan hori esleitzeko erabilitako bidea zuzena izan zen edo ez. Besteak beste, salatu zuten baldintzen plegua "Caixaren neurri" egin dutela.

Bestalde, alkateak komunikabideoi jakinarazi zigun ez duela datorren hauteskundeetara aurkeztuko asmorik "bere bizitza zaindu egin behar duelako", hori bai, "bere buruarekin lasai" sentitzen dela ere esan zigun.



BABESTUTAKOAK Pertsona nagusiendako eta gazteendako 148 etxebizitza eraikiko dituzte Zerrajeran.

JON BEREZIBAR

Udalean gertatzen dabilenaren aurrean, berri, zera esan zuen: "Erakunde publiko bat ezin da kudeatu baldintza hauetan eta oso penagarria da erakunde batean lan egitea *reality show* bat izango balitz moduan". Horrekin batera, EBk moral bikoitza duela salatu zuen; hainbat arrazoi eman zituen alkateak, adibidez, "EB argazkian

azaltzen ez bada, guztia gaizki eginda dagoela" uste dutela.

UDALBATZARRAREN BANAKETA

Udalaren egoerari dagokionez, berri, astelehenean gauzatu zen Ines Aldairen dimisioa EAJtik. Horrela, gobernu (EAJ eta EA, oraingoz) zortzi zinegotzik osatzen dute, eta oposizioa 12k. Ines

Aldai Talde Mistoa eratu du. Haren karguei dagokienez, berri, (Kultura arduraduna eta gobernuko bozeramailea) alkateak hartuko ditu bere gain.

Bestalde, Joxe Etxeberria Aralarko gobernua uztearen ondorioz libre geratu diren karguak (Gizartea) Aitor Saez de Azkunagak (EAJ) hartuko ditu.

EZKER BATUAREN SALAKETA

Ezker Batuak ipinitako salaketa onartu egin du fiskaltzak

Gipuzkoako Auzitegi Probintzialeko fiskaltzak onartu du tramitera EBren salaketa. Alkatearen kontra eta Loiti alkate ohiaren kontra ipini zuen salaketa, ustez, prebarikazioa, funtzionario eroskeria eta diru-publikoaren bidegabeko erabiltzea egin dutelakoan, Zabalgunea-Gelma eraikuntza operazioan. Ander Rodriguez EBko zinegotziak atzo prentsurrekoan esan zuenez, "fiskaltzak diliuentziak ireki zituen pasa den astean. Horren ostean, eta ikerketaren emaitzek salatu ditugun delituen izatea berresten badute, EB akusazio partikular moduan aurkeztuko da". Rodriguezek gaineratu zuenez frogatzen euskalak ekuizketa egin behar duelako", hori bai, "bere buruarekin lasai" sentitzen dela ere esan zigun.

Bitartean, fiskaltzak bere bidea segituko du eta horren adibide da dagoeneko esku diola Arrasateko Udalari zenbait dokumentazio. Tartean, EBk nabarmendu du fiskalak jakin gura duela ea baden txosten ekonomikorik alkatearen eta Guiberten artean sinatutako hitzarmenarekin lotuta. Izen ere, "bere garaian, eta gainerako alderdiek hala onartu zuten, ez zegoen txostenik eta uste dugu orain ere ez dagoela". Orain fiskalak bospasei hilabete beharko ditu erabakitzeko kereila ipini edo ez. Horrekin batera, EBk jakinarazi du bere zerbitzu juridikoak aztertzen dabiltzala Zerrajerako etxebizitzak Caixari esleitzeko erabakia ere Audientzia Probintzialean aurkeztuko duten. Bestalde, alkatearen eta Ugarteren dimisioa esku dioten EBk prentsurrekoan. *< Ninguno>*



Pando Errrotuloak

Gipuzkoako etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak
Ibilgailuak
Stand-ak
Itsasgarriak
Biniloa
Seinaleak
Lonak
Erliebedun hizkiak

> INDARKERIA
Emakume baten heriotza salatu zuten atzo, plazan

Azken ordukorik ezean, atzo, eguna, zenbait herritarrek protesta egin zuten astelehenean Basaurin beste emakume gazte bat hil zutelako, ustez bikotekideak.

Emakumeen kontrako plataformatik esan dute halakoak "salatza, elkartasuna adieraztea eta mobilizatza guztiz beharrezkoak" ditugula. Hala, hedabideei "jarrera aktiboa" esku zieten; erakundeei ahalgina egitea "gaitz horrekin bukatzen" eta gizarteari indarkeria horren kontra indarrak batzea.

> PRESOAK
Uztailaren 24an atzera epaituko dute Unai Parot

Askatasunak azaldutakoaren arabera, oraingo honetan, 1984ko ekintza batean parte hartzea leporatzen diote Unai Paroti eta horregatik du epaiaketa datorren 24an; Askatasunaren esanetan, zenbait komunikabidean azaldu da epaituko dutela "uste eskuitz batean Parot euskal preso politikoak idatzitakoengatik". Hori horrela, salatu gura dute preso horren aurka "erabiltzen diren informazio manipulatu eta intoxikatzailak".

> LEHIAKETAK
ONCEk saria eman du Eroski hipermerkatuan

Hiru mila euro eman ditu ONCEren *Rasca y gana* jokoak Arrasaten. Joko berria da hori, momentuko loteria bat da, hain zuzen. Maiatzaren erdialdean abiarazi zuten joko hori. Eta joko horrek ematen duen saririk handiena da 3.000 eurokoa. Hala, oraingo hau lehenengo aldia da Gipuzkoan sari hori ateratzen da: Jose Laderas saltzaileak eman du saria Eroski hipermerkatuan.

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Erakusketa berria

Ekutio kalea pab. 14-15
Uribarri auzoa 4
Tel. faxa: 943 79 01 82



MAILA HANDIA Rivas-Vaciamadrideko epaimahaiak Goikobaluren maila handia nabarmendu zuen.

GOIKOBALU

MUSIKA > ABESBATZEN SARI GARRANTZITSUA

Goikobalu abesbatzak Rivas-Vaciamadrid lehiaketako lehen saria eskuratu du

Espaniako Estatuko 18 abesbatzetatik bost sailkatu ziren lehiaketa nagusirako, eta Arrasatekoak eraman zuen lehenengo saria

IKER BARANDIARAN > ARRASATE
Goikobalu abesbatzak beste sari garrantzitsu bat eskuratu du, bere palmares erraldoiari batuko diona. Hain zuzen ere, Rivas-Vaciamadrid Abesbatzen Txapelketako lehen saria ekarri du Arrasatera.

Joan den zapatuian izan zen txapelketa hori Madrilgo Rivas

herrian. 18 abesbatza aurkeztu ziren txapelketara, baina bost abesbatza bakarrak sailkatu ziren lehiaketa nagusirako. Horien artean, Arrasateko Goikobalu.

3.000 EURO ETA GARAIKURRA
Goikobalu abesbatzak lehenengo saria eskuratu zuen; hala, Iñaki Maidaganek zuzendutako tal-

deak 3.000 euro eta garaikurra eraman zituen etxera.

EUSKARAZ ETA BRASILDARREZ

Arrasateko abesbatzak lau kantu abestu zituen, *a capella*: García Lorca's *La canción del jinete*, XVI. and XVII. century art pieces, and *Kitolis* and *Lata d'agua* by Brasildarre, hain zuzen ere.

Epaimahaiaren bigarren saria eta baita ikusleek emandako ere Madrilgo Xenakis abesbatzak eskuratu zituen. Hala, talde horrek 2.000 euro eta garaiku-

rra jaso zituen, alde batetik; eta beste 800 euro, ikusleen sariari zegokiona.

ABESBATZA 'KASKAMOTZA'

Goikobaluko kideak pozarren daude, eta horietako batzuek lehiaketan esku hartu aurretik postura egin zuten, lehenengo saria irabaziz gero ilea moztuko zutela. Hortaz, astean ile-apaindegitik pasatu behar izango zuten batek baino gehiagok. Hala, izen handiko taldea izateaz gain, une honetan Goikobalu talde *kaskamotza* ere badela aitortu digute.

ZERAMIKA

Loixek zeramika erakusketa jarriko du

Martitzenean, hilaren 11n, zabaldu eta 25era arte egongo da ikusgai

I.B. > ARRASATE

Martitzenetik, hilaren 11, hilaren 25era arte, Loixe zera-mika elkartea erakusketa izango du Monterrono era-kusketa aretoan.

Honako hau zeramika era-kusketa jartzen duten hirugaren aldia izango da eta han, Monterronen, Loixe elkartaren ikastaroetan dabiltzan lagunen lanak egongo dira ikusgai.


Bukatu berri duten ikasturtean 15 bat ikasle izan dituzte, eta erakusketan 50 bat lan batuko dituzte. Horien artean, eskulturak, tornurako piezak, koadroak, mura-lak eta *racú-rako* piezak, bestekatzeak.

IKASTARO GEHIAGO

Uda ostean, irailean, ikastaroetan izena emateko matrikuila zabalduko dute, eta eskola horiek urrian hasiko dituzte. Loixek helduendako eta umeendako ikastaro bana antolatzen du ikasturte bakoitzean.

Interesatuek Gazte Bulegora jo dezakete edo Loixeko telefono zenbakira dei dezakete (649 36 81 97) izena emateko edo informazio gehiago eskuratzeko.

Loixeko arduradunek azaldu digute ikastaroetan esku hartzeko zerotik ere hasi daitekeela, emaitzak oso azkar ikusten dira-eta. Baita oso erlaxagarria dela ere.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76



Boni Laskurain 3
BERGARA
943 76 35 71

GIARTZU

GIMNASIO BERRITUA

ABUZTUAN ZABALIK 09:00etatik 14:00etara

- Aerobica
- Fitness
- Spinning-a
- Pilates
- Tai-chia
- Karatea
- Infantil mailako
- Karate eskola
- Easyline zirkuitua
- Defentsa pertsonala
- Erditze osteko
- gimnasia



Giartzu, spinning-eko zentro ofiziala

Uda honetan ekhipoliki

SONY ERICSSON Z520i

LG F2400

SAMSUNG E350

9*-ren truke

* Euskaltel Leioaren eta Hautaketen bezeroentzako, ondoren ordaintzekotik aurretik ordaintzekora pasatutako bezeroentzako eta etxeko telefonia mugikorreko operadore nazional batetik elorrita alta eman duten bezeroentzako mugikorren PSPa, betiere 2006/08/31 baino lehen kontratatzaten badute ondoren ordaintzeko etxeko zerbitzua 6 €-ko kontsumo minimoarekin, eta 18 hilabetez irauteko konpromisoa haritzen badute. Muga: 50 ale terminal bakoltzeko.

ROUTER
COMUNICACIONES, S.L

Errebal, 15
Eibar
943 700 369

Maalako Errebala, 8
Arrasate
943 712 781

Euskaltel -en Banatzale Ofiziala




Markel Blanco.



ATT



ATT Lander Errasti.



ATT Jonathan Perez.

ATT

ATLETISMOA > ARRASATEKO ATLETAK HIRU TXAPELKETA EZBERDINETAN LEHIAN

Herriko lau atletek izerdia botako dute asteburuan

Remi Diosdado eta Lander Errasti Selekzioen Arteko Joko Europiriniarretan izango dira

Markel Blanco Ourenseko lehiatuko da eta Jonathan Perez Elxen, Errege Kopan

XABIER URTZELAI > ARRASATE
Lau atleta eta hiru hitzordu garrantzitsu, Arrasateko taldeko entrenatzaleak han eta hemen izango ditu asteburuan begiak. Batetik, Remi Diosdado eta Lander Errasti Frantziako Tolosan

egin behar duten Lurraldeko Selekzioen Arteko Joko Europiriniarretan izango dira. Arrasatekoek Gipuzkoa ordezkatuko dute, Lanquedoc, Midipirinees, eta Andorraren aurrean. Remik 100 eta 200 metroko lasterketetan

hartuko du esku, eta "gogo handiarekin" ikusi du entrenatzaleak. Landerrek, berriz, pertika jauziarekin jardungo du: "Lander min hartuta ibili da, eta aurten aire librean 4,15 metroko marka egin du. Uztaileko azken astean Anoetan egingo duten Espaniako Txapelketan izango da, eta hobetzeko tarte da", esan digu Fernando Zufiriak.

MARKEL OURENSEN
Markel Blanco, berriz, gazte mailako Espaniako Txapelketan lehiatuko da asteburuan, Ouren-

sen: "Gorputzaldi onean nago, baina ikusi egin beharko da zernolako lasterketa ateratzen den. Nik gurago dut erritmo txikiko lasterketa izatea, horrela, esprintean aukera handiagoak izango ditudalako". Markelendako gazte mailako bigarren urtea da, eta aurrean ibiltzeko joan den urtean Valladoliden baino aukera handiagoak izango ditu; podiumarekin egiten du amets.

SEIGARREN POSTUAN
Jonathan Perez da atsedena izango ez duen laugarren atleta, per-

tika jauzilaria bera. Elxen erakutsiko du zein gorputzalditan dagoen, Kluben Arteko Errege Kopan. Real Sociedad taldeko atletak 5,05 metroko jauzia egin du aurten, eta estatu mailan seigarren postuan dago; estatuko zortzi onenak izango dira uztailaren 22an eta 23an Zaragozan egingo duten Espaniako Txapelketan.

Kontuak kontu, asteburu berezia izango da Arrasate Atletiko Taldearenak, harrobi horrek emandako lau atleta han eta hemen ibiliko direlako lehian, Arrasate ordezkatzen.

MENDIKO BIZIKleta > TOLOÑORA IRTEERA

Astelehena eta martitzena dira Toloñoko irteerara joateko izena emateko egunak

Uztailaren 15ean, zapatua, egingo du Besaide MTB taldeak Bastida ingurura irteera

X.U. > ARRASATE
"Bizikletan asko ibili ez direnendako ere aproposa", horrela laburtu dute Besaide MTBko lagunek datorren hilaren 15ean Toloñora egingo duten irteera. Arabako Errioxako paraje ede-

rretan ibiliko dira, mahasti artean, baso itxian eta landa zabaletan. Gero, jendeak hala gura badu, oinez egingo dute Toloñora igotzeko azken tartea, bizikletan ez delako posible: "Merezi du gora igotzea, bista ederrak dau-

de-eta: "Ordu laurdeneko igoera baino ez da". Orokorean, irteera bera ere ez da gogorra: "Orain arte egin dugun lasaiena izango da, 22 kilometro inguruko ibilbidea da". Irteera eta gero, Bastidan bertan bazkalduko dute, upelategi batean.

Izenematea datorren astelehenean eta martitzenean, 19:30etik 20:30era, Besaideko egoitzan.

> FUTBOLA

Mondrak batzarra egingo du datorren eguenean

Uztailaren 13an, eguna, egingo du Mondrak Futbol Elkarteak batzar orokorra, eta taldeak batzarrera joateko dei egin gura die baziideei. Monterron Jauregian izango da batzarra 19:00etan.


Beste gauza batzuen artean, kontu ekonomikoaren balantzea eta kirol arloaren balantzea egingo dute. Horrekin batera, datorren denboraldiko aurrekontua aurkeztuko dute.

> KIROLDEGIA

Bazkide direnen eta ez direnen artean alde handiagoa egongo da

Arrasateko Udalak aste barruan onartu du datorren ikasturtean kirol ikastaroek izango dituzten tasen igoera. Kasu gehienetan %3,7ko igoera izango dute, hau da, BEZaren igoera.

Hala ere, egia da prezio horietan bazkideen eta ez bazkideen artean lehen baino alde handiagoa egongo dela. Lehen 6-7 euroko aldea egoten bazeen, orain 10 eurokoa izango da.



KONTRATAK
IRVOK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE



**UGARAN
jatetxea**

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

**BITTORI
ERRETEGIA**
Eguneko menua - Kartako menua
Espezialitateak:
legatz kokotxak eta txuleta

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

arrasatearrak kanpoan

Lisa Thorn > Ikaslea
Galesen bizi da

"Galesen jentiek ez dau etxera bueltaketako gogorik eukitten"

XABIER URTZELAI > ARRASATE
Julixuen Mondraguen badabil be, azkeneko urtie Galesko herri txiki baten egin dau Lisak, eta beste bi urte egingo dau ondiokan be, estu-dixuek bukatu arte. Oporrak Ber-garan ingeleseko eskolak emuteko dabil aprobetxetan. Norbaittek galdeztuko dau: eta ze dabil ikes-ten ba? Txinatar Filologia.

Mondraguetarra bada be, Galesera juen aurretik Malagan egin dau Lisak hiru urte: "Han egin dot Batxilleratue, eta Gale-sera juetie baiño kanbixo haun-dixaue izen zan Malagara juetie". Galesko Lampeter Unibertsita-

tien ikestean dau Lisak: "Leku lasaixe da, oso unibertsitate txikiñe da-eta". Eta esandako moduen, Txinatar Filologia ikesten dabil han: "Etxien aittekinez ingelessez egin izen dot beti, amakiñ espainolez eta ikastolan euskeraz. Hizkuntzak ikesteko erraxtasuna euki dot beti, eta

"Egun bakarrien danetik ikusi ahal da han: eguzkixe, eurixe, edurre... Oso eguraldi aldakorra da hangue"



Lisa Thorn.

etorkizuna daukon hizkuntzie ikestie pentsaue neuen".

TXINARI BEGIRA

Gauzak holan, Galesen egindako lelengo urtien gaiñien galde-tu dutzou: "Dana aproba dot, eta alde horretatik pozik nau. Dato-rren urtien Txinara jueteko aukerie eukiko dot; hiru edo lau aste izengo die eta aurrera urte-beterako juengoz naz". Horretako, baiñe, asko ikesi biher da: "Urtien 1.000 berba inguru".

Galesen gaiñien be galde-tu dutzou: "Amak esaten dust leku-tara juen nazela. Egixe esatia-rren, egun bakarrien danetik ikusi ahal da han: eguzkixe, euri-xe, edurre... Oso eguraldi alda-korra da hangue".

Bertako jentien gaiñien be egin dou berba: "Kanpoko jente asko dau. Klasien, adibidez, sei lagun gare, eta bi bakarrik die bertakuek. Gaiñera, aste buka-eretan bertan geraketen die, ez daue etxera jueteko gogorik euki-tten, hango kulturie da hori".

bere ustez



Antxon Mendizabal

Ongi etorri demokraziara

Zapaterok egindako alda-rrikanpenak esanez: "Euskal gizarteak dioena errespetatuko dugu", demokraziaren ate birtualak zabaldu ditu. Ongi etorri demokratak demokraziara. Baina ezin gara inozoak izan. Demokrazia benetakoia izan dadin edo bideratuko den demokrazia kalitatezkoa izan dadin, oinarri bakarra du: gure konpromisoa, gure parte-hartzea eta gure implikazioa.

Gure implikazioa, inertzia historikoa kontran dugula-

hau be badaukogu



"Bere diskurtsoan demokraziarekin bateragarriak ez diren gauzak aipatu zituelako"

Zein da Guggenheim museoa egin zuen arkitektoaren izena?
Baita asmatu ere!

Arizmendi Ikastolako Lanbide Heziketak antolatutako lehiaketak dagoeneko badu irabazlea: erre-tratuaren dagoen Amaia Untzueta arrasatearra. Azken hilabetean astero azaldu da GOIENKARIA lehiaketa horren gaineko galderaren bat, eta galderok Lanbide Heziketako zikloekin lotuta egon dira: osasuna, eraikuntza, ingurumen kimika eta kirola. Hala, Bilboko Guggenheim museoa nork egin zuen zen galderetako bat, eta Amaiak ondo asmatu zuen: Frank O. Gehry. 144 lagunek hartu dute esku lehiaketan, baina Amaiaren-dako izan da iPod-a. Saria ematen Xabin Arrola agertzen da.

ko. Duela gutxi, Bartzelonan, unibertsitateko ekitaldi batean, Quebeceko irakasle eta intelektual batzuek beraien herriaren esperientzia azaldu zuten. Azalpenak bukaterakoan mahaian zeuden katalan irakasleei galdeztu zieten: orain, hiru hitzetan, aipatu behar diguzue kontatutako esperientzian gehien gustatu zaizuna. Katalan horiek erantzun zieten: hiru hitzetan ez, hitz batean: Kanada.

Baina hemen, Espanian gaude. Gure implikazioaren beharra, Zapaterok bere diskurtsoan demokraziarekin bateragarriak ez diren gauzak aipatu zituelako. Horrela, demokraziaren zutabea den Euskal Herriaren onarpena eta lurraldetasuna lortzeke dagoelako.



Zenbaki
Ahokulariak



EMPRESA
CERTIFICADA
ISO 9001:2000

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Basabe poligonoa F-O-10, 1. ARETXABAleta. Tel.: 943 71 21 12 / Faxa: 943 71 22 68
www.zenbaki.es / zenbaki@zenbaki.es

Aitor
Belardenda

OSASUNTSUAGO
BIZI ZAITEZ
ZAIN ITZAZU PISUA
ETA BOLUMENA

- Dieta pertsonalizatua. Azterketa individuala.
- Tratamendu dietetikoak. Botikariak gabe.
- Gorputzean koipea antzematea eta hari jarraipena egitea.
- Tratamendu eta kontseilu dietetikoak: kirola, hipertensio arteriala, hezueria (gota) eta dietarekin harremana duten beste gaitz batzuk.

Olarte 7 • ARRASATE • Tel.: 943 79 90 43

AURREKONTUAK > ONARTU DITUZTE EAJ-EA ETA ARALARREK

Agorrosinek hartuko du aurrekontuen zati handiena

Ia 30 milioi euroko aurrekontua onartu du udalbatzak, iazkoa baino %21 handiagoa

3,6 milioi erakundeen arteko mugimenduetarako dira; beraz, 26,2 milioi ditu Udalak gastatzeko

EBk eta PSEk aurka bozkatu dute, PP ez da osoko bilkurara joan eta Bergara Aurrera ez dago ados

OIHANA ELORTZA > BERGARA

26,2 milioi euroko aurrekontu konsolidatua izango du Bergarako Udalak 2006rako, aurtengo. Hala ere, ia 30 milioi euroko aurrekontua onartu zuten osokoan, 29.884.062 euro, zehazki; 3,6 milioi euro erakundeen arteko mugimenduetarako dira. Horixe onartu zuten asteleheneko ezohiko osoko bilkuran EAJ-EA koalizioak eta Aralarrek. Ezker Batuak eta PSE-EEk aurka bozkatu zuten eta PPko zinegotzia ez zen osoko bilkurara joan. Bergara Aurrerak ados ez zegoela adierazi zuen.

2006rako aurrekontua

| | |
|-------------------------------|---------------------|
| Udala: | 23.086.850 € |
| Bergarako Bihargintza: | 3.190.000 € |
| Mizpirualde egoitza: | 3.183.147 € |
| Euskaltegia: | 424.065 € |
| Osoa: | 29.884.062 € |

BAIEZKO ADOSTUA

Baiezko esan arren, Iñigo Iñurrategik Aralarrek egindako lau proposamenak azaldu zituen: "Epe luzerako fidantza eta ekonomia planifikazioa egitea; kultur ekipamendua indartzeko, Zabalotegiko lokalak birgaitzeko diru partida aurrekontuan sartzea eta ekipamendua datorren urtekoan; mugikortasun plannaren lehen fasea ere aurtengo aurrekontuetan sartzea eta Agorrosin eta BKEren arteko proiektua adosteko lantaldea osatzea". Lau puntuak aurrera eramatea adostu du Aralarrek alkatearekin. "Fidantza planifikazioaz Hazienda batzordea arduratuko da; Kirol batzordeari esan diogu BKErekin negoziaketak aurrera egiteko; Zabalotegiko lokalak birgaitzeaz, seminarioko proiektua aurkezten arte itxarongo dugu eta dirua urrian egindo dugun aurrekontuen kredituak aldatzeko espedientetik ateratzea aztertuko da, baita mugikortasun plannendako lehen kopurua ere", izan da alkatearen erantzuna.

EB ETA BA BAT DATOZ

PSE-EEk eta EBk aurrekontuen aurka bozkatu dute. Saiatu arren,



AGORROGIN Aldundiko eta Udaleko ordezkariek astelehenean ikusi zituzten Agorrosineko instalazioak.

O.E.

ez ditugu PSE-EEren arrazoia jakin. Andres Diez Ezker Batuako zinegotziak, berriz, hiru arrazoi nagusi hauengatik eman du ezezkoa: "Urteko aurrekontuak uztalean onartzea ez da zuzena; gainera, aprobetxamendu urbanistikotik atera nahi dituzten lau milioi eta erdi euro airean daude oraindik. Diote txostenetan eginda dagoela, baina nik ez dut ikusi. Horrez gain, aurrekontuek herritarrengana heldu edo iritsi behar dute eta Udalak ez da inoiz egon hori egiteko prest".

Alkateak ez zion hitza eman nahi izan Bergara Aurrera herri

plataformari, baina Aralarren gomendioari kasu eginez, hitza eman zion azkenean. Bergara Aurrerak ere salatu zuen aurrekontuak uztalean onartzea. "Gauzak ondo egin nahi dituztelako atzeratutela dio alkateak, baina orain ere presaka egin dute. Sarrera eta gastu arruntak ia parean daude eta horrek esan nahi du inbertsioetarako dirurik ez dagoela. Diru hori aprobetxamendu urbanistikotik atera nahi dute, baina horren txostenik ez dugu ikusi", dio Mikel Egurenak. Alkateak, bestalde, txosten hori badagoela dio eta komisio-

etatik pasatu dela esan du. Aurrekontuak uztalean onartzeari buruz, berriz, lur zoruaren legearenengatik atzeratutela erantzun du, ez zutela beste arrazoirik. Bestalde, Bergara Aurrerak uste du herritarrek parte hartu beharko luketela aurrekontuak definitzeko orduan.

INBERTSIO HANDIENA, KIROLEAN

Inbertsio handiena Agorrosinen egingo dute. Bihargintzatik eta beste bide batzuetatik hartuko dute dirua horretarako. Aurten, lehenengo aldi, ingurumen atala aparte sartu dute.

Udalaren aurrekontua

| | |
|-------------------------------------|-------|
| Administ., zerbitzuak, Udaltzaingoa | %25,4 |
| Kultura zerbitzuak | %5,9 |
| Kirolak | %4,3 |
| Hezkuntza | %4,2 |
| Taldeak, jaiak | %3,1 |
| Euskara | %3,2 |
| Hazienda | %9,7 |
| Gizarte Ongizatea | %10,6 |
| Hirigintza | %9,2 |
| Ingurumena | %8,2 |
| Mendi eta auzoak | %2,3 |

Inbertsio aipagarriak

| | |
|------------------------------|-------------|
| Agorrosin | 2.500.000 € |
| Lursailak | 600.000 € |
| Eskoletako erreformak | 435.000 € |
| Kultura lokalak | 255.000 € |
| Artekale-Goenkale | 250.000 € |
| Udal frontoia | 198.000 € |
| Arizuriaga liburutegia | 155.000 € |
| Zaborrak batzeko ontziak | 70.000 € |
| Baserri bideak eta bazterrak | 60.000 € |
| Kanposantuko kapila | 42.000 € |
| Parpeak | 18.000 € |

OGIZUN koop. elk. okindegia



Ibargarai 44-46 Zubillaga 10
BERGARA OÑATI
943 76 45 53 943 78 24 13

PINTXOAK eta
OGITARTEKOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92



UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE

MUJIKA FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITAREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA

SHOTOKAN KARATE-DO



Bergarako Shotokan Karate-Dok taldeko zuzendaritzaren izenean,

ZORIONIK BEROENAK

ikasle guztiei aurtengo emaitza bikainengatik .

Irailean ikusiko dugu berriz ere elkar!

Eta 11 urte hauetan gurekin egon zareten guztiloi
ESKERRIK ASKO



MUSIKA > MARIAREN LAGUNDIKO ELIZAN, ZAPATUAN

Orfeoiaren eta Musika Eskolako soka taldearen eta kantu ikasleen emanaldia

Kontzertuko bigarren zatian, hari taldearen laguntzarekin, Orfeoiak bi pieza sinfoniko-koral joko ditu: 'Kirie eta Santus', Gorritirena, eta 'Beatus vir', Monteverdirena

EDU MENDIBIL > BERGARA
Bergarako Orfeoiak eta Musika Eskolako hainbat kidek emanaldia egingo dute bihar, zapatua, Mariaren Lagundiko elizan, 20.00etan.

Bosgarren urtez elkarrekin arituko dira Musika Eskolako hari taldea, kantu ikasleak eta Orfeiko kideak. Ikasturte amairako kontzertua izango da zapatuoa.

Egitarruari dagokionez, lehenbiziko zatian, hari taldeak (bederatz) lagunez osatutakoa) eta kantu ikasleek zazpi pieza eskainiko dituzte, tartean *Txirula magikoa*-ren Zarastroren aria, *Las bodas de Figaro* eta *Sunset*



KONTZERTUA Bosgarren urtez elkarrekin arituko dira Musika Eskolako hari taldea, kantu ikasleak eta Orfeoia.

GOIENKARIA

boulevard musikalak. 25 lagun izango dira kantuan, Aitor Biain oñatiarraren zuzendaritzapean. David Azurta Orfeiko zuzendariaren ordez ari da Biain azken hilabeteotan.

Kontzertuko bigarren zatian, berriz, hari taldearen laguntzarekin, Orfeoiak bi pieza sinfoniko-koral eskainiko ditu: *Kirie eta Santus*, Gorritirena, eta *Beatus vir*, Monteverdirena.

Aipatutako bi lanetan bakarlari gisa kantu ikasleak izango dira: Miren Azkarate, Karlos Etxaniz, Nere Ibarra, Isabel Juldain eta Ainara Uribesalgo, hain zuzen ere.

MUSIKA > 'UDAKO GAUAK'

Rafa Ruedaren kontzertua gaur gaean Espoloian

Mungiako kantari eta gitarristak 'Saredun eskua' diskoko kantuak aurkeztuko ditu

E.M. > BERGARA
Rafa Ruedaren kontzertua izango da gaur gaean Espoloian, *Udako gauak* programazioari hasiera emanez. Pi LT taldeko partaideak bere bakarkako bigarren diskoa (*Saredun eskua*, Gaz-

telupeko Hotsak) aurkeztuko du gaurko emanaldian, 22:30etik aurrera. Hamar kantu batu ditu Ruedak diskoan, eta pop eta rock doinuak dira nagusi. Mungiako kantariarekin batera Mikel Azpiroz (teklatuak), David Gonzalez (baxua) eta Rufo Urbina (bateria) izango dira gaur taula gainean.

MALATU, HILAREN 14AN
Datorren egubakoitzean Malatu taldearen jazz kontzertua izango da Espoloian, 22:30ean.



RAFA RUEDA Saredun eskua bere bigarren bakarkako lana du.

GAZTELUEPEKO HOTSAK

MIZPILDI

OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

GAK

Garbiketa, Administrazioa eta Konponketak

- Era guztietako garbiketak
- Zuen komunitateko administrazioa
- Konponketa orokorrak
- Eskatu aurrekontuak konpromisorik gabe.

Tel.: 653 70 45 47 OÑATI

BEHEKO TABERNA

Menestra eta untxia dira gure berezitasunak

ANGIOZAR

Tel.: 943 76 55 74

UGARTE
AROZTEGIA-ALTZARIAK

K21

Arotz lanak orokorrean • Horma armairuak
Altzariak • Leihoa • Ateak

ALTZARI DENDA
Ikerlek zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91 / Faxa: 943 76 08 04

> JAIAK
San Kristobal auzoko jaiak asteburuan

Gaur gaean, ohiko pinu sartzea, etxafuegoak eta auzotarrrentzat saihestia, sagardoa eta txokolate-jana izango dira San Kristobalen. Bihar, zapatua, Kiñu taldearekin danzaldia, 23:00etan. Domekan, 12:00etan, meza nagusia, ondoren autoen bedeinkapena eta jarraian auzoko erretiratzen luntxa. Moises Azpiazu dantza taldearen emanaldia eta haurrentzako kukainak izango dira baita. Astelehenean meza 12:00etan eta gaean Gardoki taldearekin erromeria, 23:00etan.

> MUSIKA
Zura taldearen kontzertua zapatuan gaztetxeen


Hondarribiko Zura taldeak kontzertua eskainiko du bihar, zapatua, gaztetxeen, 22:30ean. Xabi Strubell (gitarra eta ahotsa), Martxel Mariskal (ahotsa), Davis Martinez (gitarra), Iñigo Telletxea (baxua) eta Diego Garcia (bateria) dira Zurako kideak. Kontzerturako sarrerak hiru eurotan jarriko dira salgai.

Bestalde, uztailaren 15erako Mexikoko Kompadres Muertos eta Oñatiko Show Business taldeen kontzertua iragarri dute gaztetxean.

> GAZTEAK
Gazte Informazio Gunearen ordutegi aldaketa

Gazte Informazio Guneak aditzeria eman duenez, uztailaren ordutegi berezia izango du bulegoak: eguznetan goizez 09:00etatik 14:30ak arte eta arratsaldez 16:00etatik 20:00etara. Egubakoitzetan, goizez izango da zabalk, 09:00etatik 14:30ak arte. Bestalde, abuztuaren 3an eta 4an ere zabalk izango da Gazte Informazio Gunea, 09:00etatik 14:30ak arte.

Argibide gehiago 943 77 91 57 telefonoan.



Boni Laskurain 3
BERGARA
943 76 35 71

GIARTZU

GIMNASIO BERRITUA

ABUZTUAN ZABALIK
09:00etatik 14:00etara



MARGA
jantzi denda

%50 eko
beherapenak
denboraldiko
arropa guztian

San Pedro 20 BERGARA
Tel.: 943 76 05 37



> IGERIKETA
**Bergarako igerilariak
Euskadiko Txapelketarako gertu**

Ekaineko azken astean egin zuten Gipuzkoako Igeriketa Txapelketan argi geratu da Bergarako igerilariak gertu daude la uztailaren 15ean eta 16an Galdakaon egingo duten Euskadiko Txapelketarako. Bergarako 13 lagunek hartu zuten esku Ordiziako txapelketan, eta neurria eman zuten. Euskadiko Txapelketan gertutik jarraituko ditugu.

> TXIRRINDULARITZA
**Asier Penabad
hemengo lasterketetan kontzentratuta**

Sumofic taldeko txirrindulariak berri txarra jaso du aste barruan, Gipuzkoako Itzulian hirugarren sailkatu eta gero ez dutelako Luxemburgon korritzeko hautatu.

Bergarakoa, baina, baikora: "Pena eman dit, baina asteburuan Ezkion dugu lasterketa, eta kontrario gutxiago izanda ea behingoz lasterketa bat irabazten dugun".



JOSE INAZIO MUNIATEGI

Bergarako lau talde, Zarautzen

Bergarako lau talde izan ziren joan den asteburuan Zarauzko hondartzan egin zuten eskubaloi txapelketan. Guztira 32 jokalari izan ziren, alebin, infantil, gazte eta nagusietan banatuta. Eta, erretretako alebin taldeak jardun zuen ondoen, bigarren sailkatuta. Argazkian, Josu, Mikel Martinez, Garikoitz, Mikel Eguren, Andoni eta Senar.



IRISH PUB Talde horrek gogotik egin behar izan zuen lan finalerako sailkatzeko. Ugarrixak zaitasun txikiagoak izan ditu. BEITIA

FUTBOLA > IPINTZAKO TXAPELKETA

Irish Pub eta Ugarixka taldeak lehiatuko dira gaur, finalean

19:45ean jokatuko dute beteranoek finala; beste partidu bat egongo da, baina, lehenago

XABIER URTZELAI > BERGARA

A Ze Flaxa eta Bildurbarek taldeak dira hirugarren postuagatik lehiatuko direnak, finala baino lehenago (18:45). Bi talde horiek eskura izan dute finala, baina martitzenean galdu zituzten aukera guztiak, finalerdieta galdua. Hala, euren arteko partiduarekin hasiko dute gaur arratsaldeko futbol jardunaldia. Arra-

tsaldeko hitzordu garrantzitsua, baina, 19:45ean hasiko da, beteranoen mailako finala. Eta finalerdieta partiduak ikusita, badirudi parean egongo direla indarrak.

UGARIXKA HOBETO SAILKATU DA

Finalera jauzi egiteko zaitasun gutxien izan duen taldea da hori. Ugarrixak Bildurbarek Opel Lamizan zuen finalerdieta kontrario, eta norgehiagokak ez zuen kolorerik izan, 4-1 nagusitu zirenetan Ugarixako mutilak. Josetxok birritan, Arkaitz Aranak eta Aritz Ucinek egin zituzten golak. Bildurbarek taldearen gola, berriz, Juan Luis Etxanizek egin zuen.


Beste finalerdia ikusgarria goa izan zen, parekatuagoa eta azken ordura arte emozio handikoa. Irish Pub taldeko Unai Urigoiak egin zuen partiduko lehen gola, eta A Ze Flaxako Juantxo Izuskizak berdindu zuen zeingehiagoka. Bazirudien luzapenean erabakiko zutela

zein izan behar zen bigarren finalista, baina partidua amaitzean zegoenean, azken hasperenean egin zuen Irish Pub taldeko kide Franek gol erabakigarria (2-1). Gauzak horrela, Irish Pub eta Ugarixa izango dira gaur aurrez aurre (19:45).

GAINONTZEKO FINALERDIAK, ZAIN

Beteranoek gaur arratsaldean amaituko dute txapelketa, baina oraindik jokatzeke daude futbol 11ko txapelketako finalerdiak, bai Kopakoak eta baita Ligakoak ere. Hala, astelehena izango da horretarako eguna. Aste barruan jokatu dituzten partiduek erabakiko dute nortzuk egongo diren astelehenean azken txanpan. Kopa barruan, 18:00etan jokatuko dute lehenengo finaleria, eta 21:30ean bigarrena. Eta Liga barruan, 19:00etan jokatuko dute lehen zeingehiagoka, eta 20:15ean bigarrena.

Gauzak horrela, gaur arratsaldeko futbol ikuskizunarekin asetzan ez denak astelehenean bertan izango du hurrengo hitzordua, 18:00etan hasita lau partidu izango dira ikusgai, Ipintzan bertan.



ENTSALADA, PIPERRAK, PATATAK ETA OILASKOA

Ogia eta urteko ardoa

15€

*txampana aukeran, botila 3€ gehiago.

URDAIAZPIKO IBERIKOA BAKAILAO NAHASKIA ENTSALADA (letxuga eta kipula) IDI TXULETA PARRILLAN

Ogia eta kriantza ardoa (Marques del puerto)
30€

CHEF-aren DEGUSTAZIO MENUA

Foie terrina, Pedro Ximenez- saltsarekin eta mahaspasa eta intxaurdun ogiarekin.

Entsalada epela, olagarro eta esparrago trigueroekin.

Ajoarriero bakailao- kuruskariak, bere zuku gutxituan.

Bakailao- zati konfitatua, patata eta berakatzezko krema harrotuaren gainean.

Solomilloa foie-arekin eta mahats – saltsarekin.

Maracuya zopa, kokozko helatuarekin eta piña kuruskagarriakin.

Ardoa , Marques del puerto erreserva.

40€

Erreserbak: 943763551


ETXEERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65

Goienkaria

Egubakoitza / 2006ko uztailaren 7a / GOIENKARIAREN GEHIGARRIA / Arduraduna: Leire Kortabarria / Maketazioa: Oxel Arrieta eta Imanol Soriano



ANTZUOLAKO JAIAK 2006

AZALA: OXEL ARRIETA / ARGAZKIA: GOIENKARIA

**Doitasunezko
trokelak**



Zerbitzuak
ELAY, S.L.



ELAY Taldea



Ebaketa zehatza
ELAY INDUSTRIAL, S.A.
CELAY, S.A. C.V.



**Gainmoldaketak
eta tratamenduak**
ELAY INDUSTRIAL, S.A.
CELAY, S.A. C.V.



AGURRA ETA EGITARAUA**alkatearen agurra**

Jose Angel Zabalo

Jaietan antzuolartasuna erakutsiz

Gure bizitzaren joan-etorri honetan, gure artean egon daitezkeen desados-tasunak, ezinikusiak, kezkak eta bestelako ezbeharrak alde batera uzteko aukera izaten dugu herriko jaixetan.

Elkarrekin guztiok herri berekoak garela sentiarazten gaituzten zorionezko egunak igarotzena gozelako, egun hauean gure antzuolartasuna bereziki erakusten dugulako.

Eta gure herritartasunaren aldarrikapen horrekin batera, gure kaleak irriz eta algaraz janzteaz gain, bertan egoterik ez dutenekin ere bat egin nahi dugu aurten-go jaixetan.

Aurten egoera berezia bizitzeko aukera dugu, urteetan amestu izan dugun bakearen itxaropena lortzeko haize berriak bisitatu gaitu, oraindik ere laino eta hodei ilunez lagunduta...

Baina argitasunaren izpiak garaile irtengo direla espero dugu.

Aipamen berezia eta esker onak luatu nahi dizkiet jaietako antolakuntzan parte hartzeaz gain, urteroko herri ekimenetan euren nahiak, asmoak eta ilusioa jartzetan dituzten hainbat herritarri, zuei esker herriak bizirik dirau eta.

Besterik gabe, topa egin dezagun guztiok pozez gure herriaren izenean.

JAIETAKO EGITARAUA**Domeka 9**

09:30 TXIRRINDULARI LASTERKETA. LXI. Antzuola saria. Iñaki Lete XIV. Oroigarria.
11:30 MEZA.
14:30 ERRETIRATUEN BAZKARIA herri eskolan. *Ondoren, DANTZALDIA.*

Eguena 13

09:30 UMEENDAKO JOLASAK. Udaleku irekietako begiraleekin GINKANA.
13:30 UMEEN HERRI BAZKARIA plazan.
15:00 JOKOAK.
18:00 Txosnak irekiko dira.
18:30 KALEJIRA herriko txistulari, trikitilari gazte eta buruhandiekin.
19:30 SALBEA. Antzuolako abesbatzak Alfonso Ugarteren salbea kantatuko du.
20:15 Oinarineko umeekin IKURRIN DANTZA.
20:30 Txupinazoa, kanpaiak eta udalbatzaren dantza saioa.
22:00 Umeendako ERROMERIA Irrintzi taldearekin.

00:00 HONTZAREN JAITSIERA kanpandorretik.
00:15 SUZKO ZEZENA.

00:30 KONTZERTUA. Zurragi plazan.
Klakson (Antzuola-Zumarraga)
Antzuolako beste talde bat

Egubakoitza 14

09:55 SUZIRIAREN JAURTIKETA eta GOIZ ERESIA.
11:00 Umeendako JOLAS PARKEA.
11:30 MEZA NAGUSIA.
12:30 BERTSOLARIAK Zurragegin: Joxe Agirre eta Amets Arzallus. Salda beroa banatuko dute.
16:30 Umeendako JOLAS PARKEA.
18:00 PILOTA PARTIDUAK. Mendizabal-Azkarate / Atxotegi-Azkarate. Muruamendaraz-Zezeaga/Berraondo-Sukia.
20:00 ZESENTXOAK eta PONEYAK.
21:00 MUSIKA KALEJIRA Oro de Mexico taldearekin.
23:00 MUSIKA ETA KONTZERTUA txosnetan.
Des-kontrol
DJ Bull
23:30 Oro de Mexico taldearen emanaldia.

Zapatua 15

09:55 KANOIEN DANBATEKO eta TXISTULARIEN GOIZ ERESIA.

11:00 Umeendako TAILERRAK Txatxilipurdiren eskuistik: itxura aldatzea (ile apaindegia eta aurpegia margotzea), eskulanak (bitxigintza, giltzatakoak...) eta zirkua (hanka-paloak, malabareak...).

11:30 Bergarako Udal Musika Bandaren KALEJIRA.

12:30 Bergarako Udal Musika Bandaren KONTZERTUA.

Amparito Roca

Magic overture

La gran via

Caribbean concierto

Antzuolako doinuak

18:00 MAIRUAREN ALARDEA.

19:00 Oinarin dantza taldearen DANTZA SAIOA.

20:00 PRESOEN ALDEKO ekitaldia eta omenaldia Zurragegin. Txorizo eta sagardoa banatuko dute.

21:00 DANTZALDIA Joselu anaia taldearekin.

21:30 HERRI AFARIA txosnetan.

23:00 DANTZALDIA Joselu anaia taldearekin herriko plazan.

23:00 KONTZERTUA txosnetan.

The Txuleton's
Arianrod
Amplitude

00:00 SUZKO ZEZENA

Domeka 16

11:00 KALEJIRA Lizarrako dantzari, gaita jole eta erraldoiekin.

11:00 Lizarrako produktuen erakusketa eta salmenta.

12:30 IBAI-EGAKO dantzarien eta LIZARRAKO GAITARIEN ikuskizuna herriko plazan.

18:30 KALE ANTZERKIA. *Pailazoen kalejira* Sebastopoleko titiriteroen eskuistik.

20:00 HERRI SAGARDOTEGIA: pintxoak jateko eta kupeletik sagardoa dastatzeko aukera. Herriko trikitiliak, bertsolariak. Jasotako dirua Hirugarren Munduko proiektu baterako izango da.

21:30 LARRAIN-DANTZA herritaren eskuistik.

21:40 DANTZALDIA Kupela taldearekin.

00:00 Jaietako AZKEN SUZRIAK.

NEREA

*Nerearen izenean
ondo pasau Antzuolako jaixak*

Kalebarren 13 ANTZUOLA

ANTZUOLAKO**JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE****ANTZUOLAR GUZTIOI.****ONDO PASAU PIEDADE JAIXAK!!!****ANTZUOLA**

Apainketak eta
isolamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

Kalebarren, 1. Antzuola.
943 76 64 84**HARATEGIAK**

*Mari Kruz eta Juan Joxek
jai zoriontsuak
opa dizkizuete
antzuolar guztioi!*

Komenio kalea, 2. Bergara.
943 76 10 72

HONTZA JAISTEA

Gaueko mozoloa herriko gautxorien zaindari

Elizako kanpandorretik jaitsiko dute eguen gauerdian

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Hontza edo gaueko
mozoloa; jaietan eta
gauez mozolo-mozolo
ibiliko dira asko, baina
txori hau aipatu
badugu hontzarekin
ekitaldi berezia
egingo dutelako da.**

tan ibili zenetako bat eta hark kontatu dizkigu kontu bitxi horren nondik norakoak: "Zergatik ez dakit, baina orduan ohiura zegoen batak besteari 'hontza' deitzeko; behar-bada gaueko txoria dela-

ko eta jaietan gaez asko ibiltzen ginelako izango zen. Hortik abiatuta eta beste herri batzuetan Zeledon, Bitorianatxo edo Txantxikua jaisten zituztela ikusita, guk hontzaren jaitsiera asmatu genuen. Gainera, elizako kanpandorretik udaletxerainoko jaitsiera erraz egin daitekeela ikusi genuen, erorkera ona dago".


LEHENENGOA DONOSTIATIK
Donostiatik ekarri zuten hontza: "Zumitzezko euri-tako-ontzi bat zen, hontzaren itxura zuena, eta barrutik argiak ipini genizkion, baita txapel bat ere. Gainera, hontzaren soinuak kasete batean grabatu genituen gure ahotsekin eta prestatzen jardun genuenean sekulako barreak egin genituen, hartu genuen lanik dena gertatzen", esan digu Jexusek.

Eguenean, gauerdian, hamabietako kampaihotsarekin batera kanpandorretik behera hontza iku-siko dute jaisten plazan elkartzen direnek.

Orain dela 15 urte inguru jaitsi zuen hontza elizatik koadrila batek

**Hontzaren
itxura zuen
euritako-ontzi
batekin egin
zuten mozoloa**

Jexus Etxeberria da orduan antolatzaile lane-



ANTZUOLAKO JAIXAK 06

Aurtengo jaietako sinboloa izango da gautxoria edo hontza.

GOIENKARIA

Aurtengo hontza Bergarako Mikel Ibartzabalek egingo du. Metro eta erdi inguru izango ditu hontzak eta goma-aparra era-biliko du. "Jaietarako garaiz iristen ez bada orduko hontza oraindik gorde daukagu", dio Jexusek.

Ekitaldiak orduan izandako arrakasta edukiz gero konforme leudeke antolatzaileak. Jexus Etxeberriaren esanetan, "lagun arteko kontu bat izatea nahi genuena ikuskizun bihurtu zen; hontza jaitsitakoan denak txaloka hasi ziren;

oso arrakastatsua izan zen benetan".
Eguenean jaitsiko dute hontza kanpandorretik kalera, udaletxera; baina nork daki noiz itzuliko den. Gaueko den heinean herriko gautxorien artean geldituko da seguru aski.


Harizki
SUKALDEKO HALTZARIAK

Ondo pasau jaixak!

Zurrategi plaza 4 behea • Tel.: 943 78 71 80 Faxa: 943 78 60 24

- Sukalderako eta bainurako altzariak
- Altzari rustikoetan espazializatuak

Jose Luis
Zabalo



Ondo pasau
jaixak!

ZAHAR BERRITZEAK: Fatxadak • Bainugela eta sukaldea • Lokal komertzialak • Teilituak

Kalegoi 9 -1 • ANTZUOLA • Tel. Faxa: 943 76 60 89

ALARDEA

Eskopeta berrien tiro hotsa plazan

Kanoiak ere konpondu egin dituzte, tiroa segurua izateko

IRATI AGIRREAZALDEGI

Mairuaren alardea jaietako ekitaldi nagusia izan ohi da antzuolar askorendako. Iuskizuna ohikoa bada ere, aurten izango da berrikuntzarik alardean.

Badira bi urte Maibruaren Alardea kultur elkartea lanean hasi zela; eta, hain zuzen, aurtengo alardean ikusiko ditugu lan horren emaitzak.

Besteak beste, alardean eskopeta berriak estreinatuko dituzte. Jose Luis Kortabarria elkarteko kideak azaldu dizkigu aldaketen zergatiak: "Legeak dio alardeetan eta horrelako iuskizunetan ezin direla ehizako eskopetak erabili. Beraz, alardea arauetiarra jarraituz egiteko 34 eskopeta arin ekarri ditugu Elgoibarrik; jaurtigairik gabekoak, hain zuzen ere".

Kanoiak ere berritu egin dituzte: "Urteen pederioz, tiroa egiten duen pieza izorratu egin da; beraz, aldatu egin diogu", esan digu Kortabarriak.

Ikusleek, ordea, ez dute ezberdintasunik sumatu. Jose Luisek esan digunez, "eskopeten tiroa oso antzerakoa izango da; alde bakarra izan daiteke kanien tiroa segurua izango dela. Inoiz gertatu izan da tiroa ez aurrera ez atzerra geratzea, baina aldaketa honekin horrelakorik ez pasatzea espero dugu".

Alardearen egunerako herria txukun janztea nahi dute elkartekideek. Horretarako nahi dute ohiko banderak beharrean plazan eta gertuko kaleetan herriko bandera iruditziat duten banderatxoak zintzilik ipintzea.

ELKARTEA HANDITU
Hamar lagun inguruk osatzen dute gaur egun elkartea, baina euren asmoa da elkartea handitzea. Horre-

tarako udazkenean bazkide de kanpaina egingo dute. Bazkideek ez dute kuotari ordaindu beharko; noizean behin egingo diren batzarreran parte hartzea eta ideiak ematea nahikoa izango da. Orain lantzen ari diren ideietako bat da alardeen gaineko mintegi bat antolatzea alardeen gaineko informazioa hedatzeko, eta alardeak ospatzen diren herrien arteko harremana sendotzeko.



Legeak ez du lagatzen ehizako eskopetak erabiltzea horrelako iuskizunetan.


I.A.



Alardearen egitura berria infografian.

Datorren urtean plaza berritan

Gauza jakina da datorren urtetik aurrera amaituta egongo direla errekkako obrak; beraz, plazan hainbat moldaketa egin beharko dira alardean. Udal aparejadore Valen Moñuxek hainbat aldaketa proposatu ditu, baina oraindik elkarreka ez du kokapen berria aztertu. Aldaketen artean daude kanoiak barrura begira ipintzea eta danbor joleak ilara gehiagotan banatzea, luzetara beharrean. Valen Moñuxen esanetan, "horrela arma plaza baten itxura handiagoa izango duela iruditzentzait".



Antzuolako Udalak jai zoriontsuak opa dizkizue!

Bereziki zapatu arratsaldeko seietan
egingo den Mairuaren alardera
gonbidatu nahi zaituztegu. Zatozte!



Antzuolako udala
www.antzuola.com

Jai zoriontsuak igaro ditzazuela antzuolar guztiok eta bertaratzen zaretenok!



Gabilondo-Arregi

harategia

ABELGORRI-OKELAREN EUSKO LABELA

Kalebarren 14 ANTZUOLA Tf. 943 76 62 90

TXOSNAK

Musika izango da protagonista nagusia jaietan, txosna-gunean

Zurrategin bi txosna ipiniko dituzte Euskal Herrian Euskaraz eta Presoen Lagunak taldeek eta gaztetxeak

MIREIA BIKUÑA

Antzuolako jai egitarauari erreparatuta gazteendako ekitaldi gehienak Zurrategiko txosna-gunean egingo dituztela ikus genezake.

Txosnak uztailaren 13an, eguneean, arratsaldeko seiretan zabalduko dituzte eta jaietan barrena izango da ekitaldirik bertan. Bi txosna ipiniko dituzte Zurrategin Euskal Herrian Euskarazeko, Presoen Lagunak taldekoen eta gaztetxekeen artean.

EGUNEEAN ANTZUOLARRAK

Eguna herriarren eguna dela diote antzuolarrek eta txosnetako kontzertuei ere kutsu hori eman diete. Izan ere, Antzuolako bi taldek jardungo dute Zurrategin.

Lehenengoan, Klakson taldean, bi antzuolarrekin batera hiru zumarragarrek dihardute eta orain gutxi egin dute estreinako kontzertua Gasteizen. Biga-



Arianrod talde eskoriatzarrak zapatuan eskainiko du kontzertua Zurrategin. Lehen ere bertan jo izan dute.

ANTONIO REGAÑO

rren taldean Antzuolan ezagunak diren *Urrio, Pepi* eta Iñigo musikariak arituiko dira.

Egubakoitzean, uztailaren 14an, berriro ere musika izango da protago-

nista. DJ Bull diskotzailearen saioaz gain, Arrasateko Des-Kontrol taldearen kontzertua iragari baitute.

Zapatuan izango dira txosna-guneko azken eki-

taldiak, domekan ere zabalduta egongo diren arren.

Presoen aldeko ekitaldia eta omenaldia egingo dituzte 20:00etan Zurrategin eta 21:30erako herri afaria dago iragarrita

Gaean, 23:00etan hasita hiru musika talde izango dira: The Txuleton's oñatiarrak, Arianrod eskoriatzarrak eta Anplitud lekeitiarrak. Musika aukera zabala, beraz, txosnetan.

Txosna batzordearen egitaraua

EGUENA, 13

18:00

Txosnak irekiko dituzte.
00:30

Zurrategi plazan herriko bi musika talderen kontzertua.

EGUBAKOITZA 14

23:00

DJ Bull-en emanaldia eta Des-Kontrol taldearen kontzertua.

ZAPATUA 15

20:00

Presoen aldeko ekitaldia eta omenaldia
Zurrategin. Txorizoa eta sagardoa banatuko dira.

21:30

Herri afaria txosnetan
23:00

Kontzertua txosnetan:
The Txuleton's, Arianrod
Anplitud



Ibarreta z/g • 20577 ANTZUOLA

Tel.: + 34 943 78 60 09

Faxa: + 34 943 78 70 34

<http://www.matz-erreka.com>



Berotan estanpaturiko torlojugintza berezia

•
Plastiko eraldakuntza injekzio bidez

Ate eta pertsianak zabaltzeko automatismoak

•
Oinezkoentzako ate automatikoak



LIZARRAKO TALDEAK

Nafarroako soinu eta dantzaz beteko dira kaleak

Jaietako domekan Lizarrako folklorea izango da ikusgai

ARANTZAZU EZKIBEL

Antzuolako herriak eta Lizarrak bat egingo dute bi herrietako pertsonaia baten memoria berreskurtzeko asmoarekin, Alfonso Ugarte musikari handia.

Antzuolako jaietako azken egunean, domekan, uztailaren 16an, herriko musikari ospetsu bat omenduko dute: Alfonso Ugarte.

Horretarako, herriko kultura taldeez gain, Lizarrako dantzari eta musikarien laguntza ere izango da. Izan ere, Alfonso Ugartek Lizarran eman zituen bere bizitzako azken urteak. Modu honeitan, musikariarekin lotura izan duten bi herriek

bat egingo dute Alfonso Ugarteren memoria berreskurtzeko asmotan.

DANTZARIK ETA GAITARIK

Uztailaren 16an egingo den jaian, bi herrien arteko harremana indartu eta sustatu nahian Lizarrako gaitarien eta dantzarien bisita izango dugu.

11:30ean, Bergarako erraldoiekin batera kalejira erakargarria egingo dute. Antzuolako kaleetan Nafarroako soinu eta dantzen lehenengo saioa izango dugu. Izan ere, meza nagusiaren ostean, herriko pla-

zan emanaldia egingo dute Lizarrako Ibai-Ega dantza taldeak eta Udaleko gaitarieki.

Ibai-Ega dantza taldea 1980. urtean sortu zen ezkerro, dantza tradizionalen jarraipenerako eta zabalpeneraiko laneari aritu da, bereziki Lizarrako dantzetan. Haiek Euskal Herriko ziklo koreografiko aberatsenetakoa osatzen dute. Antzuolako emanaldian, *Lizarrako Kalejirak, Desmayoa* eta *Korrontxoa* dantzatuko dituzte. Gainontzeko dantzak bezala, hiriko musika zaharrekin egindakoak dira. Julian Romanok eginak, hiriko ohituran hain sustauak zeuden kalejirak berreskuratu nahi izan da.

Nafarroako doinuekin emango diegu agurra herriko jaiei. Baino jaiak ondo bukatzeko, arratsaldean kale antzerkia eta herri sagardotegia egongo dira.

Meza nagusiaren ostean dantza emanaldia egongo da



Ibai-Ega dantza taldearen emanaldia izango da Antzuolako jaietan.

IBAI-EGA

Antzuolan sortu eta Lizarran bizi izandako musikaria

Antzuolan jaio zen Alfonso Ugarte (1879-1937) eta 10 urte zituela osaba organo-jotzailearekin hasi zen musika ikasten. Bergaran eta Donostian ikasketak osatuta organo jotzaile oposizioetara aurkeztu eta Lizarran

Iortu zuen postua. Hantxe ezkondu eta han egin zuen bizimodu.

1920an Udal Musika Banda sortu eta zuzendari jardun zuen; baita musika irakasle lanetan ere. Batik bat erlificio musika konposatu zuen Alfonso.



Zabalo Iturgintza S.L.

Ondo ibili jaietan!

- Gasa
- Berogailuak
- Haire egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrun instalazioak

- Bero-aurreztea
- Bainugelak. Proiektuak momentuan DIBAren bidez
- Birgaitze-espedienteak bideratzen ditugu

Tailerra: Uzarraga bidea, 10. Antzuola. Tel.: / Faxa: 943 78 71 78
Erakusketa: Kalebarren, 1. Antzuola. , Tel.: / Faxa: 943 76 64 73



TXOMIN GARAJEA

Tailer profesionala

Mekanika orokorra

IAT/ITVrako prestaketa

ZORIONAK
GUZTIO!!

Lizarraga auzoa. Antzuola. Tel. 943 78 70 77

HERRI SAGARDOTEGIA

Jaiei bukaera emateko herri sagardotegia Senegalen alde

Antzuolako jaietako azken egunean, domekan, izango da herri sagardotegia Antzuolako plazan, 20:00etatik aurrera

ARANTZAZU EZKIBEL

Sagardo festaren inguruan herri giroa sortu nahi dute Anelkar elkartekoek. Bertan jasotako diruarekin, Senegaleen proiektu bat bideratu nahi dute: amaetxea berritzaea.

Herri sagardotegian batutako diruarekin Senegaleen proiektu bat aurrera atera nahi dute Anelkar elkartekoek.

Hala, Antzuolako jaietako azken eguneko, uztailak 16, domeka, sagardoaren inguruan festa handia antolatu dute.

HERRITAREN PARTE-HARTZEA

BULTZATU NAHI DUTE

Antzuolako plazan jarriko dituzten kupelak arratsaldeko 8etan irekiko dituzte. Anelkarreko kideek esan digitenez, modu horretan, jendeak bertan afaltzeko aukera izango du. Sagardoari laguntzeko, pintxoak jarriko dituzte salgai. Hiru-

gihar, txorizo eta gazta pintxoak izango dira. 1,50 euro inguru ordaindu beharko da pintxo bakotza.

Baina herri sagardotegian jatekoa eta edatekoaz gain, herri emanaldiak ere egongo dira. Dantziak, herriko bertsolariak eta, umore puntuak jarritz, txiste kontalariak izango dira. Anelkar elkarteko Kontxik azaldu digunez: "Modu horretan, sagardo festaren inguruan herriko giroa sortu nahi da".

Kupilak 21:30 ingurura arte egongo dira irekita. Gero, herritarren eskutik Larrain dantza izango da ikusgai. Adin tarte guztietako jendeak hartuko du

Plazan sagardoa eta era askotariko pintxoak egongo dira salgai



Herri sagardotegi egunean giroa aparta izango dela espero da.

parte. Azken hilabeteetan egindako lana erakutsi beharko dute dantzarieki.

AMAETXEA ETA ESKOLA

Anelkar Antzuolako elkartekoek jaietako herri sagardotegian jasotako dirua Senegalera bidaliko du. "Beharra dagoen hainbat lekutara bidali izan dugu dirua. Azken eskaera Sene galgoa izan da eta aurten hara eramango dugu dirua", adierazi digu Kontxik.


Hantxe hilabete pasatzen antzuolar bat dago, Kristina Bakaikoa, eta haren bidez izan dute Sene galgo proiektuaren berri. Kristinak hango amaetxea baterako eta eskola baterako behar du dirua. "Amaetxeak bainuak konpondu behar dira, komunak eta dutxak jarrita, eta eskolak, berriz, teilitu berri baten premia du", adierazi digu Kontxik.

Anelkarrek urtean hiru edo lau aldiz egiten ditu dirua biltzeko ekin tzak. Aurten, jaietan, sor presa bat ere egongo dela adierazi digute.

Ondo pasau jaixak!

HIRU
AROZTEGIA

K21
KALITATEAK



- ATEAK
- LEIHOAK
- ZORUAK
- HORMA-ARMAIRUAK

ESPEZIALISTA BATEN BERMEAREKIN

GOIZPER

KOOP. ELK.


MATABI IHINZTAGAILUAK

- NEKAZARITZAN, LORATEGIAN, INDUSTRIAN
ETA ETXEAN TRATAMENDUA EGITEKO
IHINZTAGAILU ETA HAUTSEZTAGAILUAK.

GOIZPER TRANSMISIOAK

- ENBRAGEAK, BALAZTAK
 - PNEUMATIKOAK
 - HIDRAULIKOAK
 - MEKANIKOAK
 - ELEKTROMAGNETIKOAK
- ESPEKADUN ETENKAKO BIRAGAILUAK
- ESPEKA BEREZIAK

ANTIGUA 4 - 20577 ANTZUOLA (Gipuzkoa)
211 POSTA KUTXATILA - 20570 BERGARA
TEL.: 943 786000
FAXA: 943 766008 - 943 787095
E-MAILA: goizper@goizper.com
Web gunea: www.goizper.com



Tomas Gezalaga
ERA GUZTIETAKO MARGOLANAK-FATXADEN GARBIKETA

ERA GUZTIETAKO MARGOLANAK-FATXADEN GARBIKETA

943 766407 616 277999 Antzuola

mingainari tiraka

Angelines Tartas > Yoar zapata dendakoa

"Zapata baxuak eta bigunak dira erosoenak"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Angelinesek 40 urte inguru daramatza Barrenkalean zapatak saltzen; orain, Arrasaten ere badute denda. Oinak lurrean izatea omen da zentzudunena, eta zapata on batzuen gainean boda hobe; beraz, Angelinesengana jo dugu aholku eske.

Nolako oina, halako oinetakoa, dio esaerak.
Bada denondako egokia den zapatarik?

Badira zapatak gehienendako erosoak direnak, baina gerta liteke bateren baten oinarendako ez balio izatea.

Takoidun zapatak ala abarketak?

Ez bata eta ez bestea. Abarketek mugak ipintzen dituzte; takoidunak okasioetarako bai, gainontzean oinak izorra ditzakete.

Uda honetarako zein oinetako gomendatu zeniguke?

Zapata baxu eta arinak: parisinak, esaterako; bestela, sandalia erosoak.

Zapatarik erosoenak?

Erabiltzen ditudanak; oinetako bigunak eta baxuak, takoirik gabeak.



Eta sekula jantziko ez zenituzkeenak?

Derrigorту ezean ez ditut takoi handidun zapatak jantziko.

Etxean oinutsik ala zapatilekin?

Erosoa da oinutsik ibiltzea, baina ni zapatilekin ibiltzen naiz, larruzkoekin.

Zapatak beti garbi izateko sekretua?

Krema onarekin, ahal dela dagokion kolorekoa, eta sarritan garbitzea.

Zein arrazoirengatik egingo zenuke pententzia oinutsik?

Ez nuke egingo; badira gauza garrantzitsuagoak, eta horrek ez garamatza inora ere.

Inoiz eskatu dizuten neurririk handiena?

Gizonezkoetan 48a, eta kanpora eskatu genuen; emakumezkoetan, orain arrunta bada ere, 42a lehen ez genuen izaten.

Zerk ipiniko zintuzke ume bat zapata berrikin bezain pozik?

Merkataritza-etxe handiak desagertzeak, kalte handia egiten digute eta.

bere ustez



Ainhoa Agirreazaldegi

Melillako hipokr(h)esia handituz

Donostiako hondartzabatean egon nintzen orain hiru aste, eta normalizatuta dagoen zerbaitek ikusi nuen: hondartzan geunden ehunka lagunen artean lanean ari zen bakarra beltza zen. Lanean ari ez ginenon artean ez zegoen arraza txurikoa ez zen beste inor (azal beltzeako bai, dezente, ekaina hasiera bazeen ere).

Zenbat muga gainditu behar izan ote zituen gizon hark bere herrialdeko egoera negargarritik atera eta

"Spainian berdin dio Gobernuan zein egon. Biek Melillako hipokr(h)esia handitu dute"



lan koxkor hora lortu artean?

Edo "zenbat hesi" gainditu dituen galdu behar ote dugu?

Spainian berdin dio eskuina edo ezkerra dagoen Gobernuan. Biek ala biek Melillako hipokr(h)esia handitu dute. Eta politika horrek, migrazioak saihestu beharrean, sufrimendu eta heriotza gehiago eragiten ditu.

Eskuina oso eskuina denean, eta ezkerra zentroan dagoenean, ezkerra baino ezkerrerago lan egin beharra dago.

Bete gabeko leku asko dago oraindik ezkerrean. Arlo guztietan. Euskal Herrian badakigu zerbaitek horretaz. Hautsi ditzagun hesiak!

Musika tresnak utzi eta bizikletak hartuta egin zuten Gorlarako igoera musikariek

Tourra joan zen asteburuan hasi zen eta Bergaran ere bizikleta proba berezia egin zuten hainbat lagunek. Bandako eta orkestrako 13 musikarik musika tresnak bizikletekin aldatu eta Gorlarako igoera egin zuten. Helmu gara iristen lehen mutila Aitor Elortza izan zen; neska,

berriz, Saioa Elizalde. Hala ere, parte-hartzaile guztiek jaso zituzten sariak, Lazkano oinetako dendaren esku. Lagun arteko lasterketa izan arren, motorra, argazkilaria eta erratz-autoa ere han izan ziren. Indarrak hartzeko bazkaria izan zuten gero Altzazu elkartean.




POL-POL
Taberna

943 76 07 78. Bergara

CAMACHO
Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

KONDE
PANADEROKUA


Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA


ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

- ① Spinning gela eta korrika egiteko zintak.
- ② Easyline zirkuitua denbora gutxi duen jendearentzat, lan osoa eta perfektua hogeita hamar minututan.
- ③ Galileo tekniko Alemanak NASArenatzat egindako makina da. Potentzia lortzeko eta muskuluak gogortzeko erabiltzen da. Lance Armstrong txirrindulariak erre-kuperaziorako erabili zuen makina hau, ondoren, zazpi Tour irabazi zituen.



Boni Laskurain 3
BERGARA
943 76 35 71

GIARTZU

GIMNASIO BERRITUA

ABUZTUAN ZABALIK
09:00etatik 14:00etara



Karlos
Harategia

Santa Kurtz 5
Tel.: 943 71 25 54
ARETXABAleta



Jon Diaz
Harakinua

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
ARETXABAleta



BIDEGORRIA Zubi azpitik pasatuko den bidegorriaren zatia egiten dabilta, ekainean hasita.

AZPIEGITURAK > AUTOBIDEKO LANAK

Lurra pilatu dute zelaian zabortegira botatzeko zain

Apotzaga auzo azpian dagoen zabortegira botatzeko baimenaren zain daude

M.A. > ARETXABAleta

Autobidearen lanak aurrera doaz eta bistakoa da hori Aretxabaletako iparraldeko sarrean. Hasita daude Arrasatera doan errepidea eta erreka alde batetik bestera zeharkatuko dituen zubi ikusgarriaren lehenengo lanak egiten.

ZABORTEGIRA ERAIMATEKO ZAIN

Zubiaren zutabeak izango direnen euskarriak egiten dabilta, eta zutabeak egiteko zuloak egin behar dituzte. Lur asko dabilta ateratzen zulo horientatik eta errepide alboko zelaian, Arbizelai parekoan, pilatzen dute. Lurrezko izugarrizko mendiak egin dituzte dagoeneko, eta batek baino gehiagok pentsatu du errepidera jausten has daitezkeela. "Lurren biltegi bihurtu da zelaia, egia da, baina behin-behineko kontua da,

zabortegira botatzeko baimena jaso bitarteko kontua", diote Udaleko Hirigintza Sailean.

Pilatutako lurren zabortegia Eskoriatzako Apotzaga auzo azpian egongo da; bertako zuloan botatzea da asmoa. Hala ere, Bidegik oraindik ez du jaso baimenik, eta bitartean Arbizelai pareko zelaian uzten ditu. Lan bikoitzia izango dute kamioiek, lehenengo lurra atera eta zelaian utzi, eta baimena jasotakoan Apotzaga azpira eraman. "Baina baimen barik ezin dute ezer egin", diote Hirigintzako teknikariek.

Behin lurrik eramanda eta lanak bukatuta hazia ereingo dute zelaian, lehen zegoen moduan uzteko konpromisoa hartu zuelako Bidegik. Aretxabaleta eta Eskoriatza arteko autobidearen zatia 2008rako bukatuko dute.



LURRA Errepide alboko zelaian lurrezko mendiak daude.

M.A.

ERAIKUNTA ETA INDUSKETAK

Obra eta projektuen kudeaketa integrala

Zuzendaria:
Lyonel Arquero

Dekorazioa:
Soraya Arquero

CONSTRULAN S.L.
ARQUERO

K21
KALITATEA
Ingeniería Aplicada S.L. 2/05/043
2 M a i 1 0

Basabe poligonoa 4, EQ-11 ARETXABAleta
Tel.: 943 79 01 51 / 608 77 28 67 / 679 45 57 64
construlan@euskalnet.net www.construlansl.com

KIROLA > OMENALDIAK

Urrezko intsigniak jarriko dizkie UDAk Juan Mari, Unai eta Ibon Errasti pilotariei

Domekan, uztailak 9, jarriko dizkiete intsigniak, Iturrigorri pilotalekuaren, Debarroko Pilota Txapelketako finalak jokatu eta gero; Errasti anaiek, gainera, finala jokatuko dute

MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta Hitzordu garrantzitsua dute Errasti anaiek domekan. Batetik, senior mailako finala arrasatearen aurka, eta bestetik, urrezko intsignia jasoko dute UDAREN esku.

10 URTETIK GORA LANEAN

Aretxabaleta Kirol Elkartea jarriko dizkie urrezko intsigniak Errasti aita-semei. 10 urtetik gora egin dituztelako senior mailan jokatzen jasoko dute Unai eta Ibon Errastik. Juan Mari, aitak, bestalde, 25 urte baino gehiago daramatzza UDAko pilota sailean lanean. Hori guztia eskertu gura diete, eta orain arte futboleko preferenteko taldekeide-



ERRASTI AITA-SEMEA Juan Mari aitaren gidaritzapean egin dute Ian Ibon eta Unaiek, eta txapel asko lortu dituzte. GOIENKARIA

ekin egindako moduan jokatu: "Pilota taldearekin zorretan geunden eta Debarroko txapelketaren finala aprobatxatuko dugu merezitako omenalditxoa eskaintzeko", dio UDAko presidente den Jokin Antxiak.

Gainera, domekan, Debarroko txapelketako senior mailako finala jokatuko dute Errasti anaiek. Zortzigarren finala izango dute, eta arrasatearrei irabaziz gero seigarren txapela eskratuko lukete.

ANDRAMAIXETAN, SAN MIGELI

Pilota taldean lan handia egin duen beste kide bat Joxe San Miguel da, azken 17 urteotan pilotarien arduraduna. Andramaixetan, abuztuaren 16an, jarriko dioite urrezko intsignia.

> DIRULAGUNTZAK

Kirol taldeek jarduera bereziak egiteko laguntzak

Aretxabaletako kirol taldeek jarduera berezietarako edo noizean behin egiten dituzten jarduerak finantzatzeko dirulaguntzak eska ditzakete. 3 mila euro ditu horretarako Udalak. Zein agiri eta zelako txostena aurkeztu behar den jakiteko uztailaren 3an argitaratutako GAOn begiratu behar dute interesatuek.

Bestalde egindako ekinzen berri abenduaren 15a baino lehen eman beharko dute Kirol Sailean dirulaguntzak esku.

UDALA > ASTELEHENEAN OSOKO BILKURA

Hiru mozio aurkeztuko ditu Aralarrek astelehenean egindo duten osoko bilkuran

Etxebizitzen, bidegorriaren eta hiltegiaren gaineko kontuak argitu gura dituzte mozioekin

M.A. > ARETXABAleta Ohiko osoko bilkura egingo du udalbatzarrak astelehenean, 18:30ean. Gai asko izango dituzte aztertu eta erabakitzeko.

ETXEBIZITZEN PREZIOA

Aralarrek hiru mozio aurkeztuko ditu. Errekaren beste aldeko etxebizitzeta tasatu eta babes ofizialekoen prezio eta epeak zehazteko enpresa sustzailearekin akordio batera iristeko proposamen batetik. Azken prezioak ez dezala 2006ko irailean babes ofizialeko moduluak jaso dezakeen igorera gainditu esango dute.

Bigarrena bidegorriaren gaineako da, eta eskatzen du: Arrasateko pasabidetik CVL lantegi-

giak egindakoraino dagoen tartea eta Aretxabaletatik Eskoriaztara dagoen zatia 2006an egiten hastea. Baita azken horren finantzazioan Aldundiak parte hardezan gestioak egiten hastea ere.

Hirugarren proposamenak Zubillagako hiltegiaren gaineko udal erabakia betearaztea eskatzten du. Iazko irailean udalbatzarrak onartutako erabakiak oraindik Mankomunitateko batzordean eztabaideatu ere ez direla egin gogoraraziko dute.

TABERNA

TRLUTZ

MITARTE, 16 • ARETXABAleta • TEL. 943 79 32 34

ARTZUBI ELEKTRAGAILUAK

ARTZUBI ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

ACTIVA

Iparragirre kalea 4
ARETXABAleta
Tel.: 943 53 31 86



LANPOSTUAK

50 lagunetik gora Udalak ateratako postuetarako

Euskara teknikari posturako 53 lagunek eman dute izena eta diru-bilketarako, 51k

M.A. > ARETXABAleta

Joan zen egunean bukatu zen Udalak kaleratutako bi lanpostuetan izena emateko epea. Euskara teknikari posturako 53 lagunek eman dute izena eta diru-bilketa eta idazkaritzako administrarirako, 51k. Orain epaimahaiak bilduko dira, eta azterketa datak zehaztuko dituzte; mahai bien buru alkatea izango da. Uztailean sartuta eta abuztuko oposarrak tartean daudela, azterketok seguru asko irailean hasiko dituzte, baina epaimahaiak jakinaraziko dituzte kontu horiek.

BI PEOI

Aldi baterako peoiak ere behar ditu Udalak eta deialdia egin ondoren lau lagun aurkeztuziren, tartean bi aretxabaletar. Probak egin ostenan hautatuko dituzte bi peoiak udan lan egiteko.

ZUZENKETA

%65etik gora babestuak

Joan zen egubakoitzeko artikulu baten akatsa zegoen. Errekaren beste aldean egingo dituzten etxebizitzenten gainekoan. Udalak finkatutako prezioa dutenak, hau da, tasatuak ere babes ofizialekoak dira. Hala, legeak dioen moduan eraikiko dituzten 428 etxeetatik %65 baino gehiago izango dira babestuak: 187 tasatuak eta 100 babes ofizialekoak.

UDAKO ESKAINTZAK > 300 UME ETA GAZTE INGURU

Udarako egindako eskaintzetan 300 ume eta gazte dabiltza

Kirol Zerbitzuen eskaintza, gaztelekuo Udaero egitasmo eta herriko eta kanpoko udalekuun artean aukeratu dute ume zein gazteek

MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta
Oporretan daude herriko ume eta gaztetxoak, eta uda luzea izan arren ez dute aspertzeko astirik izango. Izan ere, eskaintza asko izan dituzte aukeratzeko.

HERRIAN ETA KANPOAN
Adinari egokitutako eskaintzak dira guziak, eta batzuk kirola egitera bideratuta.

4 eta 14 urte arteko askok herriko udalekuak hautatu dituzte: 215 lagunek, hain zuzen. Aste-

lehenean hasi zituzten eta uztailaren 21a bitartean jardungo dute jolasean, irteerak eginda eta jaieguna bereziak ospatuta. Gaur, egubakoitzas, esaterako, San Fermín eguna ospatzen dabiltza.

Beste hainbat kanpoko udalek kuetara joan dira. Arizmendi ikastolak antolatuta Garesen izan dira 6 eta 10 urte artekoak, Otsagabian daude 11 eta 12 urtekoak eta Zurizan 13 eta 16 urtekoak. Eta, Aldundiak eskainitako udalekuetan ere badira herriko gazteak.



UDALEKUAK 215 ume dabiltza herrian, eta asko kanpoan egon dira.

M.A.

Kirol Zerbitzuek eskaintza zabala egin dute, eta 100 lagun baino gehiagok egin du eskaera. Bixtxanda egin dituzte, eta astelehenean hasiko dute bigarrena.

Bukatzeko, Gazteria Zerbitzuak Udaero egitasmoa antolatu du, eta eskoriatzar eta aretxabaletarren artean 30 lagunetik gora dabiltza.

argazki zaharra

Gazte koadrila Arantzazura

Udako egunak aprobetxatuta Arantzazura egin zuten irteera gazteek. Goian: Nati Arkauz, Ana Mari Arenatza, Marilu Santamarina, Felix Garai, Mari Tere Iturriaga, Jose Angel Olazabal, Miren Txu Agiriano, Begoña Uribetxebarria, Angelina Rodriguez, Arantxa Iriarte eta Maria Dolores Akizu.

Behean: Jose Ramon Idigoras, Arantxa Galdos, Arantxa Arenatza, Juan Antonio Iturbe, Ramon Mari Elkoro, Rafael Pasamar, Jose Ignacio Iturbe, Karmelo Azkotia, Jose Luis Uralde; surrealdean Xabier Zubizarreta eta Javier Urtzelai.

Argazkia eta testua: Ramon M. Elkoro.
Urtea: 1963.



> JAIAK
Astelehenean meza Larrion, San Kristobal ospatzeko

Larrion auzoko zaindari San Kristobal eguna da astelehenean, uztailak 10. Egunean bertan ospatu izan dute jaia auzoan, eta halaxe antolatu dute aurten ere: meza 19:00etan esango dute astelehenean. Ondoren luntxa eskainiko diente hurreratutako guztiegi.

Ez da izango ospakizun bakarra; izan ere, zapatuan, uztailak 8, Larrion dagoen San Kristobal gastronomi elkartea ere ospatuko du zaindariaren eguna, eta afaria egingo dute bazkideek.

> ERRETIRATUA
Donostiara irteera antolatu du Basotxok uztailaren 13rako

Irteera antolatu du Basotxo erretiratuen elkartea Gipuzkoako kostaldera. Donostia eta Zarautz ingurura joango dira Aiatik pasatu ostean, eta eguraldiak laguntzen badie egun-pasa dotorea egingo dute. Uztailaren 13an, egunean, da irteera, baina txartelak aurrez hartu behar dituzte interesatuek. Azken eguna astelehena izango da, hilak 10, 10:30etik 12:30era, Basotxon. Lau txartel baino gehiago ez dizkiote emango bazkide bakoitzari.

> ODOL-ATERATZEA
Uztailaren 10ean eta 17an odol-ateratzek osasun etxean

Arabako odol emaileen elkarreta odol-ateratzek egiten dabil Aretxabaletan. Astelehenean egiten dituzte, eta hurrengoa hilaren 10ean eta 17an izango dira. Mediku bat eta hainbat erizain etorriko dira Gasteiztik osasun etxera, eta, hain zuzen ere, 16:15etik 20:00etara bitartean hurreratzen direnei aterako diente odola. Urtean hiru edo lau aldiz etortzen dira gure herrira Arabako odol emaileen elkarteko kideak.



Durana kalea 18 1.ESK
ARETXABAleta

Tel.: 943 79 89 69
Sakelakoa: 656 74 81 61

**Mobiliario
ARENaza**

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAleta

Mitarregarai
Jatetxea

**Baserri turismoa
eta taberna**

Areantza auzoa
ARETXABAleta
Tel.: 943 79 17 51





UDAL ORDEZKARIAK Juan Carlos Bengoak azpimarratu zuen udal ordezkarien herritarren alde egiten ez duten uste okerra zabaltzen dabilela.

IKER BARANDIARAN

UDALA > ALKATEA GOITB-KO 'DEBARRI' SAIOAN

Ibarraundi indartzeaz gain, antzokia egitea aztertzen dabiltza

Tranbiaren alegazioak
noiz eztabaideatu zain
dago Udalak

HUHEZIREKIN eta
enpresa batzuekin
Ibarraundiren gaineiko
fundazioa egin gura du

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA
Herenegun, eguzketa, Juan Carlos Bengoak Eskoriatzaren gaine-ko hainbat argibide eman zituen Alberto Gorritibreak gidatzen duen *Debarri* saioan, GOITBn.

Zeresan gehien eman zuen gaietako bat autobidea izan zen, halabeharrez. Gorritibreak Bidegiren eta Udalaren arteko batzaren gainean galdu zion. Udalak azaldu zuen batzarrok Bidegik apurtu zituela, baina Udalak kal-letuen eta Aldundiaren arteko bitartekari lanak eginen jarraitzen duela. Horrekin lotuta, Ben-

goak jakinarazi zuen orain dela aste gutxi Udalak Bidegiri eran-tzukizunak eskatu zizkiola. Horren arrazoia izan zen autobideko lanek Santa Anan eragindako hauts lainoa.

Bestalde, Udalak jakinarazi zuen autobideko lanetan bost zabortegi egingo dituztela udale-rrian; eta AHTko lanekin, beste lau, hain zuzen ere.

TURISMOA ETA ONDAREA
Juan Carlos Bengoaren esanetan, Ibarraundi museoa hasi da turismo bulego lanak eginen, nahiz eta

oraindik ofizialtasuna lortzeko tramiteetan dabiltzan. Eskoriatzaren turismoa baino gehiago aisiaaldi eskaientza lantzen dihardutela esan zuen, eta batez ere ibarreko eta Euskal Herriko bisitariak lantuko dituztela. Hala ere, Mankomunitatearen papera nabarmen-du zuen, zeregin hori ibarrean bultza dadin.

Horrekin lotuta, museoarekin lotuta eta HUHEZI eta enpresa batzuen laguntzarekin fundazio bat egiteko asmoa dutela argitu zuen. Baita zeramikaren gaine-ko gune berezi bat egin gura dutela,

Villar
Ile apaindegia

Olazar auzoa 9
Tel.: 943 71 50 42
ESKORIATZA

DE LA TORRE
igeltserotza

*Erreformak orokorrean
Gremioen koordinazioa*

Intxaertxueta 7 2-D
20540 Eskoriatza
Tel.: 943 71 52 64 / 639 76 29 27



AZKOAGA

ESTANKOA

943 71 48 77
Zure
Zerbitzura

Zubiateko labea eta iaz erositako ceramika bilduma baliatuta.

IKUSKIZUNAK EGITEKO ARETOA

Goiena.net-en jasotako galdera bati erantzunez, alkateak azaldu zuen Udalak badabilela ikuskitzunak egiteko antzoki txiki bat egin guran. Horretarako, hiru aukera aztertzen dabilta: Aretxabaletako Udalarekin batera halako bat egitea, HUHEZILko kapera berreskuratzea edo Santa Anako mojen zinema aretoan (egungo gaztetxea) egitea. Hala ere, argitu zuen Aldundiak diruz laguntzen ez badu, hurrengo bi urteetan Udalak ezingo duela egin, dirurik ez daukalako.

Horren harira, Udalaren asmoa da datozen urteotan HUHEZIREKIN duten harremana sakontzea.

TRANBIA AZTERTZEAR

Beste herritar batek, *goiena.net*-en bitartez, tranbiaren gainean galdu zion. Bengoaren esanetan, Jaurlaritz Bergara eta Aretxabaletako tramua gainbegiratzan dabil, eta Udalak zain dago Eskoriatzako alegazioak azter eta eztabaida ditzaten.

Beste galderetako bat izan zen dantzaldien gainezko. Herritar talde batek halakoak antolatzeko eskatu zuen. Bengoak argitu zuen Santa Marinako urbanizazioan plaza handia egin eta han kioskoa jarriko dutela. Han izan daitekeela horretarako aukera, baina Udalak zalantza duela dantzaldiek harrera ona izango duten.

APARKALEKUEN ARAZOA

Aparkalekuen premia ere aztertu zuten. Bengoak jakinarazi zuen herrian biztanle eta autoen arteko ratioa 1,6koa dela. Aztertzen dabiltza pilotalekuuan eta Luis Ezeiza artean lur azpiko aparkalekuak jartzea, baina zalantza dute herritarrek aparkatzearren ordainduko luketen. Baina gogoratu zuen autoen erabilera hala jarraituz gero, etorkizunean hori egin beharko dutela.

Etxebizitza tasatuen izenematea 2007an zabalduko dute

Besteak beste, etxebizitzen gainean aritu zen Juan Carlos Bengoa *Debarri* saioan, eta Santa Marinako etxebizitzen proiektua izan zuen berbagai. Iku-entzuleei argitu zien 2006ko bukaera eta 2007ko hasiera bitartean zabalduko dutela etxebizitza tasatuen izenematea.

Horrez gain, azaldu zuen etxebizitza horiek batez beste 180.000 eurotan salduko dituztela. Udalaren asmoa da horrekin jasotako etekinekin lur gehiago erostea eta herrian etxebizitza publiko gehiago egitea.

Bizigune programaz ere aritu zen. Alkateak uste du etorkizunean programak harrera ona izango duela, orain arte etxeak alokatu dituztenak oso pozik daudelako.

ELKARTEAK > OLAZAR ERRETIRATUEN ELKARTEA

Eguenean, 80 urtetik gorako bazkideekin Armentiara txangoa egingo du Olazarrek

Olazar erretiratuen elkarrekin hainbat ekimen antolatzen dihardu urtean. Egueneko ekimenaren eta elkartearren ibilbidearen gainean aritu gara eurekin.

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Olazar erretiratuen elkarrekin 20 urte beteko ditu datorren urtean. Izan ere, herriko 20 bat erretiratuk erabaki zuten antolatzeko eta elkartzeko txoko bat behar zutela. Udalarengana jo zuten eta hark Hidalgo jauregiko behe-aldea utzi zien.

Orditik hona dihardute erretiratuendako ekimenak antolatzeko, herriko jaietan laguntzen eta erretiratuen artean motibazioa pizten. Urtero txangoak, bazkariak, bidaiaiak, ikastaroak, txapelketak eta bestelakoak antolatzeko dituzte. Aurten, berriz, aldaketa bat egin dute: ez dute berbaldirik antolatu, eta horri dago kion dirua Aingeru Guarda berriko lanetarako eman dute. "Elkarteko erretiratuek esku hartzen dute antolatzeko ditugun ekimenetan, bitan izan ezik: mahai jokoen txapelketetan eta berbaldeitan. Hortaz, erabaki dugu berbaldeitan dirurik ez gastatzea, ez



BATZARKIDE BATZUK Argazkian, Olazar elkarteko batzarreko lagun batzuk. Erdian, Pedro Mari Armendariz presidente.

I.B.

duelako merezi", azaldu zigun Olazar elkarteko presidente Pedro Mari Armendarizek.

80 URTE BAINO GEHIAGOKOEKIN
Hain zuzen ere, egunean, hilaren 18an, 80 urtetik gorako bazkideekin txangoa egingo dute Armentiara. Hango eliza ikusi eta

afari-merienda egingo dute nagusienekin.

603 BAZKIDE DITU ELKARTEAK

Gaur egun 603 bazkide ditu Olazar elkartekoak. Horietatik emakumezko nagusiena Rosalia Blanco Mansilla da (98 urte) eta gizonenezko nagusiena, berriz, Antonio

Izagirre Artetxe (97 urte). Elkarteko batzarkideen esanetan, bazkideek ekimenetan dezente esku hartzen dute, aipatutako bi salbuespenetan ezik.

MARTITZEN ETA EGUN EGUERDIAK
Elkarteko batzarra lau emakumezkoak eta beste horrenbeste

gizonezkot osatzen dute. Eta bi urtetik behin, bina emakumezko eta gizonezko aldatzen dituzte.

Martitzenero eta egunero batzarra elkartu egiten da 11:00etik 12:30era bitartean. Gura duten erretiratuek hara jo dezakete edozein argibide, eskaera edo bestelako egitera.



ARRAKASTA GEHIEN Umeen danborrada arrakastatsua izan da. JOSETXO ARANTZABAL

JAIAK > SAN PEDROEN BALORAZIOA

Jaien irakurketa positiboa egin dute herriko hainbat eragilek

Kultura Sailekoak pozik daude jaietan duten harrera eta esku-hartzearekin. Txosna komisioa ere oso pozik dago lortutakoarekin

I.B. > ESKORIATZA

Dagoeneko bukatu dira San Pedro jaiak, eta hainbat eragilek jakinarazi digute oso konforme gelditu direla.

Jaien komisioak eta Udaleko Kultura Sailak oraindik ez dute balorazio ofizialik egin, baina Kultura batzordetik jakinarazi digute jaiak oso ondo egin direla eta jende dezente ibili dela. "Enpresa batzuk langileei jai eman izanagatik jendeak kanpo-

ra joko zuenaren susmoa izan arren, guk ez dugu halakorik igarri. Eta eguraldiak mesede egin digu. Eragozpen bakarra izan da, adibidez, zapatuaren bero handiegia egin zuela".

Jendeak kanpora joateko daukan ohituraren gainean, Kultura Sailetik honako hau nabarmendu zuten: "Batzuk kanpora joan badira ere, umeen danborradan guztia bueltan zeuden, ez genuen alderik igarri-eta".

Ekitaldi arrakastatsuenei dagokionez, Kultura Sailetik nabarmendu dute Gorosarri plazan egindako ekitaldiek oso harrera ona izan dutela. Hain zuzen ere, Oinkari dantza taldearen eta Golden Apple Quarteten ikuskizunek izan dute harrera onena; plaza gainezka izan zen.

Bestalde, Txosnen komisioak ere oso balorazio positiboa egin

du. Haren esanetan, txosna-gunean aurreko urteetan baino jende gehiago batu da. Komisioak nabarmendu du "egitarauko ekin-tza guztia egin direla, eta hori guztia autogestioaren bidez" lortu dutela.

TXOSNEN KOKAPENA

Kokapenari dagokionez, Txosna komisioak uste du lekuaren aldatetako txosnei "mesede" egin die-la: lekuia "irekiagoa, argiagoa eta erosagoa izanda, jende gehiago hurbildu da horra, eta adin askotako herritarren topagune izan dira txosnak".

Ekintzei dagokionez, oso harrera ona izan dutela azpimarratu dute, eta datorren urtean egitarau osatuagoa egingo dute-la aurreratu dute. Horrekin batera, eskerrak eman dizkiete esku hartu duten guztiei.

EUSKARA > TOPONIMIA LIBURUA

Kalean da toponimia liburuaren gaineko gehigarria

Eranskina doan eskura daiteke Euskaltzaindian, udaletxean edo liburu denden

Uztailaren 21ean egingo du Ana Toledok sarrera hitzaldia udaletxean

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA
Euskaltzaindiaren Onomastika Bilduman argitaratu zuten otsailean Kristina Pavlo filologo antzuolarrak egindako *Antzuolako Toponimia* liburua. Antzuolan galtzeko arriskuan zeuden toponimoak jaso zituen 755 orrialdeko lanean. Leku izenak bilakaerarekin batera 170 argazki inguru ere ipini zituzten, baserri, kale, ermita, iturri, eta abarrenak.

Liburuan azaldutako zenbait argazkik, hain zuzen, eman du zeresanik. Hori dela-eta, Euskaltzaindian gehigarri bat kaleratu du argazki egokiekin.

Herrian *Euskal Presoak Euskal Herrira* leloarekin bal-koietai ipinitako banderak

argazkietatik ezabatu egin zituzten, eta horregatik kalera-tu dute gehigarria.

Euskaltzaindiak gehigarria kaleratzeko emandako azalpe-na honakoa da: "Euskaltzaindia ohartu da bere *Antzuolako Toponimia* argitalpenean errakuntza bat dagoela, egileak zerikusirik ez duela horrekin. Izan ere, liburuaren orrialdeetan barneraturik dauden zenbait eraikinen argazkiak ez dato bat eraikin horien egungo ego-erarekin".

Eranskina doan eskura daiteke Euskaltzaindian, udaletxean edo liburu eroszi zen liburu denden bertan.

ANA TOLEDOREN HITZALDIA

Bestalde, datorren uztailaren 21ean Ana Toledo antzuolarrak Euskaltzaindirako sarrera hitzaldia egingo du Antzuolan bertan. Ekitaldia 10:30ak inguruaren izango da udaletxean.

Toledoren hitzaldiaren izenburua *Musen arnasatik goiarnasara, euskal letretan barrena* izango da; eta hitzaldia egin ostean, Jean Haritschelhar euskaltzain-buruak erantzungsio dio.

Hitzaldia Ana Toledoren jaio-terrian izanik, Euskaltzaindiko ordezkariez gain herritar asko ere izango dira ekitaldian. Horregatik, udaletxe kanpoan pantaila handia ipintzeoak dira.

Mendizabal eta Azkarate Debarroko finalean

Debarroko pilotu txapelketako finalak domekan izango dira, Aretxabaletako Iturrigorri pilotalekuaren. Gazte mailan Olaldeko Mendizabal eta Azkarate pilotariek Elgoibarko bikotea izango dute aurrez aurre. Olaldekoek, gainera, Oñatiako plazako txapelketan Altzoren aurka 22-2 amaitu zuten jokatutako azken partidua.

Animatzena domekan joango da herritarrik, baina ezin dutenen-dako pilotaz gozatzeko izango da beste aukerarik: jaietako egubakoitzean Mendizabal eta Azkaratek Atxotegi eta Azkarateren aurka jokatuko dute partidua; eta Muruamendiaraz eta Zezeagak Berraondo eta Sukiaren kontra.



GOIENKARIA

> IRTEERA Deba eta Zumaia arteko ibilaldia hilaren 23an Arrolarekin

Arrola mendi elkartea antolatuta hondartzara irteera egingo dute uztailaren 23an. Deba eta Zumaia artean bi edo hiru orduko ibilaldia egin ostean joango dira hondartzara. Gazteak Elo-riagatik Zumaiarako bidea egin-ko dute. Izena emateko uztailaren 18an 19:00etatik 20:00etara joan behar da Arrolara

> ZINEMA 'Los dos lados de la cama' filma gaur gauean frontoi txikian

Joan zen egubakoitzean euria zela-eta bertan behera geratu zen aire libreko zinema emanaldia. Ordurako iragarrita zegoen filma, *'Los dos lados de la cama'*, emango dute gaur, egubakoitzta, 22:30ean frontoi txikian. Hurrengo astean jaiak direla-eta ez da zinema saiorik izango eta hurrengoa uztailaren 21ean emango dute.

> JAIAK Herri afarirako lehentasuna izango dute iaz izena eman zutenek

Herri afaria izango da jaietako zapatuau Zurrategin. Iaz afaria iragarri zuten, baina arazo batzuk tarteko ez zen uste bezala irten; beraz, aurtengo afariko txartelak eskuratzeko orduan lehentasuna izango dute iaz izena eman zutenek. Gainontzeko txartelak salgai ipintzen dituztenean jakinazko diete herritarrei.

OKINDEGIA
GOXOTEGIA
DAZTAKETA
KROISSANTEGIA

ONDO PASAU
JAIXETAN!

ALTZARTE

lleapaindegia
Edertze
aretoa

Laser bidezko depilazioa.

Informa zaitez!
Sagasti 1 • 943 78 71 37 • ANTZUOLA

Ondo pasau jaixak!

Itzar
LIBURU DENDA ESTANKOA
ZORIONAK!

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tf. 943 76 60 62

Ongi etorri
J A T E T X E A

- Eguneko menua
- Karta
- Plater konbinatuak

Zatoz jaietan geurera!

Bustinzuri 5 Tel.: 943 76 63 49

Kalebarren janari-denda

Goretti eta Amaiak
jai zoriontsuak
opa dizkizuete
herritar guztoio!

Kalebarren 11 ANTZUOLA Tel.: 649 662 791 / 675 701 347

LARREA
TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

JAIAK > BALORAZIOA

Herritarren parte-hartzea azpimarratu dute antolatzaileek

Jaien balorazioaren gaineko batzarra uztailaren 12an egingo dute 21:30ean udaletxean

Zapatua izan zen egunik arrakastatsuena, asto karrera, paella jan, zezenketa eta danborradarekin

IRATI AGIRREAZALDEGI > ELGETA
Azoka Nagusiko jaiak asteburuaren igaro eta bihamaruna pasateaz bat balorazioa egiteko ordua heldu da. Uztailaren 12rako antolatu dute horretarako batzarra, 21:30ean izango da udaletxean.

Bilera egin aurretik, ordea, Jai batzordeko buru Izaskun Larreak jaiak nola joan diren azaldu digu. Eguena herritarren eguna izanik giro polita egon zela esan digu eta herri afarian 80 lagun inguru elkartu zirela. "Elgetan ez ezik inguruko beste herri batzuetan ere jaiak dira eta badi-rudi nor bere herriko jaietan geratzen dela; kanpotik gero eta jende gutxiago etortzen da".

Egubakoitzean omenaldia oso ongi atera zela esan digu, eta erretiratua gustura geratu ziren baziariarekin. Umeen play-back lehiaketan, berriz, zapzi taldekin giro polita ipini zuten. "Pena dau-kagu dantza lehiaketara ez zela-ko bikoterik aurkeztu".

HERRITAREN PARTE-HARTZEA
Zapatua "egun arrakastatsuua" izan zela esan digu Larreak. "Asto karrera, paella jana, zezenketa eta danborrada. Herritarren parte-

hartza azpimarratuko nuke". Aralarkoek ere herritarren parte-hartzea nabarmendu dute: "Aralartik eskertu nahi dugu askok eta askok egin duten lana

eta ahalegina. Zoriondu nahi ditugu ahalegin horregatik eta animatu herritarrok parte hartuko dugun jaien alde lanean jarraitzen eta Jai batzordean parte hartzera".

Domekan, pilotu partiduek eta azokak jende asko erakarri zuten Elgetara, eta, iaz ez bezala, jaien amaierako antzerkia ere egin ahal izan zen.

Orain, hurrengo urteetarako nolako jaiak nahi dituzten pentsatu beharko dute elgetarrek.



BARRASKILOAK Barikuko desfilean animaliak izan ziren nagusi. AINHOA UGALDEA



MUSEOA Eraikina Mendi Museoa egiteko erabili nahi dute. I.A.

HIRIGINTZA > PATRONATO ITURBE

Hesiak ipini dituzte eskola zaharra babesteko

Leihotako kristalak apurtu egin dira, eta arriskutsua izan daiteke umeendako

I.A. > ELGETA

Patronato Iturbe eraikinera gerturatu direnak hesiz inguratu dutela ikusi dute. Hori egiteko arrazoia da eraikina gero eta egoera kaxkarragoan dagoela, eta, herri eskolaren aldamean egonik, arriskutsu gerta daitetikela umeendako. "Leihotako kristalak apurtu egin dira eta ezer larririk geratu baino lehen erabaki dugu egokiena dela hesiak jartzea. Eraikina bera gotzaindegiarena da, baina Udalak erabiltzen du orain biltagi modura", esan digu Patxi Basauri alkateak.

Guztira 30 hesi ipini dituzte eta kostua 1.508 euro izan da Udalaren dako.

MUSEOA ORAINDIK AZTERGAI

Patronato Iturbe eraikinean Mendi Museoa egiteko ideia aspaldikoa da, baina oraindi ez dago ezer ziur.

Alkateak jakinarazi digunez, "Mendi Federazioak eta Udalak irailetik aurrera zenbait gestio egin nahi dituzte eta horretarako pertsona baten bila dabil Udalak. Aurreproiektua gertu dago, eta horretan oinarrituta erakunde eta enprese-rrata jo nahi dugu proiektu hori diruz lagundu nahi duten jikitako. Erantzuna nolakoa den ikusita erabakiko dugu Mendi Museoaren asmoarekin aurre-rra egin ala ez, baina oraingoz ez dago ezer erabakita".

GARRAOA > AUTOBUS ZERBITZU BEREZIA

Ordutegi aldaketa autobusean uztailerako

Abuztuan ez da zerbitzurik izango eta irailean kaleratuko dute ikasturte berrirako ordutegia

I.A. > ELGETA

Garraio zerbitzu bereziaren ordutegia aldatu egin dute uztailerako. Hilaren 28ra arte astegunetan emango dute zerbitzua eta abuz-

tuan ez da autobusik izango. Arrasaterako zerbitzua kendu egin dute. Gurpildun aulkidunek zerbitzua erabiltzeko, aurrez deitu behar dute 690 90 02 38 zenbakira.

Ordutegia

| | |
|----------------|-------|
| Elgeta-Bergara | 07:40 |
| Bergara-Elgeta | 11:30 |
| Elgeta-Bergara | 11:45 |
| Bergara-Elgeta | 13:15 |
| Elgeta-Bergara | 13:30 |

*marcin
okindegia*

Langela: Kalebarren 4
Saltokia: Herriko plaza
943 76 64 35

ANTZUOLA

Jai zoriontsuak
antzular guztioi!

Arin Jatetxea

Karta • Plater konbinatuak
Ogitartekoak • Pintxoak

Etxeko berezitasuna:

Buztana eta txuleta (zaharrarena).
Enkarguak ere hartzen ditugu.

Astelehenetan itxita

Jai zoriontsuak guztioi!

Kalebarren 7. Tel.: 943 78 62 45 ANTZUOLA

Tomas Gezalaga

**Zoruen kutxilatu
eta
bernitzea**

Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR

taberna eta
gozategia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

Tomas Gezalaga

Apaintetarako eta
industriarako pinturak

Paper margotuak

Moketak eta tapizatuak

Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA



Joan den egunean agur-bazkaria egin zieten eskolakoek Txaro Agirre, Tina Gabikaldekoa eta Esther Robles . ESKOLA

Tina Gabikaldekoa > San Martin Eskolan andereño, 29 urtez

"Errepidea da, azken batean, hemendik Gernikara mugitzera motibatu nauen arrazoia"

UBANE MADERA > ARAMAIO
Malkoak ikusten gabilta sari samar San Martin Eskolan aurten. Margaritukaldariari agur esan behar izan zioten lehenengo eta orain, Tina Gabikaldekoa, Esther Robles eta Txaro Agirre andereñoak agurtu behar izan dituzte. Eta malkoak ikusi ditugu haien begietan. Kontatu ere, kontatu digu gogorra dela Aramaio uztea. Tina Gabikaldekoarekin jardun dugu horren gainean. Nabarniztarrada hura (Gernikatik gertu) eta 1977a ezkerro da Aramaiko irakasle. Ikastolaren hasieretan etorri zen eta orain, Busturiako escola batera joango da:

Zela iritsi zinen Gernikatik Aramaiora?

Bada begira, kasualitatez. Emakumea izanda, sukaldean ikasi beharra neukan. Eta taberna batera joan nintzen horretarako. Baina han zegoen Txaro Agirre (andereñoa, Aramaion) eta hark esan zidan berak lan egiten zuen lekuaren behar zutela euskaraz zekien langile bat. Halaxe etorri nintzen.

Askorik galdetzea ez bada, horrenbeste urteren ostean zergatik zoaz Aramaiotik?

Hasieran Gernikatik lau lagun etortzen ginen; hemen bizi ginen, ezkondu aurretek. Gero, Txaro eta biok Gernikara egunero joan-etorria egiten hasi ginen. Eta errepidea da, azken batean, hemendik Gernikara mugitzera motibatu nauena. Adibidez, Autzagane eta Kanpanzar mendateak pasatu behar ditugu, negu aldean izotza egoten da... Oso nekagarria da. Begira, Gernikatik Aramaiorako joan-etorrian

daude 108 kilometro, eta hori egunero...

Zu Aramaiora iritsi zinenean, zein egoeratan zegoen orduko Ikastola?

Etorri baino bospasei urte lehenago abiarazi zuten Ikastola. Bigarren edo hirugarren mailara arteko ikasleak zeuden; 3-4 urtekoak, esaterako, batera zebiltzan, gela berean. Diputazioak gertatutako materiala erabiltzen genuen eta orain zaharren egoitza dagoen lekuaren (kultura etxean) zegoen Ikastola. Baina lokal falta genuen, geroago eta ikasle gehiago zeudelako Ikastolan; eta goiko eskolari (publikoari, gaur egun San Martin Eskola dagoen lekuaren zegoenari) gertatzen zitzzion, berriz, kontrakoak: euren matrikulazioa beherantz eta lokalko soberan.

Horrenbestez, bateratu egin ginen, baina eraikinari zegokionez bakarrik. Hau da, pertsonala zuen bakoitzak berea: publikoko langileek zeukaten euren nomina eta guk gurea, Diputazioik jasotzen genuena. 1994ra arte egon ginen nomina desberdinak Eta Ikastolako irakasleok ordutik ditugu puntuak.

"Gernikatik Aramaiorako joan-etorrian daude 108 kilometro"

"Oraindik ez naiz mentalizatu agur esateko; dena den, etorriko naiz bisitan"

Umeak, berriz, batera ipini zitzuzen eta eskolak euskaraz eta gazteleraez, bietara ematen genituen. Ni etorri nintzenean, Eugenio Arrate zen eskolako zuzendari.

Baina eskolak euskaraz eta espainolez ematen hasi arren, apurka-apurka euskara nagusitu zen...

Bai horixe. Eskola *nacionallean* mailak desagertzen joan ziren, herritarren eskaerarik ez zegoelako. Horrez gainera, leku gutxitan moduan Aramaioko Ikastolan lortu zuten gauza oso garrantzitsu bat: eskaini zieten aramaioarrei doan izango zela Ikastola eta gainera, lortu dute hori horrela mantentzea gaur egunera arte.

Belaunaldi batzuk pasa dira zure eskuetatik; zuk ereingo zenuen Gernikako hazia eurengan, baina eurek ere ereingo zuten eurena, ezta?

Bai. Nire ahizpak batzuetan esaten dit: zela esan duzu hori? Eta ni ez naiz konturatzeko zer esan dudan ere. Eta pentsatzeko: *Aramaiko zerbaite esango nukeen...*

Zela esaten zaio agur horrenbeste urteko bizimoduari?

Egia esan, oraindik ez naiz mentalizatu agur esateko. Dena den, libre daukagun egunetan ni etorriko naiz bisita egitera, duda barik.

Zerbait gehiago esan nahi baduzu...

Nahiko nuke guztiei eskerrak eman.

ARRANTZA LEHIAKETA

Bihar da hitzordua, 09:00etatik 13:00ak arte

Errekak ur gutxitxo eramateak zaildu egingo du amuarrainak hartza

U.M. > ARAMAIO
Bihar, zapata, arrantza lehiaketan parte hartu nahi duenak 09:00etan Bizente Goikoetxea plazan azaltzearekin nahikoa dauka. Han izena eman eta erreka joateko gertu egongo da, ahalik eta amuarrain gehien harrapatzetan ahalegintzera. Izan ere, Oilogor Ehiza eta Arrantza Elkarteak 70 kilo inguru amuarrain enkargatu ditu Santa Kurutze Kanpezun, lehiaketarako. Hala jakinaz digu Oilogor elkarteko kide Eduardo Fernandezek.

Amuarrainok Salazan baserriaren eta Goiko Errötaren arteko erreka zatian askatuko dituzte gaur gauean eta hortxe jardun beharko dute ume, gazte eta nagusiek kanaberarekin zein baino zein abilago.

Gomendio modura, Fernandezek esan digu komeni dela ume txikienak gurasoek lagunduta joatea. Dena den, gaineratu digu, jeneralean halaxe egiten dutela.

13:00etan, berriz, bukatuko da lehiaketa eta orduantxe egingo dute sari banaketa: lau garaikur eta arrantzarako materiala dute lehiakideen artean banatzeko.

LEHIAKETA BAINO GEHIAGO
IX. aldiz antolatu du arrantza lehiaketa Oilogor Ehiza eta Arrantza Elkarteak. "Dagoneko tradizioa da lehiaketa hori" esan digu, Eduardo Fernandezek.

Eta ohi moduan, gaineratu digu lehiaketa izena izan arren, biharko ekitaldia gehiago dela entretenimendua, eta horregatik garrantzi tsuena dela parte hartza.

> ZERGAK

Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineke zerga ordaindu behar da datorren astea baino lehen

Udalak jakinarazi digunez, trakzio mekanikodun ibilgailuen zerga ordaintzeko borondatezko epea datorren eguztenean, uztailaren 12an, bukatuko da. Hala, bada egun hori baino lehen ordaindu ezean, gainkarguarekin kobratuko du Udalak zerga hori. Banderetan helbideratuta duten bizilagunei, berriz, joan zen ekainaren 21ean kobratu zieten.

Bestalde, Udaletik jakinarazi digute, baita ere, Aramaiko 50 edadetuk eman dutela izena Adineko Pertsonen IX. Topaketan parte hartzeko. Hitzordua gaur da, barikua. Goizean Aramaiotik aterako dira, eta besteak beste, Varona dorrea bisitatuko dute, Kuartangoko antzinako bainuetxeen meza entzungo dute.

bere ustez



Lierni Altuna

Euskeran inguruko inkoherentziak

Munduen, Euskal Herrixen, Araban, Aramaixon, gauza asko inkoherentiek pentsetan jat eta min emuten duzkie. Ez dot uste inor baino gehixau nazenik, ta neu be inkoherentzia horreitan jausten naz.

Gure euskeran inguru be, zenbat inkoherentzia dazen: nagusiek umiei euskeraz berba itxetzie, baino gero euren artien erderaz, zegaitxik?

Umiei euskerie transmititu itxen jatzie, erakutsi,

"Euskerie euskaldun itxen gaitxuna da, eta ez museoko pieza bat, ibili deigun!"

eta ikesi be ingo daue, baino umiek nagusieki imitantzie eta honeik euren artien ez bidaue itxen euskeraz, ba umiek gero...

Gainea zenbat pertsona, bizitza osuen euskeraz euren artien in ostien, erderaz berbaitxera pasau dan? Euskeraz umiek eta gero edade batetik aurrea erderaz?

Ohitxurak, konscienteki itxen ez douen gauzak, baine konturau ezkerro, mundu honetako dinamika azkar eta apurtzailek urten ezkerro, ebitau biherko zien inkoherentziak.

Fragak esan zauenan kontra, euskerie euskaldun itxen gaitxuna da, eta ez museoko pieza bat, ibili dei gun, beraz!

UDALEKUAK > ASTELEHENETIK HILAREN 21ERA

Astelehenean hasita, 18 ume elkartuko dira udalekuetan

Herriko gaztetxoen artean jokatzeko I. Pilota Txapelketa antolatu dute, eta gaur izango dira partiduak, 18:30ean

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA Debagoieneko gainerako herrietan bezala Gatzagan ere egiten dituzte udalekuak. Astelehenean hasi eta hilaren 21era bitartean

ibilikiko dira 18 ume eta gazte, hiru begirale lagun dituztela.

GAZTAINUZKETARA

Azken asteetan ludotekako hezitzailea izan den Itsaso Pagoaga eta beste bi lagun izango dira udalekuen arduradun. Arratsaldean elkartuko dira, 16:00etatik 19:00etara bitartean, eta urtero egitaraua jarraituko dute, moldaketa batzuk eginda. "Badi-tugu ekitaldi batzuk urtero egin izan ditugunak, Gamarrako igerilekura eta zaldian ibiltzera joan, eta aurten ere egingo ditugu", dio

Edorta Arana Gureleko kideak. Hala, San Fermin eguna ere ospatuko dute entzierroa eginda. Uztailaren 12an, eguztena, bestalde, Gaztainuzketara joango dira gaua pasatzera.

PILOTA TXAPELKETA

Udalekuak hasi baino lehen, gaur arratsaldean, Leintz Gatzagako I. Pilota Txapelketa egingo dute. Herriko 10 mutikok hartuko dute parte, eta guztiek jasoko dute saria. Gainera, Martinez de Irujok eta Aimar Olaizolak sinatu-tako pilotak zozketatuko dituzte.



SAN FERMIN Urtero moduan entzierroa egingo dute udalekuetan.

GOIENKARIA



Saskibaloian jokatzeko tokia pilotalekuuan

Joan zen zapatuan jarri zuten saskia pilotalekuuan, eta aste guztian ibili dira herriko neska-mutikoak saskibaloian jokatzen; gustura ibili ere. Hasieran San Migel plazan jartzeko asmoa bazuen ere Jon Sasiain zinegotziak, azkenean pilotaleku barruan jarri zuen, toki egokiagoa delakoan. Hala, Gatzagako ume eta gaztetxoek beste entretenigarri bat izango dute. Aurrekontuak agintzen du halakoetan, baina dirua egonez gero Sasiain zinegotziak jolaserako beste zerbaite ere jarri gurako luke.

KULTURA > JAIAK GERTATZEN

Kultura Saila hasi da iraileko Andramari jaietako egitaraua gertatzen

Herri afaria eta pilota partiduak iaz bezala, baina berrikuntzak ere egingo dituzte; mendi bizikleta zeharkaldia, esate baterako

berrikuntzak ere egongo dira aurtengo jaietan. Irailaren 8an, Andramari egunean, ez da aldatetik egingo; meza eta otxandioarrei ongietorria izango dira eguneko ekitaldi nagusiak. Rock kontzertua ere egongo da, eta herriko gazteak dabilta zein talde ekarri antolatzen.

Irailaren 9a, zapatua, ume-en eguna izango da, eta gaue-rako herri afaria antolatuko dute. "132 lagun elkartu ginen iaz eta oso giro polita sortu zen; hortaz, errepikatzeko asmoa daukagu", dio Jon Sasiain zine-gotziak. Eta domeka, irailak 10, kirolari eskainitako eguna izango da. Urrian egin izan den mendi bizikleta zeharkaldia egingo dute, eta pilota partiduak egongo dira.

M.A. > LEINTZ GATZAGA

Irailaren 7tik 10era ospatuko ditugu Andramari jaiak, eta abuztua bitartean Kultura Sa-lak lotuta utzi gura ditu ekitaldiak oporrak hartu aurretik.


MENDI BIZIKLETA ZEHARKALDIA
Iaz arrakasta izan zuten ekitaldiak errepikatzeko asmoa daukate Kultura Sailean, baina

Uztailaren 10a:
094 zozketa

ASTELEHENKO GOIENKARIA
Harpidedunen
txokoa

093 zozketako sari-dunak

Bi gonbidapen Donostiako AQUARIUMa bisitatzeko. (Sari-dun bakoitzari bi emango zaizkio).
• Angel Inda Bergaretxe (Arrasate)
• Lorea Zubizarreta Iregi (Eskoriatza)



094 zozketako sariak



Sariak astero!

Astelehenean, uztailaren 10a sari hauek izen-abizenak izango dituzte.
Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleetako bat!

Baldintzak

- Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:
902 36 38 51
09:00etatik 18:30era.

Harpidetza kuota:
24 euro
2006 bukaera arte

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa



Amaia Zabaleta, Juan Luis Etxaniz eta Esther Diaz, Alemaniako zale batzuekin Frankfurten.



Andrea Magistrali italiarra.



Yani Bortolotto argentinarra.

FUTBOLA > ALEMANIAKO MUNDIALA

Mundiala: futbol-zaleen gozamenak eta penak



X. URTZELAI/E. MENDIBIL > BERGARA

Domekan bukatuko da Alemaniako mundiala, azken asteotan mundu osoko futbol-zaleak batu dituen txapelketa. Oraingoan ere guztiz arrakastatsua gertatu da mundiala, piztu duen ikusminari erreparatzen badiogu behinik behin. Telebista audientzia bikainak izan dituzte partiduek eta horrez gain festa handia izan da Alemaniako futbol zelaietan; hango eta hemengo futbol-zaleak elkartu dira han, giro ederrean, gainera. Komunikabide guztiek goraipatu dute antolaketa zein giro bikaina. Jarraitzaile kopuruari begiratuta, Mexikok eta Brasilek eraman dituzte zale gehien Alemaniara, baina bi taldeak bidean geratu dira dagoneko. Joan den ekainaren 9a ezkerro 32 talde izan dira lehian eta Italia eta Frantzia izan dira domekako finalera iritsi direnak.

HEMENGO ZALEEN IKUSPUNTUA
Gehienek txapelketa telebistatik jarraitu badute ere, Debagoieneitik joandako hainbat lagun izan dira Alemanian. Hainbat zalek poz handia eraman dute; beste batzuk, aldiz, penaz geratu dira bidean geratzeagatik....

Juan Luis Etxaniz

BERGARA

"Partidua ikusi ez baina ederto ibili gara Frankfurten; giro bikaina zegoen"

Brasil-Espainia hipotetikoa ikus-teko sarrerak erreserbatuta zeuzkaten Juan Luisek eta bere lagunek. Azkenean Espainiak huts egin eta ez zuten partidua ikus-terik izan, baina asteburu ederra igaro zuten Frankfurten. Amaia Zabaleta Juan Luisen emaztea eta Carlos Sanchez eta Esther Diaz joan ziren Alemaniara. Han Bergarako beste koadrila batekin egin zuten topo; mutilek futbolean egiteko aukera izan zuten zapatuau, aleman koadrila baten kontra: 4-2 euskaldunen alde.

Juan Luisek zera diosku: "Brasil-Frantzia partidua ikustearren 800 euro eskatzen zituzten birsalmentan. Partidua ikusi ez baina ederto ibili gara. Portugaleko Eurokopan izan ginen eta mundiala ere festa handia da. Alemaniak Argentinari irabazi zion egunean festa handia egon zen Frankfurten".

Andrea Magistrali

ITALIARRA, CANDYN DABIL LANEAN

"Txapelketak aurrera egin ahala hobeto jokatu du Italiak"

Bergarako Candy lantegian ari da Andrea Magistrali azken zortzi hilabeteotan. Telebistatik jarraitu du Alemaniako mundiala. Juventuseko zalea, sorpresa ona hartu du Italiako selekzioarekin. "Ez nuen uste hain urrun iritsiko zirenik... Txapelketak aurrera egin ahala hobeto jokatu dute eta Alemaniaren aurka partiduan bikain jokatu zuten, luzapenean batez ere. Mundialeko partidurik onena izan da, zalanztarik ez".

Domekako finalari begira edozer gauza gerta daitekeela dio Andreak: "Azken urteotan Frantziak irabazi digu, 1998ko mundialean eta 2000ko Eurokopan. Baina finaletan ez dago jakiterik. Honelako partiduak azken minutuan erabaki daitezke, bi taldeek jokalari oso onak dituzte eta. Ea mundiala irabazterik dugun... Gauza handia izango litzateke".

Yani Bortolotto

ARGENTINARRA, BERGARAN BIZI DA

"Argentinan kulturaren zatia da futbola, oso barruan daramagu txikitatik"

Argentinalak mundialean jokatzen duen bakoitzean, bere jaioterrian guztia gelditzen dela diosku Yanik. "Argentinan kulturaren zatia da futbola, txikitatik oso barruan daramagu. Normala iruditzen zait hemen mundiala horrenbeste ez bizitza. Hurriko mundiala Argentinan jarraitzea nahi nuke..., edo Hego Afrikan bestela, han jokatuko da eta".

Yanik aitortu digunez, ez da futbol-zale amorratua (Independiente taldearen jarraitzailea da), baina mundialarekin zaletasuna pizten zaio: "Argentinako ereserkia entzutearekin oilo narrua jartzen zait". Faboritoetako bat izan arren, Argentina kanpoan geratu zen final laurdenetan, Alemaniak kanporatuta: "Garaipena eskura izan genuen 1-0ekoarekin, baina taldeak atzera egin zuen eta azkenean penaltietan galdu...". Mundiala Italiak irabaztea nahi du.

Dirk Morenweiser

ALEMANIARRA, ARRASATEN BIZI DA

"Alemaniak munduari erakutsi gura izan dio herri abegitsua dela"

Dirkekin elkartu garenean burumakur ikusi dugu, Alemaniaren kanporaketarekin oraindik penatuta: "Gaur goizean egunkari alemaniarrak irakurtzen ibili naiz, eta ez dute Klinsmannen taldea kritikatzen. Guztiz kontrakoa, Italiaren kontrako partiduan Alemaniak erakutsitako jarreragatik pozik azaldu dira". Izan ere, Italiak ez zirudien Italia: "Luza-penean, batez ere. Lippik jokalari erasokorrrak zelairatu zituen, eta beste askotan ez moduan, Italia ez zen atzean sartu".

Horrekin batera, Alemaniako lagun eta senitartekoek txapelketaren gainean zer esaten duten ere galdu diogu: "Horrelakoetan gertatzen den moduan, futbol zaleak direnak pozik daude, eta futbola atsegin ez dutenak ez horrenbeste. Dena dela, kritika gutxi entzun dira. Akaso, beste kirolen bat izango balitz bai,



Omega Elevator, s.a.

- Igogailuen instalazioa etxebizitza zaharretan
- Gremioen koordinazioa
- Arkitektura-oztopoen kentze lanak

Jundizko industrialdea 29 GASTEIZ
Tel.: 945 29 03 08 / Faxa: 945 29 04 96
omegaelevator@omegaelevator.com

Hemen
GARBIKETAK

Garbiketan profesionalak gara

www.hemen-garbiketak.com

Intxaurtxueta 16 behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 48 45
Fax: 943 71 30 58

ITVRRIETA

Sagardotegia – Erretegia



Ostegunetik igandera zabalik
(gainerako egunetan aurrez deituta)

- Sagardotegiko menu ezberdinak
- Karta
- Kazuelatxoak

Arraga auzoa
605 70 64 51 / 945 44 53 85



Dirk Morenweiser, Alemaniako elastikoarekin.



Rafa Mungia kazetaria.

baina futbola denean...". Txapelketak Alemaniaren dauen garrantziak ere egin digu berba: "Alemaniak munduari erakutsi gura izan dio herri abegitsua dela, atsegina; neurri handi batean, hainbat estereotiporekin apurtu gura izan dute. Horrelako txapelketa erraldoi bat ondo antolatzeko gai direla erakutsi dute, eta horrekin batera, zaleen artean inoiz baino istilu gutxiago izan dira. Alde horretatik, badakit hasieran nazi ideologianun taldeak istiluak sortzen ahalgindu zirela, baina herritarrek berehala isilarazi zituzten".

Amaitzeko datu bat eman digu Dirrek: "Hamburgoko Udalak 60 milioi euro gastatu ditu kaleak girotsen". Pozik egongo da futbola gustuko ez duenak.

Rafa Mungia

ETBKO KIROL KAZETARIA

"Sorpresa gutxi egon da mundialean, betikoak iritsi dira azken fasera"

Domekako finalari begira, Rafa rendako Italia da favoritoa, baina ez luke posturak egingo: "Ikusteko dago finalean Italianak zelan jokatuko duen, erlojuaren kontra emaitza zainduz ala Alemaniaren kontra erakutsitako ausardiaz". Izan ere, Italia guztiak ahotan badago ere, Rafak gogorarazi digu txapelketa zehar ez duela aparteko jokorik egin. Frantziaren gainean ere ezer egin barik bazirudien finalerako sailkatuta zeudela". Kolpea gogorra izaten da gero.

tariak: "Talde beteranoa da, eta faborio ez izateak on egin diola uste dut. Espaniaren kontra jokatutako partidua da adibide garbiena. Talde horrek Espania kangoan utzi zuenean gora egin zuen, moralki oso positiboa izan zen eurendako".

Luis Aragonesen taldearen gainean ere galduen diogu: "Nik uste nuen aurten txapelketa txukunagoa egingo zutela, baina lehiatzen ikasi behar dute. Alde horretatik, talde horri umiltasuna falta zaiola uste dut. Talde txikieku irabazita komunikabideek komeni ez zen zurrumbiloa sortu zuten, zale guztiak murgildu ziren zurrumbilo horretan, eta ezer egin barik bazirudien finalerako sailkatuta zeudela". Kolpea gogorra izaten da gero.

ETA ESPAINIAK, ZER?

Audientzien borrokan, telebista kateek inoiz baino sutsuago egin dute Espaniaren alde

Cuatrok eta La Sextak sekulako borroka izan dute Espaniako partiduak eskaintzerakoan. Audientziak lortu guran, inoiz baino sutsuago egin dute talde "gorria"-ren alde, eta inoiz baino nabarmenagoa izan da espaniar nazionalismoaren aldeko bultzada. Beste behin, espaniar komunikabideek idia baino lehen erosio dute zintzarria; behean adibide onena.



Marca egunkariak, saltzeko helburuarekin, ez du neurria hartu.

Ikus itzazu argazkiak, astero, Asteleheneko Goienkarian!

UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENENKO GOIENKARIA II. LEHIAKETA

Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak

...eta hiru sari bikainetako bat irabazi ahal izango duzu!

Argazki guztiak fotoblog honetan: www.goiena.net/blogak/argazkiak



Har ezazu parte!

Baldintzak

- Udako argazkiak izan beharko dute: aurtengoak edo beste uda batekoak.
- Inoiz argitaragabeak.
- Koloreetan zein zuri-beltzean.
- Debagoineko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Argazkiak jasotzeko epea zabalik dago 2006ko irailaren 18ra (astelehena) arte.
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (horrela izanez gero, paperean errepruditzeko moduko bereizmen eta kalitatearekin).
- Argazkiak bidali ahal izango dira e postaz argazkiak@goiena.com helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri.
- Arrasate: Saiolan eraikina, Nafarroa etorbidea 2, 20500 Arrasate.
- Arrasate: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate.
- Bergara: Irizar jauregia, Barrenkalea 33, 20570 Bergara.
- Aretxabaleta: Durana 11, 2. solairua, 20550 Aretxabaleta.
- Egoitzara ekartzekotan gutun-azal batean sartuta (egilearen izen eta abizenekin), CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta jpg formatuan.
- Parte-hartziale bakoitzak bidali ahal izango ditu, gehienez ere, 5 argazki.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira: egilearen izen-abizenak eta nondarra den, adina, harremanetarako telefonoa eta argazkiaren deskribapena (noiz eta non ateratakoa den, zer edo nortzuk agertzen diren, eta abar).
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero; azken sorta, irailaren 25eko ASTELEHENENKO GOIENKARIAN.
- Urriaren 2ko ASTELEHENENKO GOIENKARIAN aditzera emango dira irabazleen izenak.
- Argazki asko jasotzen baditugu, ez ditugu guztiak argitaratuko. Aukeraketa egingo dugu argitaratzeko. Baina lehiaketarako argazki guztiak hartuko dira aintzat.
- Epaimahaiak baloratuko ditu: gaia, kalitatea, originaltasuna, momentua, bizitasuna..., besteak beste.
- Jasotako argazkiak ASTELEHENENKO GOIENKARIAREN artxiboan geratuko dira, etorkizunean beste erabilpen bat eman nahi bada, betiere egilea aipatuta.



Sariak

1. saria: Olympus E-500 reflex argazki kamera digitala
Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik.
8 milioi pixel. / Bi objektibo aldagarri: Zuiko digital 14-45 mm eta 40-150 mm. / Flash eta guzti. / 2,5 pulgadako HyperCrystal LCD pantaila.



2. saria: Hoteletan gaua pasatzeko Talon Plan Card txartela.
3. saria: bi pertsonarendako afari/bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

Babeslea:



Laguntzaileak:



ASTELEHENENKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

PILOTA > DEBARROKO TXAPELKETAKO FINALA

Hamabi pilotari, horietako hamar ibarrekoak, domekako finalaren zain

10:30ean hasiko dituzte partiduak, Aretxabaletako Iturrigorri pilotalekuuan. Kadete mailakoen partidua izango da lehena

XABIER URTZELAI > ARETXABALETA Hamabi pilotari, sei bikote, bost herri ordezkatzen. Arrasatek lortu du ordezkaritza zabalena, kadete mailan eta seniorretan finalistak dituelako. Horrekin batera, Aretxabaletako, Antzuolako, Eskoriatzako eta Elgoibarko pilotariak izango dira domeka goizean Aretxabaletan, Debarroko Pilot Txapelketako finalak jokatzeko gertu.

KADETEAK LEHENAK

Domekako lehenengo partiduan Arrasate eta Eskoriatza izango dira nor baino nor gehiago. Hala, pilotari horiek ondo ezagutzen dituzten Mauri Zubillagarekin eta Juan Mari Errastirekin egin dugu berba. Biek esan digute eskoriatzarrak direla faborito: "Kadete mailan, Eskoriatzako Oiartzabal eta Agiriano bigarren urtekoak dira, eta Arrasateko Zubizarreta eta Bolinaga lehenengo urtekoak. Joan den urtean ere Eskoriatzako bikotea finalean



FINAL PAREKATUAK Antolatzaleek uste dute kontrarioek final politak jokatzeko moduko gaitasuna dutela.

GOIENKARIA

izan zen". Kontuz, baina, finalekin, pilotatzaileek bi ardura-dunek ondo dakite-eta, partidu bakarrera jokatuta, edozer gerta daitekeela.

Gazte mailan, berriz, Antzuolako Mendizabal eta Azkarate pilotariak dira fabritoak. Ligaxkan birritan joka-

tu dute finalean aurrean izango dituzten Elgoibarko Atxotegiren eta Arrizabalagaren kontra, eta bietan antzuolarrak izan dira nagusi. Aste barruan Antzuolako pilotarieki Añorgako kontra jokatu dute Oñatiako Plazako Txapelketa barruan. Partidu horretatik ondo erreku-

peratzea izango da lehenengo helburua.

ERRASTI ANAIAK, ETEXAN

Eta seniorretan, Arrasateko Axpeko eta Uribarrenetako Errasti anaien kontra jokatuko dute. Zera esan digu Maurik: "Errasti anaiak ondo ezagutzen

ditugu, bikote gogorra da. Gainera, etxeen jokatuko dute. Arrasateko dagokienez, baina, Axpe oso ondo dabil aurrean. Uribarrenetako sekulako partiduak egin ditu, baina eskuak ez ditu gura moduan. Uribarren serio ibiltzen bida, Arrasatek izango ditu bere aukerak". Horrekin batera, Iturrigorriko pilotalekuaren gainean ere egin du berba: "Sakea seigarren eta zazpigarren koadroen artean sartzen duenak tanto erdi eginda izango du, lurzorua oso labainkor dago-eta".

Ibon eta Unai Errastiren gainean euren aitak, Juan Mari, egin digu berba: "Eurendako zortzigarren finala izango da. Aurreko zazpietik bost irabazi dituzte, eta etxetik kanpo guztiak. Behin bakarrik jokatu dute Aretxabaletan, eta galdu egin zuten, horrenbestez, ez dakit etxeen jokatzea zenbateraino izaten den aldeko". Finalari begira, Juan Mari argi ditu gauzak: "Goian pilotatzen sartzen dituztenek irabaziko dute".

URREZKO IKURRA

Finalak aprobetxatuta, UDAk urrezko ikurra emango die Errasti aita-semeei. Ibonek eta Unaik 10 urte egin dituzte senior mailan, eta Juan Mari 25 urte daramatzatza pilot sailean lanean. Joxe San Migeli ere emango diote urrezko ikurra, Andramari eguneko pilotatzen jaialdian egingo dute hori.

TXIRRINDULARITZA > AMATEUR MAILA

Lehendakari Txapelketako proba domekan Antzuolan

19 eta 20 urteko txirrindulariek 125 kilometroko ibilbidea izango dute domekan

Lasterketa 12:40ak aldera amaituko da Antzuolan; aurtengoa, lasterketaren 61. ekitaldia

EDU MENDIBIL

> ANTZUOLA Lehendakari Txapelketarako proba puntuagarria jokatuko da domekan, Antzuolan. 130 txirrindulari inguru izango dira lehian eta tartean hainbat debagoiendar izango dira: Azpiru taldean dihardutenean Unai Arantzabal bergarra, Joseba Itziar oñatiarra, Gurutz Larrea antzuolarra eta Eddy Perez arrasatearra hain zuen ere.

Lasterketa 09.30ean hasiko da eta txirrindulariak 12:40ak aldera iritsiko dira helmugara.

BI MENDATE IBILBIDEAN

19 eta 20 urteko txirrindulariek 125 kilometroko ibilbidea izango dute domekan. Proba, esan bezala, 09:30ean hasiko da Antzuolan. Elorregira (San Prudentzio) joan-erorría egin ondoren, ondoko tokietatik igaroko dira txirrindulariak: Bergara

(10:28), Oñati (10:49), Elorregi (10:58), Bergara (11:07), Deskarga (11:20), Urretxu (11:25), Legazpi (11:30), Oñati (11:45), Bergara (12:03), Angiozar (12:14), Asentzio (12:20), Elgeta (12:23), Bergara (12:56) eta Antzuola (12:41).

Beroa izan daiteke domekako protagonistetako bat. Gogor egin beharko dute lan txirrindulariek. Mendiko saria Deskarga eta Asentzio mendateek erabakiko dute.

Palmaresari dagokionez, izen ezagunak izan dira irabazle Antzuolan: Anton Barrutia (1956), Alvaro Pino (1975), Alberto Leanzibar (1982), David Etxeberrya (1993), istripuan hil zen Ricardo Otxoa (1994), Unai Osa (1995) eta Alberto Martinez (1997). Ikus-teko dago nork hartzen duen Julen Goikoetxea iazko irabazlearen lekukoa.



LEHIA Domekako proban 130 txirrindulari inguru arituko dira.

GOIENKARIA



> OIHANA GARRO
Arte Ederretako ikasketak egin zituen Leioan eta Jauritzako beka baten bitartez irudien gaineko laga egiten da gaur > 50



> BIBLIOPORRAK

Udan irakurtzoko gonbidapena luzatu dute udal liburutegiek > 45

> BEÑARDO KORTABARRIA

Teknopolis saioko zuzendariari elkarritzeta > 52



BILBORA Hedabide askoren aurrean aurkeztu zuen diskoa Oñatiko hirukoteak.

I.B.

Sharon Stoner taldeak diskoa aurkeztu zuen atzo, Bilbon

Bilboko Kafe Antzokian aurkeztu zuten 'Hiru mila bira' izenburu duen diskoa

Disko hori da Danbaka I. Debagoieneko Musika Lehiaketaren sariaren emaitza

IKER BARANDIARAN > BILBO
Denbora dezente itxaron behar izan dugu Oñatiko Sharon Stoner taldearen diskoa kalean ikus-teko. Bainan itxaronaldiak merezi izan du. Hala diogu lanaren emaitza ikusita, eta Oñatiko hirukotea egunetik egunera jasotzen dabilen onesprena ikusita.

Hiru mila bira izena jarri dio te estreinako lanari eta hamai-ka kantuz osatuta dago. Orain dela gutxi Oñatiko taberna baten aurkeztu zuten lagun artean. Atzo, eguna, berri, Bilboko Kafe Antzokian hedabideei zuzendutako prentsurreko egin zuten Gaztelupeko Hotsak eta Goienen laguntzarekin.

Han izan ziren taldeko Iñigo Ibarrondo, Mikel Zarketa eta Egoitz Olalde eta Gaztelupeko eta Goienako ordezkariek.

ZERESAN HANDIA EMAN DU

Sharon Stoner taldeak inurri-lana egiten dihardu, zarata han-dirik egin barik, baina sekulako emaitzak lortuta. 2005eko martxo eta apirila bitartean Arrasateko Shot! grabazio estudioan orain aurkeztu duten diskoa grabatu zuten. Bainan lan hori kaleratzeko esperoan ez dira geldirik egen.

Bilbo Hiria Pop-Rock Lehiaketa-ra aurkeztu eta sailkatu ostean, Euskal Herriko Talde Onenaren Saria eskuratu zuten. Horren ondorioz, nazioartean ospe handia duen Azkena Rock jaialdian esku hartuko dute abuztuaren

bukaera. Hori kontuan hartuta, hedabideek eta musika aldizkari espezializatuek arreta berezia egin diote taldeari eta euren estreinako lanari. Azkena Rocken esku hartuko duen euskal talde bakarrenetarikoa izango da.

LEHIAKETA ABIAN

Danbaka Debagoieneko II. Musika Lehiaketaren aurkezpena, eguztenean

Ezin dugu ahaztu Sharon Stoner musika taldea izan zela Danbaka Debagoieneko I. Musika Lehiaketako irabazlea, 2005eko urtarilaren 14an. Horri esker grabatu zuen diskoa. Lehiaketak oso harrera ona izan zuen eta antolatzaileek -Goiena eta Elgetako Espaloia- erabaki zuten txapelketa hori bi urtean behin egitea.

Datorren eguztenean emango dugu ezagutzena zeintzuk izango diren lehiaketan esku hartzeko baldintzak. Aurreko edizioko eredu jarraituko du, baina aurrera dezakegu beste sari berri bat emango dugula eta emanaldiak urritik urtarilera bitartean egingo direla, iaz bezala, Elgetako Espaloia kafe antzokian. Lehiaketarako grabazioak aurkezteko epea irailean itxiko dugu.

MELODIA HANDIA DUEN STONERRA

Hirukoteak stoner musika egiten du; oinarri erritmiko gogor eta markatuak zein guitarra biziak jorratzen ditu. Bainan, horrez gain, melodiak, leloak eta erritmo alda-ketak ere oso zainduta daude, eta post-hardcoreari, rock gogorra-ri, pop-rockari eta flamencoari keinuak egin dizkiete. Bestalde, kantuak barruan pasaje instrumen-taldeko dezentze sartu dituzten arren, gauari, sexuari, dearbua-ri, heriotzari... abesten diete, basamortu, kosmos eta bestelako irudiekin.

'ASTELEHENENKO GOIENKARIA'-REKIN

Goienak oso erraz jarriko du oñatiarren diskoa eskuratzea. Aste-leheneko Goienkaria-ren harpide-ek 10 euroren truke jasoko dute diskoa, etxearen bertan. Orain har-pidetza egingo dutenei, berri, opari egingo diete diskoa.

Sharon Stoner > Danbakako lehen edizioko irabazleak

"Diskoa kaleratzeari baino garrantzi handiagoa eman diegu zuzenekoei"

IKER BARANDIARAN > BILBO

Bilboko aurkezpena hasi aurretik, lauzpabost galdera erantzun zizki-gun taldeko abeslari eta baxujotzaile Iñigo Ibarrondok.

Zer gertatu da diskoa kalera-tzea hainbeste atzeratzeko? Nekagarria izan da itxarotea?

Diskoetxe batekin erdi ados-tuta geneukan, baina azkenean ez zen posible izan. Dena dela, atzerapenean gure utzikeriak ere izan du zeresana. Zuzenean asko jo dugu, baina diskoaaren kalera-tzeari ez diogu behar besteko denbora eman. Nekagarria izan da, batez ere jende askok galde-tu digulako ea diskoa noiz kale-ratu behar genuen. Hala ere, oso eskertzekoa da jendeak halako interesa erakustea.

Gustura gelditu zarete diskoren emaitzarekin?

Bai, oso gustura. Diseinua ere gogoz egin dugu. Egia esan-da, kantu horiek guretzat erdi-zaharrak dira, baina aldi berean kutunak ere badira.

Taldeak bertsioak jotzeko sor-tu zenuten, eta dagoeneko hainbat epaimahairen ones-penpa jaso duzue. Halakorik espero zenuten?

Ez genuen halako harrerarik espero. Lagun artean jotzeko sortu genuen taldea, eta egia da aurrera egin ahala lan handiagoa egin dugula, baina oso pozik gau-de eta ilusio handia daukagu.

Zein da halako emaitza eta harrera lortzeko bidea?

Garrantzitsuena asko jotzea da. Guk ia egunero entseatzen dugu, egunero gaude lokalean sartuta, eta askotan etxeen ere musika jotzen aritzen gara.



Hainbat musika lehiaketako epaimahaik nabarmendu dute taldearen zuzenekoak zeresan handia ematen duela.

GOIENKARIA

Zuzenekoa zuen alderdi garrantzisuenetako da. Ados zaude?

Bai, hala da. Zuzenekoetan guztia ematen saiatzen gara. Ez da gauza bera gu diskoa edo zuzenean entzutea. Zuzenean energia handia transmititzen dugu. Musikaren bolumenak, adrenalinak, urduritasunak... Horrek guztiak eztanda antzeko bat sortzen du.

"Danbakari esker, hedabideek kasu egin digute eta jotzeko sarritan deitzen digute"

"Taldea lagun artean jotzeko sortu genuen eta halako harrera jasota, ilusio handia daukagu"

Danbaka lehiaketak lagundu dizue ezagutzera ematen? Zer-tan igarri duzue, batez ere?

Diskoaren grabazioa ordain-tzea laguntha handia izan da. Guk baguenen grabatzeko asmoa, baina horrek asko erraztu digu. Horrez gain, hedabideetan gure berri ematen lagundi digu, eta aspaldian igarri dugu jotzeko deitzen digitela. Lehen alderantzikoa zen, gu ibiltzen ginengaztetxetara eta bestelakoetara dei-tzen jo ahal izateko.

Danbakako bigarren ediziora aurkeztuko diren taldeei ema-teko gomendiorik?

Egurra emateko. Zuzenean ahalki eta gehien jotzeko eta ilusioa izateko. Euskal Herrian zirkuitu handia dago horretarako, eta diskoa eduki barik ere leku askotan jo daiteke saiatuz gero.



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



'BIBLIOPORRAK' GIDA Umeek zein irakurle helduek bidaukate non aukeratu.

GOIENKARIA

IRAKURKETA > UDARAKO GOMENDIOAK

'Biblioporrak': udan irakurtzeko gonbita

Urtero bezala, adin guztietako irakurleei zuzendutako gomendioak jaso dituzte 'Biblioporrak' gidan, udako oporrei begira

EDU MENDIBIL > BERGARA

Uda aisiaaldirako eta irakurtzeta rako sasoi aproposa izanik, azken nobedadeak zein harrera bikaina izan duten liburuak proposatzen dituzte udal liburutegiek udarako. Adin guztietako irakurleei zuzendutako gomendioak jaso dituzte *Biblioporrak* gidan. Umeek zein irakurle helduek bidaukate non aukeratu. Gazteendako liburuun artean, *Garmendia eta Fannypren sekretua* (Kirmen Uribe), *Gogoa lege* (Manu Lopez) edo *Monstruo de ojos verdes* daude aukeran; helduendako gomendioetako batzuk, *Amaren eskuak* (Karme-

le Jaio), *Hauts bihurtu zineten* (Juan Kruz Igerabide), *Brooklyn eroikeriak* (Paul Auster), *Mi querida Eva* (Gustavo Martin Garzo), *La linea de la belleza* (Hollinghurst) edo *Ero hiria* (Javi Cillero) dituzue.

IKUS-ENTZUNEKOAK BAITA

Ikus-entzunezkoendako tarteak ere badago: besteak beste, Potemkin oñatiarraren diskoa, *Wallace&Gromit: La maldición de las verduras*, *La novia cadáver* eta *Sin City* filmak edo Craig Daviden (*The story goes*) eta Belle & Sebastianen (*The life pursuit*) diskoka gomendatzenten dituzte.

ORDUTEGI BEREZIA UDAN

Kasu gehienetan udal liburutegiek ordutegi berezia daukate udan: abuztuan, Aramaikoa eta Oñatiko itxita izango dira; Aretxabaletakoab abuztuaren 7tik 27ra eta Bergarakoa 14tik 20ra itxiko dituzte eta Arrasaten irailaren 11ra bitartean aste barruan izango da zabalk, goizez. Azkenik, Eskoriatzako uztailaren 31tik abuztuaren 27ra itxiko dute.

24.600 BAZKIDE IBARREAN

Bergarako Udal Liburutegiak emandako datuen arabera, nagusiki 12-13 urteko gaztetxoek eta helduek jotzen dute liburutegira udan. Bestalde, 24.600 bazkide inguru dira gaur Debagoieneko udal liburutegietan. Txartel bateratua egiteko zuen herriko liburutegira joan eta eskaera bete baino ez daukazue.

pe de Estado taldeetan ari dira eta talde paraleloa litzateke Los Chuloputas. 70eko eta 80ko hamarkadetako punk rocka eta rock&roll *zikina* egiten dute. Kontzerturako sarrerak, 5 eurotan salgai.

RAFA RUEDA ETA ZURA BERGARAN

Bergaran, beriz, bi kontzerto iragarri dituzte aste bukaerako: *Udako gauak* programazioaren barruan, Rafa Ruedaren doaneko emanaldia gaur gaeane Espoloian, 22:30ean. *Saredun eskua* bere bakarkako bigarren diskoa aurkeztuko du Mungiako kantariak. Eta bihar, gaztetxeen, Hondarribiko Zura taldearen kontzertua izango da, 22:30ean. Xabi Strubell (gitarra eta ahotsa), Martxel Mariskal (ahotsa), Davis Martinez (gitarra), Iñigo Telletxea (baxua) eta Diego Garcia (bateria) dira Zurako kideak. Sarrerak 3 eurotan jarriko dituzte salgai.

MUSIKA > GAZTELEKUAN

Sexty Sexers, Monky Day eta Los Chuloputas Oñatin

Bergaran Rafa Ruedaren emanaldia gaur, Espoloian, eta Hondarribiako Zura taldea gaztetxean, zapatuau

E.M. > OÑATI

Sexty Sexers, Monky Day eta Los Chuloputas taldeen kontzertua izango da bihar, zapataua, Oñatiko gaztelekuau, 22:30ean. Sexty Sexers nafarrak dira, Berakoak, eta zuzeneko indartsua daukate: 60ko eta 70eko hamarkadetako soinu gogorra da euren marka. Monky Day taldea Kataluniatik dator eta Los Chuloputas Oñatikoak dira. Lauren eta Egaña (gitarrak), Txirli (baxua), Igor (ahotsa) eta Mikelek (bateria) osatzen dute taldea. Show Business, Pasmaticos eta Gol-



LOS CHULOPUTAS Oñatiarrek gaztelekuau joko dute bihar.

MIKEL AGIRRE

KIA
KIA MOTORS



KIA SORENTO
%14rainoko DESKONTUA

Ezagutu ezazu!



KIA CARNIVAL
%16rainoko DESKONTUA



KIA SPORTAGE
%10rainoko DESKONTUA

Tecnocar

Honda eta Kia banatziale ofiziala



TECNOCAR GIPUZKOA
Erakusketa eta tailerra
Araba etorbidea z/g – Arrasate
943 79 22 67 Faxa: 943 71 27 38
Adi!
0 km eta 2. eskuko autoen sekulako aukerak
HONDA CIVIC 5 ate CTDI (04)
HONDA ACCORD Tourer CTDI (04)
FORD MONDEO 5 ate 1.8 (2000)
RENAULT LAGUNA 2.2 DCI (03)
SEAT LEON TDI (04)

HONDA
The Power of Dreams

Eta orain,
nabigatzalea
oparitzen dizugu!

HONDA CRV
Diesela i CTDI
26.900 eurotik
aurrera*



HONDA CIVIC BERRIA
17.700 eurotik aurrera*



HONDA ACCORD BERRIA
22.400 eurotik aurrera*

*Prever plana barne.

ETXEBIZITZAK SALGAI
Bergara:
 • Dúplexa. Masterreka, 180 m².
 • Dúplexa. Ortuñar. Oso ondo.
 • Sukia eraikuntza. Prezio oso ona.
 • Masterreka 92 m². Oso ondo.
 • Bidekerutzeta 55 m². Berriatua.
 • Koldo Eleizalde 87 m². Ondo.
 • K. Eleizalde 90 m² + telatu azpia.
 • Ibaragarai 118 m². Oso ondo.
 • Zabalogei 50 m². Oso ondo.
 • I. Aranzadi 140 m². Oso ondo.
 • Ibaragarai 109 m². Oso ondo.
 • Bidekerutzeta 60 m². Oso ondo.
 • Aranerreka 75 m². Oso ondo.
 • Zubiaurre 60 m². Oso ondo.
 • Matxiategi 80 m². Ondo.
 • Madura 51 m². Berriatua.
 • Zubiaurre 71 m². Oso ondo.
 • Zubiaurre 71 m². Erdi berriatua.
 • Artekale 74 m². Ondo.
 • Angiozi bi solairu ebea. Berriatza.
 • Masterreka 87 m². Oso ondo.
 • Ibaragarai 80 m². Ondo.
 • Fraiskozet 102. Ondo.
 • Arizkun 97 m². Oso ondo.
 • Zubiaurre 62 m². Ondo.
 • San Lorenzo 18 etxebizitza berri.
 • Garajea eta trasteroak.
Antzuola:
 • Elkarren ondoan erakikako 8 txleak salgai. Hiru solairu, eguzkitusua, sarbide ona, garajea, txoko eta terraza.
 • Aukera ona.
 • Sagasti 90 m². Prezio ona.

Tel: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37
Zarugade 1 Arrasate
T: 943 77 13 02 F: 943 73 12 40

BERGARA:
 • Ibaragarai 118 m². Oso ondo.
 • Bidekerutzeta, 60 m². Ondo.
 • Koldo Eleizalde 87 m². Ondo.
 • Aranerreka 75 m². Oso ondo.
 • Zubiaurre 60 m². Oso ondo.
 • Matxiategi 80 m². Ondo.
 • Madura 51 m². Berriatua.
 • Zubiaurre 71 m². Oso ondo.
 • Zubiaurre 71 m². Erdi berriatua.
 • Artekale 74 m². Ondo.
 • Angiozi bi solairu ebea. Berriatza.
 • Masterreka 87 m². Oso ondo.
 • Ibaragarai 80 m². Ondo.
 • Fraiskozet 102. Ondo.
 • Arizkun 97 m². Oso ondo.
 • Zubiaurre 62 m². Ondo.
 • San Lorenzo 18 etxebizitza berri.
 • Garajea eta trasteroak.
ANTZUOLA:
 • Duplex berria erdiak.
 • Sagasti 71 m². Ondo.

1/ ETXEBIZITZAK**101. SALDU**

Antzuola. Duplexa salgai. Eraikuntza berria. Garaje handia. 666 72 47 12.

Antzuola. Etxea salgai Sagasti auzoan. 90 m². Terraza eta balkoarekin. Garaje itxia aukeran. 607 63 48 88.

Antzuola. Etxebizitza ia berria. 90 m². Hiru gela, egonela-jan-gela, sukaldlea, bi bainugela, hala, despentsa eta bi balkoi. Trasteleku. Erdi-jantzia. Eguzkitsua. 655 70 97 43.

Aretxabaleta. Etxebizitza txiki salgai. 19-00etefatik aurrera deitu. 677 78 37 72.

Arrasate. Doneztebe Portuko kalean. 69 m². Bi logela, egonela, sukaldea eta bainugela. Bi soto. Arratsaldez deitu. 652 77 87 71.

Bergara. Bidekurutzenetxebizitza saltzen da; bi logela, komuna, sukaldlea eta egongela. 60 metro koadro ditu eta altzariekin utziko dugu. Eguzkitsua da eta bista ederrak ditu. Prezio integrergaria. 647 64 86 74.

Bergara. Etxebizitza salgai Koldo Eleizalde: hiru logela, bi bainugela, berogailua, garajea eta trasteroak. Eguzkitsua eta bista ederrak ditu. 943 76 27 68 edo 655 72 04 12.

Bergara. Simon Arrieta. 80 metro koadro. Bi gela. Igogailua. Berogailua. Balkoi handia. Bizitzera sartzeko moduan. Garajea aukeran. 664734960.

Eskoriatza. Santa Ana auzoan etxebizitza salgai. Hiru logela, sukaldlea, egongela eta bi komun. 90 m². 686 21 02 23.

Oñati. 88 m². Oso toki egokian dago. Hiru logela ditu, sukaldea, egongela, bi bainugela eta tras-teleku. 1991ko eraikina. 646 20 42 94.

Oñati. Duplexa. Erdigunean. Berria, estreinatzeko. Kanpoko terraza du. 627 21 87 49.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Ikaileentzat etxebizitza errentan ematen da. San Andres auzoan. 3 logela. Tel. 679 92 41.

Baztan. Uztail eta abuztuko ematen da errentan. 636 49 46 87.

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

3. LOKALAK

301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

7. ANIMALIAK

701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

9. HARREMANAK

901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

2. GARAJEAK

201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

4. LANA

401. ESKAINTEZAK
402. ESKAERAK
403. ERRENTAN EMAN
404. ERRENTAN HARTU
405. BESTELAKOAK

6. MOTORRA

601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
604. KONPONDU
605. BESTELAKOAK

8. DENETARIK

801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

10. RELAX

901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarri ditugu.

943 25 05 01

sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIKA DOAN JARRIKO DITU. GAINERAKOAK, 16 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.

GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitekeen operazioen erantzukizunik.

ARRASATE

Plazan dagoen Zuk Nahi taberna alokatzen da.

**618 76 34 40
605 76 08 29**

Zumaia. Estreinatzeko 80 m²-ko etxebizitza berria. 943 01 93 46 edo 606 56 47 14.

Loredo (Kantabria). Bi logela ditu eta hondartzatik 400 metro koadro ditu eta altzariekin utziko dugu. Eguzkitsua da eta bista ederrak ditu. 679 35 29 70.

Noja. Duplex polita hondartzan. Itsasora begira. Hamabostaldiak edo hilabete osoak. 944 61 43 78 edo 696 90 94 43.

Peñíscola. Apartamentua errentan uztalean eta irailean. Hondartzatik gertu. Aparakeku eta igerileku eta tenis pisteak. 665 73 65 65.

Arrasate edo Aretxabaletan bikote bat etxebizitza (estudio...) alokatu nahi du irailetitik aurrera. 645 72 58 41.

Arrasate. Neska batek etxe txiki bat edo ganbara bat hartuko luke errentan. 697 86 55 61.

Bergara, Arrasate, Aretxabaleta. Etxebizitza errentan harrutu familia batek. 665 75 52 11.

Bergara. Emakume batek logela bat hartuko luke errentan. 685 72 31 33.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate edo Aretxabaletan bikote bat etxebizitza (estudio...) alokatu nahi du irailetitik aurrera. 645 72 58 41.

Arrasate. Neska batek etxe txiki bat edo ganbara bat hartuko luke errentan. 697 86 55 61.

Bergara, Arrasate, Aretxabaleta. Lagun bat behar dugu etxebizitza osatzeko. Etxebizitza handia eta eguzkitsua da. Eneritz. 645 70 11 03.

Arrasate. Lai logelako etxebizitza bat osatzeko langileak behar dira. 605 77 51 66.

Bergara. Bolun etxea osatzeko lagun bat behar da. Andoni. 605 76 98 97.

Aretxabaleta. Bi garaje eman-

BERGARA

Duplex berria eta garaje itxia salgai.

699 49 14 14

ANTZUOLA

Arin jatetxeen zerbitzaria behar da. Astean bi egun jai.

943 78 62 45

106. BESTELAKOAK

Lekeitio. Logelak alzagai. 665 71 35 20 edo 944 65 07 90.

2/ GARAJEAK**201. SALDU**

Antzuola. Bi autorendakoleku duen garaje itxia salgai Kalegoian. 666 44 10 09.

Aretxabaleta. Garaje itxia salten edo alokatzen dut erdialdean. 685 72 16 52 edo 665 73 40 09.

Eskoriatza. Garajea salgai Intxaurruxeta kalean. 943 71 53 33 edo 616 76 88 35.

Oñati. Garaje itxia salgai San Lorentzo auzoan. 658 75 22 37.

Bergara. Emakume batek logela bat hartuko luke errentan. 697 86 77 52 11.

Arrasate. Garaje itxia salten edo alokatzen dut erdialdean. 685 72 16 52 edo 665 73 40 09.

Antzuola. Trasteleku duen garaje emango nuke errentan. Sagastin dago. 616 03 05 01.

Aretxabaleta. Bi garaje eman-

BERGARA

Avenida tabernan sukaldaria eta aste barrurako eta astebururako zerbitzariak behar dira.

943 76 20 46

659 45 17 27

OÑATI

Etxebizitza salgai. 120 m², altua, argitsua, igogailua, ganbara eta behe-barra. Berrizteko dago. Prezio interesgarria.

658 93 14 80

402. ESKAERAK

Arrasate. Etxekoa etxekoa. 659 74 27 95.

Bergara. Esperientzia eta gomendio-seskutitza daukannek ondoren lan egiteko prest. garibeketa, pertsona, nagusiak eta tali-lerekoei lanak, garibeketa, garibeketari, zerbaitzari, eta jasotzen, baserriran lan egiten eta igeltsero lan egindakoak moduan. 639 42 82 80.

Bergara. Neska gerto jende nagusia zaintzeko. Irailetitik aurrera. 605 77 97 52 08.

Arrasate. Emakume bat behar da goiztan etxeko lanak egiteko. 630 98 08 57.

Arrasate. Umea zaintzeko pertsona nagu-

4/ LANA**401. ESKAINTZ**

hildakoak

- Jose Dobao Castro. Bergaran, ekainaren 14an. 74 urte.
- Mari Carmen Muruamendiaraz Urdaniz. Bergaran, 15ean. 89 urte.
- Jose Manuel Nogueras Alonso. Bergaran, ekainaren 16an. 74 urte.
- Ana Lainez Alcalde. Bergaran, ekainaren 16an. 77 urte.
- Luisa Balantzategi Larrañaga. Arrasaten, ekainaren 23an. 84 urte.
- Fernando Etxaburu Biain. Oñati, ekainaren 24an. 64 urte.
- Lucia Morales Sanchez. Aretxabaletan, ekainaren 24an. 84 urte.
- Juliana Correa Camino. Arrasaten, ekainaren 27an. 66 urte.
- Dolores Fernandez Urbiola. Bergaran, ekainaren 28an. 94 urte.
- Anpalo Bengoa Ezkibel. Aretxabaletan, ekainaren 29an. 84 urte.
- Pedro Maria Iturbe Arenaza. Aretxabaletan, ekainaren 29an. 65 urte.
- Felix Gallastegi Uriarte. Arrasaten, ekainaren 29an. 83 urte.



Arrasateko **Teodoro Zubizarreta** eta Bergarako **Feli Telleria** uztailaren 7an, San Fermín egunez, 50 urte beteko dituzte ezkondua. Zapatuan ospatuko dute meza, bazkari batekin. Zorionak, etxeileen partetik.



Miren Villar eta **Maximo Arantzabal** elgetarrek gaur, uztailaren 7an, bete dituzte 50 urte ezkondua. Asteburuan familiakoekin batera ospatuko dute eguna Elgetan. Jarraitu horrela urte askoan. Familiakoien partetik, zorionak!

ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

943 25 05 01


Eskelaren prezioa: **85 euro**.

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratzu gero, **100 euro**.

Goienkaria: astero, **19.500 etxetan**.



Itziar Garaiurrebaso eta **Juan Carlos Kortazar** eskoriaztarrek uztailaren 4an bete zituzten 25 urte ezkondua. Zilarrezko ezteiak zapatuan ospatuko dituzte, Apotzan, familiakoekin. Zorionak, familiakoien eta Txurris koadrilakoien partetik.



Carlos Mateos arretxabaletarra eta **Julia Tena** arrasatearra uztailaren 8an ezkonduko dira Aretxabaletako Andra Mari elizan. Bazkaia Baster-Aldejatetxeen izango da, eta eztei-bidaian Peru aldeko joango dira. Zorionak eta ongi pasa, etxeileen partetik.

ESKELA

Pedro Mari Iturbe Arenaza

Aretxabaletan hil zen 2006ko ekainaren 29an, 65 urte zituela.

*Aitita,
zeruko izarren artetik
gure egunero zaindari izan zaitezela.*



Aretxabaletan, 2006ko uztailaren 7an.

ESKER ONA

Pedro Mari Iturbe Arenaza

Aretxabaletan hil zen 2006ko ekainaren 29an, 65 urte zituela.

Haren emaztea: Itziar Errasti; seme-alabak: Iraide eta Angel Leceta, Aritz eta Nerea Etxandia; ilobak: Lore eta Maren; eta gainerako senideek:

Eskerrak eman nahi dizkizuegu hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutuenoi.




Aretxabaletan, 2006ko uztailaren 7an.

ESKER ONA

Pedro Mari Iturbe Arenaza

Aretxabaletan hil zen 2006ko ekainaren 29an, 65 urte zituela.

Haren emaztea: Itziar Errasti; Iturbetar anai-arrebak: Mauricio (+) eta Jesusa Urrutia, Agustin eta Irene Arriola, Jacinto eta Josepa Jausoro, Maria Luisa lekamea, Severiano eta Carmen Jausoro, Maritxu eta Isidoro Arrese (+), Espe eta Jesus Mari Arrese, Loli eta Angel Garcia-Etxabe, Paquita eta Carlos Olmedo, Jose Mari eta Lourdes Zubillaga; Errastitar anai-arrebak: Maritxu eta Txomin, Gabina eta Tere, Jose L. eta Pilar, Marielu eta Luis, Juan Mari eta Mari Carmen, Jose Mari (+) eta Juli; eta gainerako senideek:
Eskerrak eman nahi dizkizuegu hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutuenoi.



Aretxabaletan, 2006ko uztailaren 7an.

ESKER ONA

Modesto Pan

Gasteizcn hil zen 2006ko ekainaren 26an, 67 urte zituela.

Aita, eskerrik asko zure bihotzean sartzen lagatzeagatik. Horrela, gehiago ezagutu eta maitatu ahal izan zaitugu. Zure emaztea Estrella eta alabak, Maite eta Virginia.

Egun zail hauetan ondoan egon eta lagundu diguzuen guztioi eskerrik asko sendikoen izanean.



Arrasaten, 2006ko uztailaren 7an.

ESKER ONA

Amparo Bengoa Ezkibel

Manuel Arkauz Elkororen alarguna

Aretxabaletan hil zen 2006ko ekainaren 29an, 84 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutuenoi, eskerrik asko sendikoen izanean.



Aretxabaletan, 2006ko uztailaren 7an.

ESKER ONA

Ixabel Altuna Letamendi

Gasteizcn hil zen 2006ko ekainaren 15ean, 44 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutuenoi, eskerrik asko sendikoen izanean.



Oñatin, 2006ko uztailaren 7an.

ESKER ONA

Ana Lainez Alcalde

Manuel Herreroen alarguna

Mar de Cristalen hil zen 2006ko ekainaren 16an, 77 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutuenoi, eskerrik asko sendikoen izanean.



Bergaran, 2006ko uztailaren 7an.

URTEURRENA

Jose Antonio Gutierrez Igartua

Lehen urteurreneko meza domekan, uztailaren 16an, 09:30ean, Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izanean.

URTEURRENA

Esteban Isasti Gagor

Bigarren urteurreneko meza zapatuan, uztailaren 8an, 19:00etan, Oñatiiko Mikel Goiaingeruaren elizan.

Maitasuna inoiz ez denez itzaltzen, betik gogoan zaitugu.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko emaztearen, seme-alaben eta senide guztien izanean.

bila-bila 7**sudokua**

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 7 | | | | | | | | 8 |
| | 5 | | 3 | | 7 | | | 9 |
| 4 | | | 6 | | 5 | | | 2 |
| | | 9 | 8 | | 4 | 2 | | |
| 8 | | 9 | | 6 | | 3 | | |
| | 4 | 7 | | 2 | 1 | | | |
| 8 | | | 5 | | 1 | | | 3 |
| | 3 | | 4 | | 8 | | 1 | |
| 5 | | | | | | | | 6 |

hitz gezidunak

| | | | | | |
|------------------------|---|----------------|-----|----------------------------|--------|
| Suak harturik | ▼ | IRUDIKO MENDIA | ▼ | Inola ez | ▼ |
| Bizkaiko udalerria | ► | S hirutan | | Iodoa | |
| Errepikatuz, euli mota | ► | | | Elektroia | ► |
| Zorro | | | | Ona | |
| Adia, kexua | ▼ | Tarta txiki | ► ▼ | | |
| Egokiera on | | Geu, guhaur | | | |
| Infin., heldu | ► | | | Euskararen Gaitasun Agiria | ► |
| Gertu | | | | Gaixo | |
| Jakina | ► | | ▼ | Izan | ► ▼ |
| Txokolate-hauts | ► | | | Ukamen | |
| | ► | | | Abantzuz | ► |
| | ► | | | Litroa | ▼ |
| | ► | | | Sobera, gehiegiz | ► |
| | | | | | Ez eme |

GOIENKARIA

hieroglifoak

Hainbat arrakastaren giltza

**hizki salda**

Bost hilabeteren izenak.

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| E | K | A | A | U | Z | T | R | I |
| I | R | A | N | A | T | E | N | D |
| O | A | L | I | A | T | Z | U | N |
| S | L | R | A | U | K | A | I | N |
| K | I | F | K | A | B | E | N | D |
| L | A | B | E | N | D | U | A | O |
| K | S | A | Z | T | A | I | L | A |
| P | T | M | H | T | A | L | R | B |
| K | O | F | I | R | A | I | L | A |

bono fotoa

Kurtzebarritik ateratako argazki honetan Anboto, Tellamendi eta Murugain ageri dira. Zein da Anbototik ezkerretara dagoen mendia?

Argazkia eta galdera > Joxe Felix Diaz de Tuesta

Super BM

Super BMk emandako
50 euroko erosketa-txartela
zozketatuko du GOIENKARIk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONO... .

Ekari txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Golenako edozein egoitzara

Fa bainu-gela

750 ml-ko botila

2,09 € 348 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAIKO IRABAZLEA
EDURNE AGIRIANOrendako izan da erosketa-txartela.
Galderaren erantzun zuzena: Larrugintza.



umore giroan

Kike Amonarriz

Batzuk libre

Andereñoa gelara sartu eta:

- Gaur arratsaldean erleen eta tximeleten sexu portaera aztertuko dugu...

Ikasle batzuen artean konplizitate irriñoak entzun daitezke. Orduan andereñoak:



- Zuen artean dagoeneko larrutan egin dutenak patiora joan daitezke.

Betaurrekoak

Xabier Arzalluz Bilboko optikarik hoberenera sartu da eta adierazi du zer nahi duen:


- Betaurrekoak nahi ditut.
- Eguzkitarako?
- Ez! Euskal Herrian ibiltzeko!

soluzioak



I har duna

jeroglitifika: harraduna



Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK

AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

ETXEERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

ALBAITARIAK

ARATZ KLINIKA (LAZPIUR ROMAN)

Bergara / Zurradero 6, behea / 943 76 70 67 / 607 48 71 19

ETXEERRIA JULIO (DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

ANALISI KLINIKOAK

LABORRA ISABEL

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

IRIGOIEN VICTOR

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

DENTISTAK

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / Zerkaosteta 19, behea / 943 79 71 90

ASTIAZARAN SOLOZABAL

Bergara / Iparragirre 1, behea / 943 76 27 95

BENGOA SAN MIGUEL ANGEL

Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutza 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE IRURETA AÑE MAITE

Arrasate / Iturriozt 7 – 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfonso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

LORENZO MARTIN RAFAEL

Arrasate / Zarugalde 16-1. esk. / 943 77 12 63

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

TRIPALDI ENRIKE

Bergara / Justo Garate 1 / 943 76 70 76

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Munar 10 / 620 124 843

DIETISTAK

ALBERDI MIREIA

Bergara / Masterreka 11, behea / 943 76 33 99 / 646 43 34 58

ENTZUMEN ZENTROAK

GAES

Arrasate / Otalora Lizentziaduna 18 / 943 71 27 93

INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

FISIOTERAPEUTAK

ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA

Arrasate / Garibai etorbidea 6B / 943 77 03 96

ARZAK MIREN

Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71

BASTERRETXEA MARIA

Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71

EKIN FISIOTERAPIA ZENTROA

Aretxabaleta / Belorrieta 6 – 7 / 943 79 95 64

IONE MOÑUX FISIOTERAPIA ZENTROA

Bergara / Burdinatze 2 / 943 76 21 31

NAREN FISIOTERAPIA ZENTROA

Aretxabaleta / Belorrieta 5 / 943 08 21 89

ORMAZABAL FISIOTERAPIA ZENTROA

Bergara / Telleria 6 bis, 11 bulegoa Labagarieta ind. / 943 76 53 35

UNZUETA IRENE. SAN MARTIN OSASUNDEGIA.

Bergara / Ramon Maria Lili 2 / 943 76 59 39

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. esk. / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

ABUIN JOSE LUIS

Arrasate / San Josepe 10, behea D – Kirodegian

943 77 01 33 / 943 77 16 77

ARANTZABAL SAIOLA

Elgeta / Domingo Iturbe 10 / 646 50 00 29

ARANTZETA JUAN MARI

Elgeta / Salbador 28 / 943 76 80 54

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

CASANELLAS JABIER

Bergara / Boni Laskurain 5-2E / 943 76 03 78

ELORTONDO FLOREN

Aretxabaleta / Basabe industrialdea D, z/g / 629 77 85 84

ETXEERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

OPTIKAK

ARRASATE OPTIKA

Arrasate / Kontzezino 6 / 943 79 25 98

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

INSTITUTO OPTICO

Arrasate / Kale Barria 32 / 943 79 71 68

ITZIAR OPTIKA

Oñati / Kale Barria 32 / 943 71 82 88

ITZIAR UGARTE OPTIKA

Arrasate / Arrasate Pasealeku 35-37 / 943 08 26 87

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Arrasate / J. Carlos Guerra 1 / 943 79 29 95

PORTALOI OPTIKA

Arrasate / Erdiko kalea 10 / 943 79 65 56

ORTOPEDIA

ORTO LAGUN

Arrasate / Kontzezino 2 / 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA Nerea

Arrasate / Azoka kalea 4 / 659 58 66 89

ETXEERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

AZPIAZU ARANTZAZU

Bergara / Herri Lagunak z/g / 943 76 41 32

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerlek zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenurreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA ZENTROA

Bergara / Herri lagunak z/g / 943 76 14 80 / 610 05 99 55

ZUBILLAGA ZABALA MARISA

Bergara / Psikologo klinikoa / 943 76 30 76

Oihana Garro > Arte Ederrak ikasitakoak

"EITB Kultura'-k beste bideo ekoizpen bat egiteko baliabideak eman dizkigu"

Oihana Garro arrasatearra orain dela ia hamar urte joan zen Leioara Arte Ederrak ikastera. Ika-

ketak bukatu eta horretan gehiago sakontzeko doktoretza egin zuen. Sasoi baten eskulturak

egin zituen, eta gaur egun, Jauritzako beka baten bitartez irudien gaineko lanake egiten dabil.

Orain dela gutxi, EITB Kultura saioko lehiaketan saria jaso du lagun batekin batera.

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Oihana Garroko osotxikitatik marrazten du, eta zer ikasketa egin aukeratzeko orduan Arte Ederrak hartu zituen. Bilbok harrapatu egin zuen Garro, eta, tarteka Arrasatera joaten den arren, hiriburu hartzan moldatzetan da ondoen.

Zer izan gura zenuen nagusitan?

Ez neukan ezer pentsatuta. Egia esanda, oso txikitatik marraztu dut, eta ez dut sekula utzi, baina ez neki etorkizunean horrekin jarraituko nuenik. Agian bokazioa baino gehiago pertseberantzia izango da.

Formala zinen txikitan? Eta ikasle moduan, zelakoa?

Bai, oso formala. Orain ere halakoa naizela uste dut. Ikaile moduan ez nintzen nabarmenzen, baina egia da aspaldian ikasle hobea izan naizela, motibazio handiagoa izan dudalako-edo.

Eta noiz erabaki zenuen Arte Ederrak egitea?

Lehen aipatu dudan moduan betidanik gustatu zaizkit halako gauzak, baina batxilergoa egiten nenbilela erabaki nuen hori egitea. Izan ere, selektibitatea egiterakoan Arte Ederretara sartzeko notei begira ibili nintzen. Etxean ez zidaten eragozpenik jarri. Neu konforme banengoan, aurrera.

Zer aurkitu zenuen Leioan, espero zenuena?

Ez nuen aurreikuspenik egin, baina ilusio handiarekin joan nintzen: ikasketak egiteko, eta etxetik kanpo bizi izateko. Lagun oso handiak egin nituen eta irakasle oso onak izan ditut. Lehenengo urtean Leioan bizi izan ginen. Horren ostean, Bilbora jo genuen. Sasoi baten esan genezake fakultatean bizi ginela, lan eta lan ibiltzen ginen-eta.

Zein espezialitatea hartu zenuen?

Lehen bazegoen espezialitateetako aukerazterik, baina ni hasi nintzenerako ez. Nik, batez ere, pintura, eskultura eta argazkigintza ikasi nituen. Pinturarekin hasi nintzen, baina hiru dimentsioko lanak egiten hasi nintzen. Eskulturak egiteko egurra, haria eta oihala erabili izan ditut.

Horren ostean, doktoretza egiten ibili zinen?

Bai, Arte Ederrak bukatu ostean konturatu nintzen ez genuela



JOSETXO ARANTZABAL

PERTSONALA

Herría: Arrasate. **Adina:** 26 urte. **Ikasketak:** Arte Ederrak. **Zaletasunak:** Irakurtzea, zinema, lagunekin egoetea... **Gizateriaren aurrerapen handiena?** Hizkuntza. **Inoiz diskriminatuta sentitu zara emakume izateagaitik?** Ez, baina zorte handia dut hemen jaio naizela-

ko. **Inoiz ez duzu ahaztuko...** Gauzak ahaztu egiten direla, eta gogoratzeko ahalegina egin behar dela. **Ibarreko txokorik politena?** Barajuengo Artabe base-riaren atzealdea. **Liburu bat?** John Bergerren *Algunos pasos hacia una pequeña teoría de lo visible*.

askorik sakondu. Horregatik, doktoretza egin nuen. Hori egin eta gero, Jauritzari beka bat eskatu nion eta onartu egin zidaten. Lau urtekoa da eta autobiografia irudien bitartez egitearen gaineko da; hau da, irudiak zelan erabili lantzen dut, eta bideoa erregistro moduan ibiltzen dut. Astean behin Leioara joaten naiz. Bi tutore dauzkat: bata, Leioan; eta bestea, Valentzian. Oraindik bi urte eta erdi gelditzen zait beka bukatu artean, eta gustura nabil.

Orain dela gutxi, EITB Kultura saioak antolatutako lehiaketan zure bideo ekoizpen batek saria jaso du...

Bai, horren berri izan genuen Anot Mintegiak eta biok erabaki genuen esku hartzea, aspalditik genuelako halako zerbaitegiteko gogoa. *Minutu bateko historia* izeneko lana egin genuen, eta minutu baten jazotako hainbat pasarte txiki batu genituen. LANA saritua izan da, eta EITB Kultura saioan eman dute. Horrez gain, halako beste lan bat egiteko dirua eta baliabideak emango dizkigute.

Bilbon ibiltzeaz gain, Grezian, Bartzelonan eta Madrilen ere bizi izan zara.

Bai, Greziara orain dela bost bat urte joan nintzen Erasmusean bitartez. Atenasen izan nintzen, eta, lan handia egin nuen arren, oso esperientzia ona izan zen. Iaz, berriz, Bartzelonara jo nuen lau hilabetez. Han, Filosofiako doktoretza egin nuen. Eta handik Madrilera jo nuen.

Baina hilabete batzuen ostean Bilbora bueltatu zinen. Zer daukazu Bilbon?

Gustura egoten naiz Bilbon. Hamar bat urte daramat han. Hiri batek ematen duen anonimotasunarekin konforme nago, lagun onak ditut, hiriak aukera asko ematen ditu, eta, gainera, Arrasatetik gertu dago.

Eta Arrasate faltan sumatzen duzu?

Leku edo herri moduan ez, baina arrasatear batzuk bai, faltan sumatzen ditut. Hala ere, Bilbon egonda, oso gertu nago.

Zer asmo daukazu orain?

Lehenik eta behin, tesia bukatzeari. Horren ostean, ez dakit zer egin gura dudan. Motibatuko nauen eta gehiago ikasiko dudan lan bat izan gurako nuke. Irakaskuntza ere bada aukera bat.

berriak

> TELEBISTA
Tokiko telebistak aztertai Eibarren eginko ikastaroan

Uztailaren 3an eta 4an egin da Eibarren tokiko telebisten gaineko udako ikastaroa. EHUK eta UEUK bultzatu dute ekimena eta, besteak beste, euskaraz lanean diharduten toki telebisten produktuak ikusteko aukera izan da. Tokiko telebistagintzaren ereduak eta programak aztertu dituzte zenbait aditu, programatzaile, ekoizle eta profesionalek. Goienako ordezkariak ere han izan dira.

> PROGRAMAZIOA
Goiena Telebistako programazioa ez da aldatuko uztailean

Harmailatik, Berbaire, Debarri eta Behazulo saioak ez ditu programazioek kenduko oraingo uztailean Goiena Telebistak. Aurreko urteetan alderatuta, oraingoan ez da programazioan murrizketarik egingo hil horretan.

Gainerako saioak ere mantenduko ditu ibarreko telebistak uztaleko programazioan. Abuztuko etenaren ondoren irailean indarberri-tuta itzuliko da GOITB.

> ARRASATE IRRATIA
Udako eguerdiko albistegia ordzu aldatu dugu

Astean ekin diogu udako programazioari; 107.7ko autobusari atsedean eman eta urrira bitartean *Uda giroan!* saioak hartu du lekukoa.

Asko izango dira goizeko 10etan hasi eta eguerdiko 12ak bitartean aurkituko dituzuen berrikuntzak. Hain artean, magazinaren barruan albistegi bat beharrean bi izango dituzueta; izan ere, eguerdiko albistegia aurrerantzean 11:45ean izango da.

BIDAIAK
Datorren asteko bidaien tartean, Renorako gonbita

Martitzenean Renoraino hurbilduko gaitu Zuriñe Velez de Mendizabal arrasatearrak. Ikasturte honetan han izan da lanean; beraz, ondo baino hobeto ezagutzen ditu AEBe-tako paraje haiet. Horrela, bada, Renorako bidaia antolatu baduzue, Velez de Mendizabalen aholkuak baliagariak izango zaizkizue.

Bihar eta etzi, berriz, Indiaren gaineko aholkuak entzungai, 10:0etan hasita.

'DEBARRI' > EGUAZTENA, 21:47

Rafael Uriarren diputatu protagonista 'Debarri' saioan

Gipuzkoako Landa Garapenerako diputatu elkarriketatu du Alberto Gorritibereak

GOIENKARIA > BERGARA

Debarri saioa azken txanpan sartu da eta azken bi saioetan ez da alkaterik izango. Alberto Gorritibereak kazetariak aurkeztu eta zuzentzen duen saiotik ibarreko bederatzitako alkateak igaro dira dagoeneko eta aurrerantzean Gipuzkoako Diputazioko zein Debagoieneko Mankomunitateko ordezkariak gerturatuko dira Goiena Telebistako platora.

Uztailaren 12an Rafael Uriarren, Gipuzkoako Landa Garapenerako diputatu, elkarriketatu du Gorritibereak. Lehenengo sektoreak gure ibarrean bizi duen egoeraz jardungo dute.



RAFAEL URIARREN Landa garapenaren azterketa egingo du.

GOIENKARIA

'JAIAK 2006' > MARTITZENA, 21:15

Doneztebeko eta Lesakako jaiak datozen egunetan ikusgai Goiena Telebistan

GOIENKARIA > BERGARA

Eguenean, hilaren 6an, hasiziren San Ferminak Iruñean, baina uztailean Nafarroan bestez zenbait herriean ere ospatuko dituzte jaiak. Besteak beste, Doneztebekoak eta Lesakakoak, eta horien berri izango dutze

ibarreko telebistan. Goiena Telebistak oraingo astean Doneztebeko jaien gaineko saio berezia eskainiko du. GOITBk Ttipi-Ttapa telebistarekin duen harremanari esker Debagoieneko ikus-entzuleek Nafarroako festekin gozatzeko aukera izango

dute etxetik mugitu gabe. Trapatian dantz, txikientzat erraldoi eta kilikiak, su artifizialak eta herri bazkaria egingo dituzte Donezteben.

Lesakan ere oraingo asteburuuan ospatuko dituzte San Fermínak. Oraingo ostegunean hasi eta hilaren 10era bitartean jai giroa izango da nagusi herriko kaleetan; haurrentzako ekin-tzak, musika emanaldiak, kaleko giroa, Zubiondoko dantza eta herritarrei eginko elkarriketeta esanguratsuenak ikusteko aukera izango dute Goiena Telebistako ikus-entzuleek.

tele begi

Unai Loidi

Anbizioz

Anbizio handiko parrila" izango ei dugu ETB-1en datorren udazkenean. Eta "berrikuntza asko". Ez dakin zehatz zer esan nahi duen horrek, baina ikaratzentzako hasteko moduko iruditzen zait ETBko programazio buruaren iragarpena. Hasteko, "motibo konkreturik gabe", baina *Bertatik bertara* kendi egin dute, betiko hil, eta parekorik ez da ageri haren lekuak. *Mihiluze lehiaketa*, magazinearen ordez. Argumentua bera ere (argumenturik eza) ikaratzeko moduko da.

Eta bitartean, udarako nobedade nagusia *Wazemank* saioaren errepi-kapenekin batera *Super Nanny* da: umeak hezten esku ona daukan zaintzailearen lezioak. Baina programa ez da bertakoa, Kanadatik ekarri eta euskarara itzulia baizik. Pozik, hala ere, *Udanbeblai* edo antzeko produkturik aurten asmatu ez dutenean. Irailean edo urrian ikusiko dugu zer den anbizio handiko programazioa (*Pausokaren Balbemendi* telesailaz ari da igual), baina iruditzen zait kalifikatzeko modua bera geldituko dela anbiziotsu, beste behin, aurtengo udazkenean ere.

arrasate irratia

FM 107.7

Zapatua
10:00 Asteko gainbegiratua.

Puntu bidezko gidabaimenaren gainean, iritzil bila: Jon Altuna, HIRU garrialarien sindikatuko ordezkaria, Markel Irizar Euskaltel taldeko txirrindularia; Maite Bazterrikaren esku, India daozarenentzako aholkuak...

Domeka
10:00 Asteko gainbegiratua.

Astelehenetik egubakoitzera
10:00-12:00 Uda Giroan!

Albistegiak.
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa). Bainurako tokien egoera (Garaio urtegia, Musakolako igerilekuak). Elkarriketak. Zozketak (Donostiako Aquarium-erako sarrerak...) Ateraldia egingo proposamenak. Zorion agurrik. (parte hartzeko: 943 71 17 31).
12:05 Izarreran ordua: abesti ezagunak.
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo autobusera! (errepi-kapena)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Albistegi laburra
17:15 Zorion Agurren tartea (errepi-kapena)

GOITBko programazioa**Egubakoitzta, 7**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Zorion agurrik eta marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Musika saioa. 14:30 M1: Eguraldia eta zerbitzuak. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Iparorratza. 15:30 M1. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Didjerido. 16:15 Klipak. 16:30 M1. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Berbaire. 17:30 Eltz beroa. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Erreportaia. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 Jazz. 19:45 Albisteak. Julen Iriondo. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Berriak. 21:15 Behazulo. 21:45 Albisteak. Julen Iriondo. 22:15 Ilunpean. 22:45 Berriak. Deiane Arrieta. 23:15 Didjerido. 23:45 Albisteak. 00:15 Emisio amaiera.

Zapatua, 8

07:55 Emisio hasiera. 08:00 Marrazki bizidunak bilduma. 10:50 Astekoak. Informazio saioa. 11:00 Jazz. 11:30 Klip. 12:00 Didjerido. 12:30 M1. 13:00 Jaiak 2006: Eskoriatza, Elgeta eta Aramaio. 14:00 Astekoak. 14:15 Ilunpean. 14:45 Erreportaia: Gasna feria. 15:15 Marrazkiak. Snorkeldarrak. 16:00 Bihurkorra. 17:00 Debarri. Eskoriatza. 18:00 Teknopolis. 18:30 Berbaire. 19:00 Sustraia. 19:30 Munduari bueltaka. 20:00 Astekoak. 20:15 M1. 20:30 Behazulo. 21:00 Ilunpean. 21:30 Harmaillatik. 22:00 Jaiak 2006: Eskoriatza, Elgeta eta Aramaio. 23:00 Didjerido. 23:30 Debarri. Eskoriatza. 00:30 Emisio amaiera.

Domeka, 9

07:55 Emisio hasiera. 08:00 Marrazki bizidunak bilduma. 11:00 Behazulo. 11:30 Ilunpean. 12:00 Berbaire. 12:30 Harmailatik. 12:50 Astekoak. 13:00 Debarri. Eskoriatza. 14:00 Jaiak 2006. Eskoriatza, Elgeta eta Aramaio. 15:00 Klip. 15:15 Erreportaia. 15:45 Marrazki bizidunak. Card / Snorkeldarrak. 17:15 Didjerido. 17:45 Astekoak. 18:00 Iparorratza. 18:30 Jazz. 19:00 Elkartasun bidea. 19:30 Harmailatik. 20:00 Debarri. Eskoriatza. 21:00 Jaiak 2006. 22:00 Berbaire. 22:30 Behazulo. 23:00 Ilunpean. 23:30 Eltz beroa. 00:00 Didjerido. 00:30 Astekoak. 00:45 Amaiera.

Astelehenetik, 10

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Zorion agurrik eta marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Behazulo. 14:15 Eltz beroa: Krepak. 14:30 M1. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Munduari buelta. 15:30 M1. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Ilunpean. 16:15 Klipak. 16:30 M1. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Didjerido. 17:30 Zera dio: Retegi eta Afrika. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Berbaire. 18:15 Sustraia. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 Behazulo. 19:45 Berriak. Deiane Arrieta. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Berriak. Goiatz Arana. 21:15 Harmailatik. 21:45 Berriak. 22:15 Harmailatik. 22:45 Berriak. 23:15 Jazz. 23:45 Berriak. 00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 11

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Zorion agurrik eta marrazki bizidunak. Card. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Jazz. 14:15 Zera dio. 14:30 M1. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Elkartasun bidea. 15:30 M1. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Harmailatik. 16:15 Klipak. 16:30 M1. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Jazz. 17:30 M2. Danbaka. Potemkin. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Erreportaje. 18:15 Munduari buelta. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 Harmailatik. 19:45 Albisteak. Julen Iriondo. 20:15 Marrazki bizidunak eta zorion agurrik. 20:45 Berriak. 21:15 Jaiak 2006: Doneztebe. 21:45 Gaurkoak. 22:15 Berbaire. 22:45 Berriak. 23:15 Behazulo. 23:45 Albisteak. 00:15 Emisio amaiera.

Eguztenea, 12

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Zorion agurrik eta marrazki bizidunak. Card. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 M2. Danbaka. Potemkin. 14:30 M1. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Munduari buelta. 15:30 M1. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Harmailatik. 16:15 Klipak. 16:30 M1. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Jazz. 17:30 M2. Danbaka. Potemkin. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Erreportaje. 18:15 Munduari buelta. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 Harmailatik. 19:45 Albisteak. Julen Iriondo. 20:15 Marrazki bizidunak eta zorion agurrik. 20:45 Berriak. 21:15 Jaiak 2006: Doneztebe. 21:45 Gaurkoak. 22:15 Berbaire. 22:45 Berriak. 23:15 Behazulo. 23:45 Albisteak. 00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 13

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Zorion agurrik eta marrazki bizidunak. Card. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Harmailatik. 14:15 Klipak. 14:30 M1. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Sustraia. 15:30 M1. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Debarri: Gipuzkoako Landa Garapenerako Diputatu Rafa Uriarrenen. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Jazz. 17:30 M1. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Elkartasun bidea. 18:45 Iparorratza. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 Erreportaje. 19:45 Albisteak. Julen Iriondo. 20:15 Marrazkiak. 20:45 Berriak. 21:15 Berbaire. 21:45 Gaurkoak. 22:15 Debarri: Rafa Uriarren Landa Garapenerako Diputatu. 22:45 Berriak. 23:15 Doneztebe jaiak. 23:45 Gaurkoak. 00:15 Emisio amaiera.

Beñardo Kortabarria > 'Teknopolis' saioko zuzendaria

"Pozik gaude Rikardo Arregi sariarekin, gure lanaren aitorpene den neurrian"

Rikardo Arregi kazetaritza sariaren sari berezia jaso du Elhuyarko komunikazio sailak

Iaz ere jaso zuten sari bat 'Errauastegiak sutan' dosierrarengatik

ENEKO AZKARATE > ANTZUOLA
Elhuyar Fundazioko komunikabideen sailak jaso berri du aurten Rikardo Arregi kazetaritza sariaren sari berezia. Elhuyar aldizkaria, Zientzia.net Interneteko ataria, ETBko eta GOITBko Teknopolis saioa eta Euskadi Irratiko Norteko Ferrokarriila egiten dute. Beñardo Kortabarria antzuolarra da Teknopolis saioko zuzendaria.

Zelan hartu duzue saria?


Poztasun handiarekin. Gustura gaude, gure lanaren aitorpene den neurrian.

Orain momentuan zertan diharduzu Elhuyarren?

Orain dela sei urtera arte Elhuyar aldizkariko erredaktore-burua izan nintzen. Gero, idazten segitu nuen, ardura hain utzita, eta orain dela zortzi urte hasi nintzen, aldi berean, ETBko Teknopolis saioarekin. Geuk sortutako egitasmoa da Teknopolis. Azken bi urteotatik saioko zuzendaria naiz.

Zortzi urte egin ditu pantailan Teknopolis-ek. Jarraituko du?

Bai, orain datorren ikasturteari begira egitasmoa prestazten gabiltza, babesleak topatzen eta. Izan ere, geuk egiten dugu hori guztia, produkzio lana, editatzeko sistema, ikerketa lanak, kazetari lanak..., eta ETBk ipintzen du lanerako tokia, dekoratuak, jantziak, kamerak, eta abar. Debagieneko etxeak izan dira, gainera, babesle nagusiak. Aurrerantza, gure lanaren aitorpene den neurrian.



Beñardo Kortabarria antzuolarrak urteak daramatza Elhuyar Fundazioko hedabideetan lanean.

azaltzen. Zuzenak izaten eta, aldi berean, kaleko jendearen hitzak erabiltzen, gaiak gizatartzen, historiak kontatzen... eta, batez ere, entretenitzentzat.

Informazio iturriak zeintzuk dira?

Internet, aldizkari espezializatuak... Bestalde, jendeak uste dezake ikerketa kanpoan egiten dela, eta beharbada beste maila batean hala izan daiteke, baina hemengo unibertsitateetan lantzen dihardute munduko unibertsitate eta teknologia zentroetan lantzen dihardutenean gai berak, akaso baliabide gutxiagorekin.

Irakurle edo ikus-entzule tiporrik badauka Elhuyar aldizkariak eta Teknopolis-ek?

60.000-80.000 ikus-entzule badauzagu eta horrek esan nahi du bi San Mames besteko ikus-entzule kopurua daukagula, eta San Mamesera denetariko jendea joaten da.

Non gusturago, prentsan ala telebistan?

Sekulako aurkikuntza izan da telebistarena. Idaztekoan izan naiz beti, baina politagoa da telebista. Erakargarria da historia bat muntatzea irudi batzuetan oinarrituta. Eta erronka bat; izan ere, zientziaren munduan ez da erraza albiste edo istorio bat ondo egitea eta zuzen kontatzea. Esaterako, tesi bat bi minutuan kontatu behar duzu. Uneoro ipini behar duzu ikuslearen tokian.

ETBko buruak-eta gustura daude emaitzarekin?

Badakigu saio duina eta txukuna egiten dugula. Baditugu begirale zorrotzak, horretarako propio jarritakoak eta haien impresioak eta iritziak jasotzen ditugu noizbehinka. Badakigu ez dela BBCko dokumentalen mailakoa, baina programa txukuna egiten gabiltzala uste dugu. Badakigu ETBk badakiela hori eta badakigu ETBri nolabaiteko ospea eta prestigioa ematen dio-la horrelako saio bat edukitzeari.

ten MU eta Fagor, baina beste urte batzuetan Ikerlan, Ulma...

Zelako audientziak izan ditu saioak?

Programa hasi zen audientzia txikiak, baina erakundeek eta ikerketa zentroek apustu sendoa egin zuten, zientziaren eta teknologiaren dibulgazioa edo komunikazioa telebistaren bitartez

bermatzeko. Gerora, apurka-apurka, Teknopolis-ek gora egin du beti. Orain dela bizpahiru urte audientzian jauzi kuantitatiboa nabarmena egin zuen. 60.000-80.000 ikus-entzule inguru izan ditugu aurten arte, baina azkenaldian Alonsomaniarekin lehiatu behar izan dugu ETB2n. Izan ere, 1 Formulako txapelketako proben ordu berean emititzen da ETB2n. 1 Formulak %60-65eko audientziak ditu Euskal Autonomia Erkidegoan.

Teknopolis gauza izan da zientzia eta teknologia modu didaktiko eta entretenigarrian publiko orokorraren artean zabaltzeko.

Zientziako gaiak askotan abstractu samarrak izaten dira eta telebistarako irudikatzea ez da erraza izaten. Saitzen gara modu eta mezu erraz eta erakargarriean

15 laguneko lan-taldean ibarrekoak ere badaude

15 lagunek osatzen dute Elhuyar Fundazioko komunikabide saila. Taldean denetarik dago: kimikariak, biologoak, informatikariak..., eta Beñardo Kortabarria da kazetari bakarra. Teknopolis emititzen den sasoian, urtarriletik ekainera arte, sei laguneko taldea egoten da satorako, kazetari gehiagorekin.

Maria Agirre artxabala, esaterako, Teknopolis-en azken aroan ibili da aurten eta iaz Maider Egües mondragoetarra. Hirurak ibarreko tokiko hedabideetan jardundakoak dira: Beñardo eta Maider Arrasate Press-en eta Arrasate Telebistan; Maria, horietan eta baita Goienakoetan ere.

Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

www.goiena.net-eko-blog.komertzialak

- Zure negozioko eskaintzaren berri sarean
- Euskarri merkea
- Emaitzia onenak Google eta beste bilatzaileetan
- Erabiltzeko erraza

Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:
www.goiena.net/blogak ·
azabarte@goiena.com ·
943 76 92 70

Eta baita ere:
www.aizue.com
www.lilura.com
www.baster-alde.com
www.ehmff.com



Goiena.net
Debagoieneko ataria Interneten

| | | | | | |
|---------------|--------------|-------------|---------------|---------------|-----------|
| /quattro4 | /BZ-sistemas | /ezkutuorly | /gutzizeder | /multiopticas | /udalatx |
| /argi-plastik | /dragon- | /gallastegi | /irudisport | /ohiak | /udalitz |
| /arregi | oriental | /ganesha | /korozabaleta | /kipark | /urdeki |
| /atai | /dukienna | /garaia | /maulanda | /vitoria | /markiegi |
| /azkarate | /ego | /gorkagarai | /mayte | /pando | |
| /joseba | /elejalde | /gorkataxi | /merkeopari | /richimaier | |

SHARON STONER
DANBAKA)))) LEHIAKETAKO I. EDIZIOKO IRABAZLEA
DISKO BERRIA ZURE ESKU



**ESKAINTZA
BEREZIA
ASTELEHENeko
GOIENKARIKO
HARPIDEDUNENDAKO**

CDa + etxean jasotzea*: **10 euro**

Harpidedun ez bazara, harpidetu orain eta jaso CDa etxean* **DOAN**



Goienkaria
astehenean, aste bukaera osoa

Egin zure eskaria uztailaren 21a baino lehen!

Deitu telefono honetara: **902 36 38 51** 9:00etatik 18:00etara

EDO harpidedun bazara, eta nahiago baduzu, bete kupoia eta bidali:



Harpideduna (Izen abizenak)

Kalea..... Herria.....

Telefona.....

Bidali kupoia GOIENArat: 132 posta kutxa 20500 ARRASATE

*Astelehengo Goienkariako banaketak onartzen duen kasuetan bakarrik.

Uztailak 7-14

Jaiak



BERGARA

> San Kristobalen omenezko jaiak ospatuko dituzte Aldai Egia auzoan

Honako ekintzak izango dira Aldai Egian: pinu sartzea eta afaria (gaur, egubakoitza); dantzaldia (bihar, zapatua); meza, luntxa, dantza emanaldia (etzi, domeka) eta meza, luntxa eta dantzaldia (astelehenean, San Kristobal egunean).

Kontzertua



OÑATI

> Sexy Sexers, Los Chuloputas eta Monky Day taldeen musika

Berako Sexy Sexers taldeak *Iluntze berri baten bila* diskoko riff-ez betetako rock abestiek joko ditu. Los Chuloputas (Oñati) eta Monky Day (Bartzelona) taldeek ere joko dute. Bihar, zapatua, izango da, gaztelekuau, 22:30ean.

Zinema



ELGETA

> 'Nathalie X' filma emango dute Espaloia kafe antzokian

Nathalie X filma emango dute eguztenean, 21:30ean. Frantziako aktore onenetariko batzuk –Fanny Ardant, Emmanuelle Béart eta Gérard Depardieu– agertzen dira maitasuneko eta jelosiazko istorio honetan.

Erakusketa

ARRASATE

> Loixe zeramika elkarteko ikasleen erakusketa

Loixe zeramika elkarteko ikasleek ikasturte bukaerako erakusketa ipiniko dute Monterron kultura etxeen. Hilaren 11n zabalduko dute.

Hilaren 25era arte egongo da bisitzatzeko aukera, liburutegiaren ordutegian.

BERGARA

> Usoa Mendikute bergararraren erakusketa

Usoa Mendikute artista bergarar gaztearen margolan erakusketa dago Aroztegi aretoan. Uztail osoan egongo da bisitzatzeko aukera.

Ordutegia: astegunetan, 18:30-21:00; zapatuetan: 12:00-14:00 eta 18:30-21:00.

ARRASATE

> Antonio Oteitzaren eskultura lanak ikusteko aukera dago

Antonio Oteitzak, Jorge Oteitzaren anaia, hogei bat eskultura ditu erakusketan Arregi markoztatzen dendant. Brontzezko eskultura espresionistak dira, motibo erlijiosotan eta herrikoietan inspiratuako artelanak.

Jaiak

ANTZUOLA

> Piedade jaiak ospatuko dituzte datozen egunotan

Izatez abuztuan da Piedade eguna, baina ospakizunak egunotan egiten dituzte Antzuolan. Hala, egunen, hilak 13, hasiko dira jaiak umeendako herri bazkariarekin, jokoekin, txosnak irekitzearekin eta, aurtengo berritasuna, hontza jaistearekin.

Hilaren 13tik 16ra bitartean ospatuko dituzte Antzuolako jaiak.

Bestelakoak

ESKORIATZA

> Hainbat ikasleri diplomak banatuko dizkiete HUHEZIn

Informazioako eta Komunikaziorako Teknologiak Formazioan masterra egin duten HUHEZiko ikasleei diplomak banatuko dizkiete. Mikel Usabiagak, Kristau Eskolaren zuzendaria orokorrak eta MUko errektoreak hitz egingo dute.

Eguenean, hilak 9, HUHEZIn, 11:00etan.

OÑATI

> Bertso afaria egingo dute Larrain gain elkartean

Bertso afaria egingo dute Arantazura bidean dagoen Larrain gain elkartean. Jesus Mari Irazu eta Amets Artzallus gai librean arituko dira.

Gaur, egubakoitza.

Musika

BERGARA

> Rafa Ruedak 'Saredun eskua' diskoa aurkeztuko du

Rafa Rueda abeslari eta gitarra-jole mungiarak *Saredun eskua* delako diskoa aurkeztuko du. Honako taldekiekin arituko da: Mikel Azpiroz (teklatuak), David Gonzalez (baxua) eta Rufo Urbina (bateria).

Gaur, egubakoitza, Espoloian, 22:30ean.

ARRASATE

> 3.60 aretoak bi egunetarako ekintzak antolatu ditu

Honako emanaldiak izango dira: gaur, egubakoitza, Jane's Addiction taldearen Three Days proiekzioa; eta bihar, zapatua, Nothing Without Crew festa (snow-skate proiekzioak eta DJak) izango da

Proiekzioa gauerdi egindo dute; festa, 03:00etan.

BERGARA

> Zura taldeak kontzertua egingo du gaztetxean

Zura taldeak musika emanaldia egingo du gaztetxean. Kabi Strubell bidasoarren taldea da Zura. Iaz Lauaxetari eta Federico Garcia Lorca poetari omenaldi diskoa aterazten.

Bihar, zapatua, 22:30ean. Sarrera 3 euro da.

Lehiaketak

EUSKAL HERRIA

> Elgoibarko kirol argazki lehiaketan parte har daiteke

Kirol argazki lehiaketa antolatu dute Elgoibarko Udalak eta Ongarri argazki elkarrekin. Edozeinek parte har dezake koloretako edo zuri-beltzezko argazkiekin. 24 x 30 cm-koak izan behar dute, 30 x

40 cm-ko euskarrian. Gehienez ere lau aurkez daitezke. 200 eta 100 euroko sariak daude, adin multzoka.

Argibide gehiago, www.elgoibar.org helbidean.

Mugaeguna, uztailaren 21a.

BERGARA

> I. Film Laburren lehiaketa antolatu du Bergarako Udalak

I. Film Laburren lehiaketa antolatu du Udalak, Debagoienean bizi den edozeinendako.

LANAK bakarka edo taldeka aurkez daitezke irailaren 15era arte, kultura etxeen. 300 eta 250 euroko sari bana dago, eta bergarar onenarendako 100 eurokoa.

Argibideak: www.bergara.net.

DEBAGOIENA

> II. Udako Argazkien lehiaketa antolatu du Goienak

Debagoieneko edozeinek parte har dezake. Argazkiak

koloretan edo zuri-beltzatan izan daitezke, baina ezinbesteko da udakoak izatea, eta inoiz argitaratu barikoak.

Olympus E-500 kamera, hotelean gaua eta bi lagunendako bazkaria edo afaria Gure Ametsa jatetxeen, horiek dira sariak.

Oinarriak eta jasotako argazkiak: www.goiena.net/blogak/argazkiak.

DEBAGOIENA

> 'Gomendatzen dizut...' lehiaketa tan parte har daiteke

Arrasateko eta Bergarako Gazte Informazio Zerbitzuek antolatutako Gomendatzen dizut... gomendio lehiaketan parte har daiteke. Oporren gaineko aholkuak eta, ahal bada, argazkiak ere eskatzen dituzte. Oporraldiak eta irteerak daude sari moduan.

Mugaeguna, irailaren 28a. Argibideak: www.aizue.com.

PROPOSAMENA



ARETXABAleta

> Atzegik saritutako film laburrak emango dituzte gaur

Atzegi elkartek saritutako film laburren emanaldia egingo dute gaur, egubakoitza, Aretxabaletako udako aire zabaleko zinema egitarauaren barnean. Horietako bat Aretxabaletako Aratz taldeak egindako *Bidaia baten ametsa* filma izango da (irudian), hirugarren sariduna.

Beste filmak hauetan izango dira: *Bilintx; Portal 12, 5º Izda.*; eta *La espada de la cobra voladora*.

Herriko plazan emango dituzte filmak gaur, egubakoitza, 22:30ean.

nire aukera



Oihana Diaz
Ganbara abesbatza
Oñati

"Esloveniara egin dugun bidaia daukat gogoan"

Zan egiten bukatzen ez dudala ematen du. Eguabakoitzean, eguneroko lana bukatuta, trago batzuk hartzen ditut lagunekin Oñatin, eta afalostean, OGArakin entseauten dut. Zapatu goiz batzuetan ezkontzaren baten-edo abestea tokatzen da; bestela, paseatzera joaten naiz. Arratsaldean, berdin: batzuetan kontzertua ditugu. Gauean parranda eginez gero, domeka goizean lo egiten dut. Baskalostean berriro entsegu dut, eta taldekoak kafea hartu eta entsegu komentatzen dugu gero.

Ezkontza eta jai banaka batzuetan izan zarete...

Bai. Gehienetan, gure katxeaz gain, luntxa ere eskaientzen digute gero. Baino betiko ohitura da taldekoak gero zerbaite hartzera joatea.

Taldekoekin harreman handia duzu, beraz.

Bai. Nire lagun koadrila daukat, eta Ganbara beste lagun talde bat da. Hamabi urte gabiltza dagoeneko eta...

OGArekin egindako bidaietik zein duzu gogoan?

Orain azkenekoa, Esloveniara egin duguna. Denetariko sentimenduak eragin zizkigun, eta oraindik gogoan ditut. Horrez gain, hemen inguruan zein Espainia aldean leku batzuetan abestu dugu, bai.

Udako oporretan inora joango zara?

Bai, Saloura joango naiz, deskantsatzen eta hondartzan egotera.

Bestelako zaletasunik?

Abestea da nire zaletasun handiena.

Zinema

ANTZUOLA FRONTOI TXIKIA

(Zehaztu gabeko filma)
Egubakoitzta: 22:30.

ARETXABAleta HERRIKO PLAZA

El reino de los cielos
Martitzena: 22:30.

ARRASATE MONTERRON PARKEA

Volver
Egubakoitzta: 22:30.

ESKORIATZA HERRIKO PLAZA

Las crónicas de Narnia
Egubakoitzta: 22:30.

Crash

Astelehenetan: 22:30.

Batman begins

Eguaztena: 22:30.

EIBAR UNZAGA

Cars
Egubakoitzta: 19:30, 22:15.
Zapata eta domeka: 17:00,
19:30, 22:30.
Astelehenetan, martitzena eta
eguaztena: 19:30, 22:15.

RIALTO

Brokeback mountain
Egubakoitzta: 19:30, 22:15.
Zapata eta domeka: 17:00,
19:30, 22:15.
Astelehenetan eta martitzena:
19:30, 22:15.

GASTEIZ GURIDI

La casa del lago
17:30, 20:00, 22:30.

Scary movie 4

17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

Cars

17:00, 19:45, 22:30.

El tigre y la nieve

17:30, 20:00, 22:30.

Vecinos invasores

17:30.

Los managers

17:30, 20:00, 22:30.

Las colinas tienen ojos

20:00, 22:30.

El señor de la guerra

17:30, 20:00, 22:30.

FLORIDA-GURIDI

La educación de las hadas

17:30, 20:00, 20:30.

Cars

17:30, 20:00, 22:30.

Aaltra (J.B.A.)

20:00.

Hacia el sur

20:00, 20:30.

No estoy hecho para ser amado

17:30, 20:00, 20:30.

La bicicleta

17:30, 22:30.

People

17:30, 20:00, 22:30.

Pintar o hacer el amor

17:30, 20:00, 22:30.

Scary movie 4

17:30.

ÁBACO-LAKUA ZINEMAK

Vecinos invasores
16:00, 18:00, 20:00, 22:00,
00:30.

Cars

16:00, 19:00, 22:00, 00:30.

People

16:00, 18:00, 20:00, 22:00,
00:30.

Ice age 2

16:00, 18:00, 20:00.

Misión imposible 3

22:00, 00:30.

Cuando llama un extraño

22:00, 00:30.

X-Men: la decisión final

16:00, 18:00, 20:00.

Plan oculto

16:30, 19:00.

Las colinas tienen ojos

16:00, 19:00, 22:00, 00:30.

El código Da Vinci

17:00, 20:00, 23:00.

Rosario Tijeras

22:00, 00:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

YELMO CINEPLEX-GORBEIA

En la tiniebla

Egubakoitzta: 15:50, 18:00,

01:00.

Zapata: 15:50, 01:00.

Domeka: 12:15, 15:50, 22:45.

El asesinato de Richard Nixon

18:35, 20:35, 22:35, 00:35.

Vecinos invasores

20:45, 22:40, 00:30.

X-Men: la decisión final

12:15, 15:50, 18:00, 20:10,

22:25, 00:35.

Ultravioleta

20:05, 22:05, 00:05.

El código Da Vinci

12:15, 16:15, 19:15, 22:15.

Devuélveme mi suerte

12:15, 16:35, 18:40.

Cars

16:00, 19:00, 22:00, 00:30.

People

16:00, 18:00, 20:00, 22:00,
00:30.

Ice age 2

16:00, 18:00, 20:00.

Los managers

12:15, 15:45, 18:15, 20:30,

22:45, 01:00.

El tigre y la nieve

12:15, 15:30, 17:45, 20:00,

22:15, 00:30.

Las colinas tienen ojos

12:15, 16:20, 18:20, 20:20,

22:20, 00:20.

La casa del lago

12:15, 16:30, 18:30, 20:30,

22:30, 00:45.

El código Da Vinci

12:00, 16:30, 19:30, 22:20,

01:00.

Los managers

12:00, 16:10, 18:15, 20:20,

22:30, 00:45.

Cars

12:10, 17:00, 19:30, 22:00,

00:30.

En la tiniebla

22:10, 00:30.

La profecía

20:00, 22:15, 01:00.

Shutter

22:15, 00:45.

Vecinos invasores

12:15, 16:10, 18:10, 20:10,

22:10, 00:30.

Ultravioleta

12:00, 16:20, 18:20, 20:20.

Devuélveme mi suerte

12:10, 16:10, 18:15, 20:20.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.

Eguerdiko saioak, domekan.

Eguerdiko saioak, domekan.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

<h3

Gizon bat emagin zerbitzuan

DEBAGOIENEKO OSPITALEAN Zortzi lagunek osatzen dute emagin zerbitzua eta Txetxu Ortega da gizonezko bakarra

EMAGIN Erizain ikasketak egin ondoren, emagin espezialitatea ikasi zuen Txema Ortegak, Tarragonan, bi urtez

ESPERIENTZIA Basurton eta Bilbon ibili da lanean; honezkerro 500 bat jaiotzatan parte hartuko zuen

EDU MENDIBIL > ARRASATE
 Debagoieneko Ospitaleko emagintza zerbitzuan ari da lanean Txetxu Ortega basauriarra. Zortzi lagunek osatzen dute zerbitzua eta hura da gizonezko bakarra. Normalean emakumeek egin izan dute lan hori orain arte. "Haurdun diren emakumeak ginekologo gizonezkoengana joaten dira askotan, baina emagin zerbitzuan gizonak topatzea ez da hain normala oraindik ere. Nik dakida, Gipuzkoan beste mutil bat dago bakarrik, Donostiako Errresidentzian. Baina poliki-poliki gauzak aldatzen doaz...", diosku Ortegak.

Erizain ikasketak egin ondoren, emagin espezialitatea ikasi zuen Txetxu Ortegak, Tarragonan, bi urtez. Arrasateko Ospitalean bi urte beteko ditu azaroan; aurrelik Basurton eta Gurutzeetako Ospitalean ibili da lanean. Honezkerro 500 bat jaiotzatan parte hartuko zuela kalkulatzen du. "Emakumeen alboan egon behar duzu momentu oro, dilatazio prozesua jarraituz, erdi-



GIZON BAKARRA Txetxu Ortegak (37 urte) bi urte daramatza Debagoieneko Ospitaleko emagin zerbitzuan.

XABIER URTZELAI

tu aurreko uzkurdurak zainduz, umetxoaren taupadak aztertuz... Baina ez da bakarrik haurra ekartzen lagundu eta lista. Giza alderdia oso garrantzitsua da; amaren itxaropenak zeintzuk diren jakitea, esate baterako. Alde horretatik Debagoieneko Ospitaleak arreta berezia eskaintzeko baliabide hobeak eskaintzen ditu tamaina handiagoko beste ospitale batzuekin alderatuta".

ESKER ONEKO LANA

Txetxuk azpimarratzen duen moduan, emakumeek egiten dute dena erditze momentuan. "Normalean dena ondo joatea izaten da. Zutik edo anestesia barik erditu nahi duten emakumeak tokatu zaizkit eta ez da egoten oztoporik horretarako".

Lana gustuko duela eta oso esker onekoa dela esan digu: "Haurra jaiotzen deneko momento horiek kompartitzea oso berezia da. Logikoa denez, ilusioz eta alaitasunez betetako uneak izaaten dira eta horren lekuko izatea gauza handia da".

ahobero

"Ez dira dauden guztiak eta ez daude diren guztiak. Batzuk ez ditut ezagutu ere egiten eta nik tratatutako zenbait txirrindulari Tourrean ari dira"

Eufemiano Fuentes > Medikua Puerto operazioa delakoak hautsak harrotu ditu txirrindularitzan. Oraindik ikusteko dago zer gertatzen den aurteno Tourrean.

iturri onetik

Eskoriatzan batzokia zabalduko dute datozen hilabeteotan

Eskoriatzako Hidalga kaleko 4. zenbakiko etxabeen batzokia jarriko dute. Dagoeneko Aretxabaleta eta Eskoriatzako EAJK elkarte gastronomikoa eta batzoki jarduera ezartzeko eskaera egin dute udaletxeen. Beraz, Eskoriatzak batzokia izango du datozen hilabeteotan. Duela 15 bat urte itxi zuten Eskoriatzako Aranburuzabala kalean, Otzeta taberna dagoen lekuau, zegoen batzokia.

piperraутса

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperraутса

40 urtez ikasten

Musikairen izan genuen Benito Lertxundi, domeka gauean. Elorrioko parking handiari zati bat kendu eta 1.000 lagunentzako tokia zegoen prest. Baina ez zen nahikoa izan, jendea ezin kabitu eta hesia ireki behar izan zen. Ez dut horrelako arrakastarik ezagutu aurreko zortzi edizioetan.

Meritu itzela ematen diot Orioko kantariari. Hasi zentik, duela 40 bat urte, ez dio utzi kontzertuak sarri emateari, ezta garai txarretan ere. Eta, bide luzean, etengabe landu ditu kantagintza eta kantaera, musika jantzi, laguntzaile taldea finkatu, ikuskizuna dotoretu. Gustuak gustu, profesional bikain eta arrakastatsua bihurtu da Lertxundi jauna. Lanaren puruz.

Bakoitzaz gurean bagina Benito musikan bezain onak, herri indartsuagoa ginateke.

ai, eñe!



Brikolajeko makinak apaingarrieikin

Antza, brikolajeko erremintak apaintzen dituztenak ere badira. Hortxe lixatzeko makina bat, moja, kainoi eta guzti.

<http://elfurl.com/3dtvs>



Eraman dotoretasuna zure etxera



gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1
 OÑATI
 Tel.: 943 71 63 22
 Faxa: 943 78 15 51